



THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE

FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900


THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE


FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET

1900

THE  
WORLD'S  
PUBLISHING  
AND TRADING  
HOUSE


FOR  
THE  
AMERICAN  
MARKET











7 4



H- 8656  
R- 36291

ATV  
L929

CONFESINOCO TA COMUNINOCO

# **SACRAMENTU SANTUAC**

ONDO

PRESTAURIC ARTUTECO ERREGU

TA ARGUIBIDEAC.

## VERGARA 21 DE AGOSTO DE 1856.

En vista del dictamen que han emitido los P. P. Mres. Fr. Antonio Victor de Garteiz y Fr. Juan Domingo de Unzueta, sobre el opusculo titulado **VISITAS AL SANTÍSIMO SACRAMENTO Y A MARÍA SANTÍSIMA**, para todos los días del mes, con actos de preparación y acción de gracias para la confesión y sagrada comunión, escrita por San Alfonso Ligorio, y traducidas al vascuence por el esponente FRAY JOSÉ ANTONIO DE URIBARTE, de no contener cosa alguna contraria á nuestra santa fe católica buenas costumbres y reales pragmáticas, damos nuestro permiso, por lo que á nos toca, para que pueda imprimir dicho opusculo de las visitas de Ligorio, en vascuence.

Así lo decreto y firmó S. S. I. el obispo mi señor de que certifico —*Cipriano, obispo de Calahorra y la Calzada.*—Por mandado de S. S. I. el obispo mi señor, *Bachiller Juan Francisco Ruiz, Secretario de Visita*

—

Certificamos los infraescritos que habiendo por orden del Reverendo P. Fr. Mariano de Estarta, misionero Apostólico y Comisario provincial de esta Provincia de Cantábrica, leído y examinado un opusculo titulado **JESUS SACRAMENTADUARI eta AMA DONCELLA MARIARI VISITAAG**, illaren egun guztietarako San Alfonso Ligorio e iminiac. Erder zootie eusquerara biurtuae F. AT JOSÉ ANTONIO DE URIBARTE, Atta San Franciscoren seme misionariac — no hemos habido cosa alguna contraria á nuestra santa fe católica, buenas costumbres, y reales pragmáticas. Durango y 5 de julio del 1856.—*Fr. Antonio Victor de Garteiz.*—*Fr. Juan Domingo de Unzueta.*

Si el lector que nos considera los libros de  
que se tratan en este número, no se  
satisface con lo que allí se ha escrito, no obstante  
que las opiniones y conclusiones establecidas en este  
trabajo son las únicas que han sido en el libro  
de acuerdo y apropiadas al caso particular, sin embargo  
de tenerlo oportuno, nos daremos la  
oportunidad de responder a los que  
sean más argumentados y más convincentes la defensa

**Es propiedad de D. MARTIN OCHOA DE ANTEZANA,**  
y no podrá reimprimirse sin su consentimiento  
sopena de demandarle por los tribunales com-  
petentes, el derecho de la ley.

Es propiedad de D. MARTIN OCHOA DE ANTEZANA,  
y no podrá reimprimirse sin su consentimiento  
sopena de demandarle por los tribunales com-  
petentes, el derecho de la ley.

H-8656

R- 36291

2.92



JESUS SACRAMENTADUARI

ETA

AMA DONCELLA MARIARI

VISITAAC

ILLAREN EGUN GUZTIETARACO

SAN ALFONSO LIGORIOC IMINIAC.

ERDERAZOOTIC EUSQUERARA BIURTUAC

FR. JOSE ANTONIO DE URLARTE

AITA SAN FRANCISCOREN · SEME MINIONARIAC.

GUEITU JACOZ ONDO CONFESETACO TÁ COMULGUETAGO  
ERREGU TÁ ESCARIAC, MEZIA KNTZUTEGO, JESUS  
SACRAMENTADUAREN BIDERATZI URRUNA  
BESTE GAUZA ON BATZUCAZ,

BEAR DIRAN ESCUBIDEACAZ

Durangon Martin Ochoa Antezanaren Librerian.

Bilbao: Imp. de Larumbe, año de 1856.



## BERBA AURRECOA.

Liburu au iracurteco asmoac daucazuzan cristiñaua: ez eguzu uste izan sinistu eragitera noatsula celan Altaraco Sacramentu santuan dagoan Jesucristo gure Jauna, daquidalako ez dozula nire esanaren bearric, gure fedeco egua au sinistutecoa. Ain guichi necatuco naz adierazoten zuri, celan dagoan Jaun an Sacramentu onetan erruqui ta amodiozeo jarleku bat, aberastutecoa gure arimaac ceruco ondasun ugariacaz. Bacarric erregututen deutsut jarri zaitezala pusca baten ceure artean gogoratuten eta beguiratu dagizula, zure amodio ta esquer ona Sacramentu Jaungoicozco oneganaco ete diran ceure fedeac eracusten deutsun bestekoak: eta baldin uste badozu epeldu edo otzitu jatsula amodia edo guichitu beraganaco etsiguitasun ta eraspena, erregututen deutsut erabagui daguizula egotea

beragaz egun bacochean guichienez orduna laurenchu baten. Ecin joan bazara Eleazarra, egun daiquiozuz erregea ta escari onceec ceure echetic, jarriric belaunico Jesus Sacramentadua urreen daucazun lecituruntz beguira.

Barriz egnin bérar dozuz iru gauza gaitic: Lelengo, emoteco esquerrac Jesusi egun euseun mesede, esan albaiño andiagoa gaitic, jarriaz Sacramentu Jaungoicozco onetan, euseun amodio larregua gaitic, adoretan dozula itzal eta amodio albait andienagaz. Bigarren, quitau eta paguetaco, guizonac eurac Sacramentu onetan egun deutsezan iraun ta emondako naibagueen zorrac. Eta irugarren, escatuteco ceure pecatuen parcaciñoa, ondutego edo obatuteco gracia, bere amodio santua, vicitza onean iraupena, eta betico zoriontasuna.

Eguia dà Jaungoicoac edonun ta leku guztietai entzuten dituzala gure erregea ta escariac, baña da bere gauza ciurra,

ugaritasun andiagoagaz zabalduten dituzala bere doe ta emocaiac Altaraco Sacramentu Santuan. Ez litzateque icusico cristinaùen artéan aimbeste pecatu ta gaistaqueria, eta ecin cembatuta contau albeste arima \*guichiago jausico litzatequez infernura, zaletuco balira cristinaùac eraspen onetara. Devociño guztielh artean Jaungoicoaren gogocoena eta gure arimae aberastuteco egoquien dà duda bagaric Altaraco Sacramentu santuan Jesusadoretea.

¿ Noc adierazo celaco aurrerapenac egun dituezan arima ascoc ceruco bidean eta ceimbat pecatari ondu dan devociño onen bitartez? Eta ¿ noc daqui, zuc bere artuco ete dozun asmo sendoren bat ichiteco guztiz pecatuko lecu, lagun ta munduari, emoteco guztiori osoro Jesusi, beragaz Altara aurrean zagozanen baten? Alan gura daquiola guztia daiquén Jaungoicoari. Agur.

## ASIERAN EGUNORO ESATECO ERREGUA.

Ó neure Jesus Sacramentadua! Zu zagoz gau ta egun Sacramentu orretan samur-tasun eta amodioz beteric guri deuzcuzun ondo naia gaitic. zuc iñoz azpertu baga icharoten deuzcuzu, deituten deuzcuzu, eta ceugan artutten dituzu ceugaz egon eta berba eguitera jañortsuzan guztiac. Nic sinistuten dot neure beguiacaz ieusita baño oraindic ciurrago, zagozala Altaraco Sacramentu santu orretan. Adoretan zaitudaz neure viotz eta arima guztitic: esquer andiac emoten deutsudaz eguin deuztazuzan mesedeac gaitic; eta batez bere emon deuztazuzalaco Sacramentu adoragarri orretan, ceure gorputza, ceure odola, ceure ariméa, eta ceure Jaungoicotitasuna bera, gura izan dozulaco, cuqui daguidala neure bitartecotzat ceure Ama guztiz Santa, Doncella garbi Maria; eta deitu deuztazulaco orain, lecu santi

onetan ceugaz egon, ceugaz berba eguin,  
eta ceugaz gozatutera. Adoretan dot ceu-  
re viotz guztiz maitegarria iru gauza gai-  
tic : lelengo, aleguiñezco esquerrac emo-  
teco Sacramentu santu orretan gugaitic  
gueldituagaz eguin ceuzezun mesede  
andiaren ordez ; bigarren, ceure arerioac  
Sacramentu orretan eguin deutsuezan  
irain edo injurien ordez : eta irugarren,  
gura cenduquedazalaco adorau, eta nai  
neuzquizulaco lagundi, aimbeste mundu-  
co Eleissatan, non bacarric zauquezan  
laguntasun baga, ceugaz gomutau bere  
baga, eta bear bada arguichu bat bere  
baga. ¡Neure Jesus maitea! Nic ametan  
zaitudaz neure viotz eta aleguin guztiagaz  
eta gauza guztien gañean: damu dot orain  
artean aimbeste bidar zu ofendidu : era-  
baguiten dot aurreruntzéan vicitzén ondu  
edo obatutea zure laguntasunagaz batera.  
Esquintzen nachatzu guztiau, eta iminten-  
ditut zure escuetan neure gorputza, ne-  
re arimea, neure auquera edo boronda-

tea, neure eguite, neque, asmo eta gurari guztiac, eta azquenic nazan eta al dodan guztiau. Emendic aurrera eguin daiquezu nigaz nai dozuua: nic gura dodana eta escatuten deutsudana dā ceure amodio santua; zure borondatéa beti eguitea, eta neure azquenengo arnasea emon arlean ceure gracia eta adisquidetasunean irau-tea. Gorde ta zaindu eguizu ceure Elessa santua esquiniric daucazun leguez, egunerik egunera batuago eguiuz bere seme, guztioen viotzac, gueroago aurreratuago eguiun gaitean ceruraco bidean eta aberastuago arimaco ondasunetan baue santu baten bidez. Beguiratu eguiuzu erruquiz Aita santu Erromaco, Elessa guzlico buruari, gure Obispo Jaunari, Erregue ta Egreguiñari, bere echecho ta senideai tá arima leial guztiai; baita gomuta zaite garbilecu edo purgatorioco arimacaz, batetx bere araco arima, zuri Altaraco Saramento orretan eta Ama doncella Mariari akeraspen edo devociñorie gueien euqui

eutsuenacaz; baita bere erregututen deutsut pecatari guztiac gaitic. Azquenic neu-re Salbaguilla maitea: gura nitzquez batu neure gogo, eguite, asmo, gurari ta lan guztiac eeure viotz guztiz maitegarriarenacaz; eta onelan baturic esquitzen deutsadaz Aita cerucoari eta eeure icenean escatuten deutsat ceuri deutsan amodiaa gaitic, abegui onagaz beguiratu eta ontzat artu daizala.

---

### ILLAREN LELENGO EGUNERACO.

Asieran egunoro esatecoo erregua. 10.

*Inor egarri bada, betor nigana. Joan.*  
G. 7. V. 37.

**J**aungoicoaren billa ta ondoric zabiltzan arimea: orra emen nun daucazun onera guztien jatorria Jesus Altaraco Sacramen-to Santuan, ceñec diñoan: «Egarri dana betor nigana»; O ce gracia eta doe uga-riac artu dituezan cristinu onac Sacra-

mentu onetaco iturrian, ceñetan Jesus maiteac emoten dituzan doa doaric bere neqne edo pasiñoco irabaci edo merecimiento guztiac, leendie adierazo eban leguez Erregue Igarleac, esan ebanean: «Joango zaree pocic uraren esque Salbaguillearen iturrietara» Ain dempora luzeac igaroten cituzan Jesus sacramentaduaren aurrean Feriaco Condesa Santa Claraco Religiosa edo Monjiac ece, esan oi eutsen Jesus Sacramentaduaren lagun edo esposea. Mirarituri icusten ebenae, itandu eutsen ; cer eguiten eban aimbes-te ordutan Altara aurrean? Eta erantzun eutsen: Pocie eta gogotic egongo nintzateque ni an beticoiraun guztian: « Ez al dago Altara santuan zorionecoen atseguiun eta janaria dan Jaungoicoa berbera? ¡Há! Itanduten deutzazue ; Cer eguingo dogun Altara aurrean Jesus Sacramentaduagaz? Maitetu, alabau, esquerrac emon eta escatu. ; Cer eguiten dau esqueco batec abertzaren aurrean? ; Cer gueisso batec osa-

guillearen aurrean? ¿Cer egarri andia daucan batec, ur garbi eta ederrezzo iturri bat aurquituten dabenean?

¡Oh neure Jesus guztiz maitegarria! ¡Neure arimaco vicitza, icharopen, ondasun, eta amodio bacarra! ¡O eta certzuc igaro cenduzan Sacramentu Jaungoicozeo orretan gugaz guelditutearren! Or jarri ciñanean bacenquian cein esquer charrac izango cenduzan guizonen aldetik, eta celaco lotsabagaqueriac eguingo entsuezan; baña andiagoa zan zure guganako caridade issiotua, gure gaistaqueria baño. Bai, guztia goitu eban ceuzcuzun amodio andiac, eta guizonen amodia irabazteco ceunean gurari larreguiac.

Erdu bada, Jauna, erdu: sartu zaite nire biotzaren barru barruan; guero barriz ichi eguizu atea, eta ez iñoz idigui, eldu ez dedin munduco gauzaren bat, zoretzat bacar bacarric gordeta daucadan amodiaaren puscaren bat ostutera. ¡Ah neure Salbaguilla maitea! Berba eguidazu, ba-

da zain nago entzuteco : aguindu eguida-  
zu nai dozuna ; cerren prest nago guztia  
eguiteco : eta baldin ichico baneu egui-  
baga zuc aguindutaco gauzaric dan chi-  
quienic bere ; edo eguingo baneu zuc era-  
gotziroric, castigau naiquezu erruqui  
baga conturatu naitean, eta artu daidan  
gogo borría zure adisquide laztan beti iza-  
teco. Eguizu ez daidala beste gurariric cu-  
qui, ez beste atseguinic billatu, zure ser-  
vitzari eguiazcoa beti izan, zugaz Alta-  
raco Sacramento santuan sarri ta luzaro  
egon, berba eguin, eta zu comunio san-  
tuan əldodan guztian artutea baño. Beste  
gauzaric nai dabenac, an daiala ; bada nic  
ez dot beste gauzaric maite, ez dot beste  
gauzaric gura, ez dot beste gauzaric esca-  
tulen, zure amadioaren ondasun andia ba-  
ño. Eguizu azlu nadilla neure buruagaz, ez  
naitean beste gauzagaz gomutau zure onta-  
san neurri bagueagaz baño. ¡Ah garrain-  
gueru edo serafín zorionccoac! Ez nau asco  
penetan ez enquiteac zuen izate eregui eta

zuen gloria andia; baiña bai ta ez guichi, ez euquiteac zuec educó, zuec besteco Jaunaren amodiaoa. Eracutsi eguidazue cer eguingo dodan ametaco Jesus Sacramentadua neure gorputz, arima, indar, alequin, centzun eta almen guztiacaz.

*Sarritan esateco erreguchua. Zu bacarric maitetu gura zaitut: bacarric zure servitzaria izan nai dot.*

*Gurarizco comuninoia. Oh neure Jesus laztana. 20.*

### COMUNIÑO GURARIZCO

*arimaco edo espiritualaren ganean eracutsi la arguilasunac.*

**A**ltaraco Sacramentu santuagaz eguiteco imintera goazan berbaldi bacocharen ta guztien azquenean esaten dan leguez eguiteco comuníño gurarizco edo espirituala, ondo izango da adierazotea cer dan eta celaco irabaciae eguiten diran bere bitarlez. Santo Tomas Elessaco eracusla

andiac diñeanez, comuniño gurarizco, ari-maco edo espirituala da euquitea Jesus Sacramentadua artuteco gurari vici bat eta orduanche artu baleu leguez emotea amodiozeo laztan bat.

Adierazoteko cein Jaungoicoaren gogo-coac diran comuniño gurarizcoac eta ceimbat gracia emoten dituzan euren bitartez, Jaunac berac aguertu eutsan bere servitzari Sor Paula Maresca Napolesen Santa Catalina Senaeoaren combentua egun ebanari eracutsi eutsazanean (bere vicitzan iracurten dan leguez) ontzi edo pichar eder bi, bataurrezcoa ta bestea cidarrezcoa, cirauntsala, urezcoan gorde-tan cituzala egiazko comuniñoac eta ci-darrezcoan irudizco, gurarizco edo espi-ritualac.

Baita esan eutsan Juan de la Cruz be-neragarriari, gurariz comulguetan zan bacochean artuten ebala gracia bat, egiaz comulguetan zan graciaren irudicoa. As-co da jaquitea Trentoko Elesbatzar san-

tuac alabetan dabela asco gurarizco co-  
muninoia eta onetara iguituten dituzala  
Cristiñauac. Orregaitic cristinau onac  
sarritan egun oï ditue : len aitatu dogun  
Joana de la Cruz comulguetan zan gura-  
riz egun bacochean berreun bidar. Eta  
Aita Pedro Fabro San Ignacio Loyolacoa-  
ren lelengo lagunac esaten eban, artuteco  
prestaera onagaz Jesucristoren gorputza  
Altaraco Sacramento Santuan, guztiz zala  
neurri ona ta egoquia, eguitea sarri gu-  
rarizco comuninoiac.

Alan bada, nai dabeenac gueitu euren  
viotzeten Jesucristoren amodia, egun  
bear dabe gurarizco comuninoia edolabe-  
re bein visita bacochean, eta beste bat  
meza entzuten dabenean : baita oba litza-  
te eguitea iru bidar, asieran, erdian ta  
azquenean ; cerren oitura au da ascoc us-  
te daben baño mesedegarriago ta erraza-  
goa. Esan oï eban Joana de la Cruz be-  
neragarriiac, gurarizco comuninoia egun  
leiqueala iñoc icusi baga, baruric egon

baga, confesorearen bai, escubide ta aguindu baga eta edocein ordutan, cerren onetaraco ez da besteric bear viztutea baño Jesusen amodioa. Asco da esatea violz guztitic.

### GURARIZCO COMUNIÑOIA.

**O**h neure Jesus laztana! Ondo daquit eta sinistuten dot zagozala Altaraco Sacramentu santu orretan: ametan zaitudaz gauza guztiac baño gueiago: egarriz dago nire arimea, eta gurariz erretan zu neure bularrean artuteco: baña ecin artu ciñaiquedazan ezquiero orain hostia santuan, artu gura zaitudaz neure ariman graciaren bitartez. Erdu aingueruen atseguiña ta nire poz bacarra. Eta orainche artu bacidudaz leguez, laztanduten zaitut eta zugan jarten naz guztiau. ¡Ay Jauna! Ez zaquidaz arren iñoz aldendu; bada gura dot beti zugaz vici, ta azquenie zugaz ill. Alan izan dedilla.

Erreguchua. *Zure amodioaren amodioz illgo naz, nire omodioaren amodioz ill ciñalaco.*

### AMA DONCELLA MARIARI ERREGUA.

**O**nocella orban bagaco eta guztiz garbi María Jaungoicoaren Ama! Zu zara santu guztiac baño andiagoa: zu zara ceure seme Jesusen urengo, pecatarien icharopena, eta justuen poztasuna. Zure bitartez adisquidetuten gara Jaungoicoagaz. ¡Oh erreguina andia! Ezcutau gaizuz zure erruquiaren egoacaz; eta zure servitzari izatea gura dogun ezquiero, artu eta cuqui gaizuz aintzacotzat. Emon egnignzu ceurre escu bedeincatua, eta urreratu gaizuz ceugana, eroan ez gaizan Luciferrec betico su eta garretara. Zure querizpera igues eguiten dogu: eta alan umcac gurasoagan oi dauquen uste ta icharopen osoagaz erregututene deutsugu, bigundu

daguizula ceure escariacaz gure pecatuac gaitic zure semcac daucan aserrea, áztu ez dedin gugaz, eta ichi ez gaizan gueure arerio Luciferren mendeian.

Erreguchua. *Causa nostræ lætitiae,  
ora pro nobis.*

### EGUN GUZTIETARACO

*Ama Donizelleari erregua.*

**O**neure Ama maite Maria Doneella gozoa! Zugana nator gaur pecatari guztien artean errucarrien au, ezaguturic zareala neure salbaguillearen Ama, ceruetaco Erreguiña, eta pecatarien bitarteko, icharopen eta gordetzallea. Adoretan zaitut Erreguiña andia, eta esquerrac emoten deutsudaz, orain artean egun deuztazu-zan mesede guztiac gaitic, batez beré gorde nozulako sarritan, jausi ez nendin Infernura neure pecatuac gaitic bear neban leguez. Ametan zaitut Ama guztiz maitegarria: eta deutsudan amodia gai-

tic erabaguiten dot, izatea beti zure servitzariric leialen bat, eta eguitea al-dodanguztia, irasteco emparauai bere zuganaco eraspen, etsiguitasun, zaletasun eta devociñoa. Zugan, neure Ama laztana, Jesucristoren urengo iminten dot neure betico zoriontasana alcantzau ta jaristeco icharopen guztia: eta Jaungoicoagaz ain escubide andia daucazun ezquiero, emon egnidazu indarra neure arimaco arerioen tentacino guztiac goituteco. Escatuten deutsut Jesucristo neure Jauna ganaco amodiosutsu, gori, galdu ta eguiazco bat, eta icharoten dot zure bitartez neure pecatuen penitencia eguiazco bat eguin. Sacramentu guztiac ondo ondo prestaula artu, eta Jaunaren gracian eta adisquideasunesan neure vicitza amaitutea. ¡O neure Ama Santea! Jaungoicoari deutsuzun amodioagaitic erregututen deutsut, lagundi daidazula beti, baña batez bere ta iñoz baño gueiago neure vicitzearen azquenengo orduan. Ez naiquezu arren

bacarric ichi, sartu artean ceruan alabeta  
taraztua ceugaz batera Jaungoicoaren ontasuna,  
eta gozatutela zure erruquiaren gomuteagaz beticoiraun edo eternidade  
guztian. Alan izan dedilla.

---

### BIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. 10.

*Eta nic emongo dodan ogua da nire araguia munduaren vicitzaraco. Joan. 6. 52.*

**E**leisaco Iracasla santu batec diño: Jesucristo gure Jaunak gura izan ebala guelditu Altaraco Sacramento santuan oguiaren irudi edo antzetan, dalaco ogua batetic guztiz egoquia gure janaritzat, eta bestetic euqui leitequealako gorderic egun batuetan lizundu, urdindu eta galdu baga: onelan ez bacarrie izateco gure janaria comuniñoe santuan: baita bere barritzauriç guichi gora beran zortzi egunerie zortzi egunera, aurquitu guinaiian beti

Jaungoicoaren viejlecu edo sagrarioan, joan guinaitezan beragana gura guenduan guztian, eracusten deuzcula onela, norango eldutenean dan deuzcun amodioa. San Pablo Apostoluac diño : humildu eta beeratu zala Jaungoicoa artu ebanean olsein edo mendeko baten irudia : eta gero esango dogu gue icusiric gure amodioa gaitic arauten dabela egunoro gure altaren gañean oguiaren irudia? San Pedro Alcantarae diño : ez dagoala miñic, adierazo leianic Jesucristo gure Jaunac gracián aurquituten dan edoceimbere arimari deutsan amodioaren anditasuna : eta alan gura izan ebañean arimen lagun edo Esposo guztiz samur onee aldendu mundu onetatic bere Aita cerucoagana, ichi euzcun Sacramento santu au bere gomutagarritzat, aztu ez guinaitezan beragaz, eta Sacramento onec biztu eguijan gugan bere gomutea.

[O neure Jesus laztana! Zagozan ezquero Altara orretan errucarri guztiene escariac entzuteco, entzun eguiuz orain

munduko pecatariric andienaren errenguaç.  
 Banator, bay, zure oñetara ondo garbatuta,  
 ezaguturic cein andia dan zori aserratu  
 eraguiñaz egnin dodan gaistaqueria.  
 Lelengo escatuten deutsudana dá, parcalu  
 daidazuzala neure pecatu guztiac. ¡Ay eta  
 secula ofendidu ez bacindudaz! ¡Arren  
 bāda lenago milla bidar ill banintz zu-  
 gandie pecatuə gaitic aldendu baño! ¿Ce-  
 lan negar eguingo dot nic neure pecatuen  
 neurrian? Baña orain emen zure aurrean,  
 ezaguturic zure ontasun andia, artutēn  
 dot neure pecatu guztien damu eta gorro-  
 to guztiz andi bat, eta urteten dabe nire  
 vioztētic gurari bici batzuc, zu maitetu  
 eta zure aguindupean beti viciteco. Ba-  
 ña baldin zue lagunduten ezpadetzaz  
 ez daucat nic indarrie gurari oneec bete  
 eta eguiatzuteco. Oh Jaungoico andia! Eza-  
 gulu eraguizu ceruan eta mundu guztian,  
 ceure escubidearen anditasuna, eta ceure  
 erruqui neurri baguea: eguizu pecatari  
 andi onegaz ceure maitetzalla andi bat-

Zuc erraz egnin ciñaque; eguizu bada arren neure Jaungoico ona. Emon eguida-zu bear dodana albait gueien zu amelaco: edo beinic bein ofendiduric zaucadazan beste ta guíñoan. Ametan zaitut neure Jesus: ametan zaitut munduko ondasun guztiac baño gueiago, neure bicitza baño gueiago, neure Jaungoicoa, neure amo-dioa, eta onera guztiac.

Erreguchua. *Neure Jaungoicoa, neure amodia eta neure onera guztiac.*

*Orain Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONTZELLA MARIARI.

**O**h, Maria munduko Erreguña eta gure Ama maite, Andra guztien artean bedeincatua! Zu zara pecatarien bitartecoric altsuena Jesueristoren urrengo, ceindan bere Aitaganaco bitartecoric nagusiena. Zu zara Jaungoicoagan, munduko ichaso onetan ondatu aguiñeán dabiltzazanen cai edo portu segurua. Zu zara munduaren

poztasuna; catigüen erosi saria: gueissoen osasuna: naibaguctuen gozotasuna: eta Adanen seme alaba guztien gordeleku ta iguestoquia ; Oh graciaz betea ! Arguitu eguizu nire adiña eta ascatu nire miñña cantetáco zure alabantzac, batez bere araco Ainguerauc esan eutsun Ave Maria, zuretzat ain egoqui ta adjutua. Adoretan zaitut, ó mundu guztico baque, osasun ta poza. Adoretan zaitut atseguiñen berarizco lecua, gracién jatorria, Jaungoico eta guizonen arteko baque guillea.

Erreguchua. *Refugium peccatorum,  
miserere mei.*

*Egun guztietaraco Ama Doncella Ma-  
riari erregua.* p. 22.

---

### IRUGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. 40.

*Nire atseguiñac dira egotea guizonen se-  
meacaz.* Prov. 8. 31.

**E**z zan aspertu gure Jesus ona, galdu teaz bere vicitza curutzean josiric gure amo-

dioa gaitic, ezpada gura izan eban guero bere gugaz guelditu Altaraco Sacramen-  
tu guztiz Santuan, adierazoten euzenla  
onelan, guizonen artean eucazala bere  
atseguiñac. ¡Oh guizonac! diño deadar-  
rez Santa Teresac; Celan daucazue bio-  
tzic ofendietaco araco Jaungoico, ao be-  
tean dirautsuena ceuen artean daucazala  
bere atseguiñac? Jesusec daucaz bere  
atseguiñac gugaz egotean; eta ¿ez ditugu  
guc euquico beragaz egotean? Guc, diñot  
barriro, egun deuzcunoc mesede ain an-  
dia cein dan beragaz bere jaureguian vici  
izatea? ;Cé pocic egon oi diran munduko  
Erregue batec bere jaureguian vicilecua  
emon deutsenac! Orra bada emen nun  
daucagun Erregue guztien Erreguearen  
jauregia: ausse dá Jesueristogaz vici ga-  
rean echea. Izan gaquiozan báda esquer  
onecoac, eta berba egun daiogun amodio  
ta uste beteagaz. Emen naucazu neure  
Jaungoico ta neure Salbaguillea. Emen  
naucazu Altara onen aurrean, nun zago-

zan gau ta egun niri deuztazun amodioa gaitie. Zu zara onera guztien jatorria: zu zara gach guztien osaguillea; zu zara ezeuqui, esqueco edo pobreen diruemollea. Emen daucazu bada orain auspazturiac ceure oñetan pecatari bat, beste guztiac baño premiñaz beteagoa ta gueissoagoa. Parca esque nagotzu: erruquitu zaite arren nigaz. Andi eta esquergaac dirá nire arimaco zauriac, baña alambere ez dot galdu gura zuganaco icharopena, ieusiric jatsiten zareala egunoro lurrera nire onraco Sacramentu santu orretan. Nic adoretan zaitut, alabetan zaitut eta gura baldin badozu ecer escatu daguijudan aussse escaluten deutsut, entzun naizu Jauna. Nic gura dot neure vicitza guztian eguin ditudan pecatuen parcaciñoe oso osoa; ez iñoz secula gueiago pecaturie ez andiric ez chiquiric eguiteco gracia ugari ta era-guilla bat; eta zu neure indar ta aleguin guztiagaz ametaco laguntasuna. Jauna: nic maite zaitut neure arima guztitic: eguizu

ez daidala esan au ao utsez, ezpada, viotz  
viotzetic: eguizu alan izan dedilla mun-  
duco erbeste onetan vici nazan artean eta  
guero beti iraun edo eternidade guztian.  
Eroan naguizu zuganuntz dandarraz edo  
arrastaca baño ezpada bere, baldin ho-  
rondatez billatuten ez bazaitut. Ez dot  
bici gura munduan zù maitetuteco baño.  
Quendu naizu bereala-lurraren gañetie zù  
ofendietaco izango banaz. Ceruco Ama  
Santea, neure iceneco santua, Aingueru  
jaolea ta zorioneco guztiak: lagundi egui-  
dazue ametan neure Jaungoico guztiz  
maitegarria.

Erreguchua. *Artzain ona ! Vicitza-*  
*co ogni eguiazcoa ! Erruquitu zaite ni-*  
*gaz.*

*Orain Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

#### AMA DONCELLA MARIARI.

**O**h Ceru eta lurraren arteco baque izar-  
ra ! Zu zarean ezquero Jaungoicoa gandie

artuten dodan atseguiñic andiena: zu zarean ezquero nire miñ, ala, oñaz edo dolore eta gachen gozagarria: zu zarean ezquero nire arimaco arguia aurquitutenean illuntasunez inguraturic: neure zuzentzallea neure bide eta ibilleretan; sendotasuna neure argaltasunetan; ondasunac neure ezeuqui la premiñetan; atseden lecuba neure naigabetan; entzun naguizu eta emon eguidazu escatuteneutsudan guztia. Erruquitu zaite nigaz, erbeste onetan vici gareanoc aimbeste mai-te dituzun Jaungoicoaren ama leguez. Lagundi eguidazu neure premiña guztietañ, ó viotz bigun, ó erruquior, ó Maria doucella gozoa.

Erreguchua. ¡O viotz bigun, ó erruquior, ó Maria doucella gozoa!

*Egun guztiataraco Ama Doncelleari.*

pag. 22.

## LAUGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco errengua. p. 10.

*Beragaz berbetan jarduteac ez dauca  
mingoztasunic, ez igúinic beragaz artue-  
mona euquileac.* Sap. 8. 6.

**A**disquide diranac ain atseguin andia ar-  
tu oi dabe alcar icusi, alcarregaz egon,  
eta alcarregaz berbetan jardutean ece,  
sarritan asteac egun, eta egunac ordu  
biurtutene jaquez. Baldin aspertuten ba-  
gara Jesus Sacramentaduagaz egotetz, ez  
da beste gauza gaitic ezpada ametan ez  
dogulaco, bere adisquide ez gareala-  
co. Santuac euren atseden lecua eben  
Altaraco Sacramentu Santua. Santa Te-  
resac esan eutsan cerutic bere erligi-  
ñoeco Monja bati: guc ceruan gagozanoc,  
eta zucc lurrean vici zareenoc izan bear  
guenduque hardiñac garbitasun eta amo-  
dioan; gu gozatuaz, eta zuec necatuaz; eta  
guc ceruan Jaungoicoagaz eguiten doguna  
berbera, eguin bear cenduque zuec lur-  
rean Altaraco Sacramentu Santuagaz.

¡Oh bildots orban bagaco, gugaitic curutzean illa! Gomuta zaite ni nazala aimbeste nequeren bitarlez erosirico arima bat. Orain bada, zarean guztiori emon zachatazan ezquero eta egunoro nire ondo naiagaitic Altaren gañean esquinī ta sacrificuetan zarcan ezquero, eguizu izan zaiteala guztiori nirea, eta ni guztiau izan naiteala zurea, iñoz aldendu ecingo nazan moduan. Ni emoten nachatzu guztiau zuri, eguiñ daizun nigaz gura dozun guzia. Emoten deutsut neure borondatea, estu, lotu eta catigatu eguizu ceure amodiozco locarriacaz izan dedin beti zure borondate guztiz santearen mempeco ta servitzari cintzo ta leiala. Quendu ta urrindu eguizu nigandic zure gogoco ez dan guzia. Emon eguidazu indarra, ez euquiteco beste gomutaric zure aguindu santuac gordetea baño; ez bëste gurariric zure borondate eta naia beti eguitea baño. Ametan zaitut neure biotz guztitic, ó neure Salbaguilla guztiz maitegarria, ceuc alan gura dozu-

Iao: ametan zaitut zarealaco neurri ez mugabagaco amodioaren duin. Damu dot orain artean ez zaitudazalaco mailetu bear neban beste, ill nai neuque zure amodioa gaitic. Artu egiztu Jauna ontzat nire gurari au, eta emon eguidazu ceurre amodioa.

Erreguchua. *O Jaungoico guzliz altsua! Santu eguin nagizu.*

*Gurarizco Comuniñoia. 20.*

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O**h egun sentico izar arguia! Arguitu nagizu erbeste onetaco gau illunean. Neure gordetzallea: eguin nagizu ceruan daucazun zoriontasunaren duin eta partill. Bai neure erreguiña, neure vicitza, neure bitartecca, neure poza, neure sendotasuna, neure jaolea, neure gordetzallea, eta neure icharopena: egiztu jarraitu daizudala beti ceruco bidetic, alderic eguin baga ez ezquerretara ez ezcumatara. On-

do daquizu izanic zu Jaungoicoaren ama,  
jaretzi daiquedazulu gracia ain ugari eta  
eraguilla bat, ceñec eroango naben gura  
ta gura ez leguez gauza onceetara. Egui-  
dazu arren mesede au erruquiaren Ama.  
¡O María! Zu zara bitarteko guztiz andia  
pecatariac salbetaco: eta artu eguizu lan  
au ceure contura, zarealaco eguiazco vi-  
citzearen ama.

Erreguchua. *Neure ama, neure icha-  
ropena, eguizu izan nadilla guztiau  
Jesusena.*

*Egun guztiatarako Ama Doncelleari.*  
p. 22.

---

### BOSTGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 40  
*Choriauc arquitu eban beretzat echea:  
ela usoac abijia iminteco bere umeac.  
Zure altaraac, escubideen Jauna neu-  
re Erreguea ta neure Jaungoicoa.*

Ps. 83 V. 4.

**A**h neure Jaungoicoa, neure Erreguea,

eta neure Jauna. Arren bada nire gorputzeco centzun eta nire ərimaco almen guztiac miin biurtuko aldira, alabau eta bedeincatuteco zure ontasunaren asmo ain onguillac Sacramento Jaungoicozco onetan, nun zagozan beti prest eta zain entzun eta gozatuteco zure servitzari donga eta esquercharreco au. Esan bear deutsut Jauna larregui maitetuten dituzula guizonac: bada sacramentu orretan emon deutsezu, emon al ciñaien guzia eurac maitetu cinaiezan. ¡Ah neure Jesus guztiz maitegarria! Emon egniguzu amodio andi bat, amodio sendo bat, maitetu zaiguzan; bada ez dirudi ondo, maitetutia amodio epel bategaz, ain bero eta goriagaz ametan gaituzan Jaungoicoa. Eróan gaizuz ceugana ceure amodiozeo soca gozoacaz. ¡O Jaungoicoaren ontasun neurri baguea! Zuc ain maite izan guiznac, ain errai bigunac erácutzi guizonai maitetu cinaiezan, eta alambere ain guichi dirá viotzetic eta gógotic maite

zaituenac! ¡Oh Adanen semeen esquerbaguetasun arrigarria! Baña, ay Jauna, neu bere zorigaistoan izan naz nosbait oneen arteco bat; baña ce guichi izango nazan aurreruntzean! Maitetuco zaitut aldodan guzlia, eta ez dot beste munduko gauzaric maite izango zu baño. Zuc alan aguin-tzen deuscuzu, zuri au ta gueiago zor jatzu, eta nic ɔnetan bete gura dot zure aguindua. ¡Oh neure arimaco Jaungoicoa! Eguizu izan nadilla beti zure gogocoa, eta ez nadilla iñoz aldendu zure aguindu santuetatic. Alan icharoten dot eta escatuten deutsut zure neque edo pasiñoeco merecimentuac gaitic. Emon eguiozuz mundo ondasunac gura dituzanari, nic gura dodana, eta nic billatuten doda-na ez da besteric, zure amodio santuaren ondasun andia baño. Ametan zaitut neure Jesus, ontasun amai baguea. Zu zara nire ondasun guztia, nire alseguin guztia, nire amodio guztia.

Erreguchua. *Neure Jesus, nic ametan*

*zaitudaz eta ez dot amau gura zu baño  
besteric.*

*Gurarizeo Comuniñoia. p. 20.*

## AMA DONCELLA MARIARI.

**O**mundo Erreguiña! Gu aguertuco gara egunen baten Jesucristoren aurrean aimbeste pecatu eguin ezquiero. ¡Noc bigunduco dau? Ez dago obato daiqueanic zu baño, oh emacume altsua: bada zuc maite gaituzuz guztiz asco, eta Jesusec maite zaitu guztiz asco. Idigui eguiuzz bada ceure biotzeco belarriac gure erre-gu eta cizpuruetara, ó erruquiaren Ama. Guc icharoten dogu zure bitartecotasun altsuan. Baquetu eguizu ceure semearen aserreca, eta biurtu gaizuz bere adisquidetasunera: zuc ez deutsazu gorrotoric pecatariari danic andiena izan arren: ez dozu ceugandic botaten, baldin zugana badator, eta escatuten badeutsu laguntasuna. Zuc ceure escu onguillacaz emoten

deutsazu icharopena iñundic erruquiric, ez abegui onic aurquitu ecin dabenari bere: zuc sendatuten dozu, eta gueitu bere uste, icharopen edo esperantzea, eta ez dentsazu ichiten adisquidetu artean bere auci epalleagaz.

Erreguchua. *Mater amabilis, ora pro me.*

*Egun guztietaraco Ama Dontzelleari,* p. 22.

---

### SEIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco errengua, 10.

*Bacochac daucaz imiñiric bere gogo ta  
biotza, bere tesorua edo gueien maite da-  
ben gaucea dagoan lecuan.* Luc. 12. 34.

**J**esu Cristo gure Jaunac diño: Bacochac daucaz imiñiric bere gogo eta biotza gueien maite daben gauzan. Orregaitic Santu eta Cristiñau onac ez daben leguez

beste gauzaric ain maite ceinda Jesucristo, euren gogo ta viotz guztiac dauquez imiñiric Jesusegan Altaraco Sacramento Santuan. ¡Neure Salbaguilla guztiz maitegarria. ¡Niri deuzlazun amodioa gaitic gau ta egun Sacramento Santa orretan zagozana! Issiotu eguizu nire vietza ez daguian maitetu beste gauzarie zu baño, ez deitean gomutau beste gauzagaz zugaz baño, ez deian billatu beste oneraric zu baño: eguidazu arren mesede azure bicitza eta pasiñoco irabaciac gaiti. ¡Ha neure Salbaguilla sacramentadua! ¡Cé miragarriac diran zure amodiozeo asmoac, arimen amodioa cenganatuteco! ¡O Jaungoico guizon egniña! Ez zan aspertu zure amodio ta caridade goria, gugaiti guizon eguin eta vicitza emonagaz, gura izan cenduan onezaz gañera guelditu saramento orretan guri lagun eguiteco, iza-teco gure janaria eta betico gloriaren icharopena. Zu aguertu ciñan gure artean bein ume baten irudian asca baten, guero

necazari baten irudian ceure Aita usteko San Joseren arotziaco dendan edo lantegian: gueroago gaisto baten irudian curutze baten eseguiric, eta azquenic agertutenean zachacuz egunoro gure Altara gañean oguiaren irudian. Esan eguidazu Jauna jcer guciago asmau eta eguin ciñaien guizonac ceu maitetutera eracarteco? ¡Oh ontasan amai baguea! ¡Noz asico naz erantzuten bear neuquean bestean zurre niganaco amodioari? ¡Ah Jaunal ez dot vici gura zu maitetuteco ezpada! ¡Cetaraco dot vicitza ez igaroenean maitetuteneur Salbaguilla, berea guztia igaro ebana ni maitetutenean? Eta jcer beste gauzaric maitetu daiquet mundu onetan zu ezpada, izanic zarean ori guzliz ederra, guztiz laña, guztic ona eta guzliz maitegarria? Vici bedi nire arimea bacarric zu ametaco: goritu, galdatu eta quiscaldu bedi zure amodioan gomutauaz beste baga zure niganaco amodioa: eta entzun orduco asquea, curutzea edo Altaraco Sacra-

mentu Santua, viztu bedi nire biotza, zure amodioz gauza andiac eguiteco gurari vi-cietan ! O neure Jesus! Cein andiac diran nigaitic eguin eta igaro dituzun gauzac.!

Erreguchua. *I guizu, Jauna, ill nadi-lla ni guztiraco eta ez daguidala maite-tu zu bacarric baño.*

*Gurarizko Comuninoia.*, p. 20,

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Jaungoicoaren Ama andia ! Zu zara araco emacumea ceñegan aurquitu eban atseguiña salbaguilleac, eta ceñi emon eutsazan bere ondasun guztiac ecer bere ucatu baga. Orregaitic mundu guztiac da-zau zure sabel garbia Jaungoicoaren ego-lecu eta Elessatzat, bertan euqui ebalaco asierea mundoer salbacíñoiac, eta an eguin zalaco Jaungoicoagaz guizonaren arteco baque eta adisquidetasuna. Zú, o Erreguiña andia, zu zara araco ortu zar-ratua, ceñetan ez zan iñoz sartu lurreco

escuric zure garbitasuna loituteco. Zu zara araco jardin ederra, ceñetan imini cituzan Jaungoicoac Elessa santea edertuten daben lora guztiac, eta euren artean ceure humiltasuneco violetachua, ceure garbitasuneco azuzenea, eta ceure carida-deco larrosea. ¿Nogaz bardinduko zaitugu, ó gracia eta adertasunaren ama? Zu zara Jaungoicoaren atseden lecua: zugandic urten eban araco nr bieien iturri, mundu guztia gozatu eta guirotuten dabenae: elaeo onerac ez ete deutsazuz jari-chi munduari mereciduagaz izatea araco odi edo urbide zorionecoa, ceñetatic ja-torczan gracia mueta guztiac!

Erreguchua. *Maria, neure ama, izan zaite nire bitartecoa.*

*Egun guzlietaraco Ama doncella Mariari esateco erregua.* p. 22

## ZAZPIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua p. 10.

*Beguire, zuecaz nagoalarni egun guztietan munduaren amairaguiño.*

Math. 28. 20.

**O**naco artzain maitezalla, gu bere ardioc gaitic vicitza emon eban onec, ez eban aldendu nai izan gugandie, ez da ill ezquero bere. Emen nago neure ardi maiteac, dirauzcu, emen nago beti zuecaz. Zuecgaitic guelditu gura izan ncban lurrean Sacramentu onetan, emen aurquituko nozue nai dozuen guztian zuei lagundu eta zuec gozatuteco, ez zaituet ichico mundua mundu dan artean. Diño San Pedro Alcantarae, arimen lagun edo esposo maite onec ichi gurarie bere espresa laz tanari laguntasunen bat guelditu ez ceitan bacarriric erbeste luce onetan, asmau eta fundau ebala Sacramentu adoragarri au, nun guelditzen zan berbera cein dan ichi al cuzquion lagunic onena.

¡Ah neure Jesus eta neure Salbaguilla  
guztiz maitegarria! Banatortsu orain Al-  
tara onelan zugaz egon ta zuri berba  
eguitera, baña zuc emoten deuzlazu onen  
sari ugaria zatozanean nire arimara comu-  
niñoe santuan nirea baño amodio neurri  
baga andiagoagaz. Orduan ez bacarric  
ichiten deuzlazu icusten, baita bere egui-  
ten zara nire janari, batu eta nastetan za-  
ra nigaz, eta alcartutengara eguiaz esan  
daiquezudala: orain neure Jesus ona, guz-  
tiori zara neurea. Jauna: jarriric zu za-  
reanori nigan, celan arteric artu neique  
nic jarri baga nazan guztian zure escue-  
tan? ¡O amodiozeo Jaungoicoa! ¡O neure  
arimaeo amodioa! ¿Noz izango ete naz  
gutzian ceurea, ez bacarric berbetan, bai-  
ta bere gogo, gurari, asmo, esate ta egui-  
teetan? Zuc egunin cinaique au: eguidazu  
bada arren, Jauna, mesede au ceure erio-  
tza eta pasinoeco merecimentuac gaitic;  
gueitu egnizu nigan ceure amodioa, eta  
eguizu izan nadilla guztian ceurea gaurtic

azquenengo arnasaraguiño. Zue, Jauna, entzuten dituzu guztien escariac: entzun eguziz bada orain, benetan maitetu gura zaituan arima baten erréguac. Bai : maitetu gura zaitut neure indar guztiacaz, eta eguin nai dot zue aguinduten deuztazun guztia: baña sari baga, aloguer baga, irabaci baga, atseguiñen icharopen baga : bacar bacarric zure biotz ain onguilla, aimbeste mesede eguin deuztlanac alan gura dabelaco. Nire saria izan bedi zu ametea neure biotz eta arima guztiagaz mundu onetan eta guero zure arpeguiia icusi eta zugaz beli egotea cernan. ¡O Aita cerucoaren Seme maitea! Artu egizu nire borondatea, nire ondasun guztiaz, nazan guztiau, eta emon zaquidaz arren niri. Nic amelan zaitut, nic billatzen zaitut eta gogaituric, artega eta amorraturic nago zu aurquitu artean. Zu bacarric maite zaitut, zu bacarric maite zaitut, zu bacarric maite zaitut.

*Erreguchua. O neure Jesus! Noz eldu-*

*co da zugaz batuco nazan une ta dem-porea?*

*Gurarizco Comuninoia pag. 20.*

### AMA DONTZELLA MARIARI.

**O** Eva garbial Zugaz diardu berbetan Espiritu Santuac diñoanean ¡Nor dà onaco aguertutene dan au ègun sentico izar, gue-roago gorago igoten daberen guisan, ederra illargua leguez, eta autua eguzquia leguez? Zu etorri ciñan mundura ègun sentico izar arguitsua leguez, prestau eta adierazoten cenduala zacentasun edo justiciako eguzquiaren etorrerea ceure santidadearen arguiagaz. ¡O za munduan aguertu ciñan ègunaren dontsua! ¡O eta ce egoqui deitu leion gracia eta salva-ciñocoen eguna! Galanta zara illargua leguez, cerren ez baldin badago ceruan eguzquiaren antz andiagoa daucan izarrie illargua baño; alan ez dago munduan ez ceruan Jaungoicocaren antz andiagoa dau-

can guizon, ainguero, ez serafinic, zu baño. Illarguiac argui eguiten dan gabaz, eguzquiac emoten deutsan arguiagaz, eta zue argui eguiten deuzcuzai gueure illuntasuneco gabetan, ceure virtueen arguitasunagaz. Baña ederragoa zara zu oraindie illarguiia baño, bada ez dago zngan orefnic ez orbanic, ez da querizaric bere. Zu zara autua eguzquia leguez, au da, zara gueure beguiacaz icusten dogun eguzquia eguin eban, eguzqui Jaungoicozcoaren jarraitzalla cintzoa. Bera izan zan autua guizon guztien artean, eta zu emacume guztien artean.

Erreguchua. *Maria Jaungoicoaren ama, erregutu eguzozu Jesusi nigaitic.*

*Egun guztieta raco Ama doncella Mariari erregua.* p. 22.

## ZORTZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. 10.

*Jagui zaite eta ibilli zaite arin, neure maitea, neure ederra eta erdu.* Cant. 245.

**A**ltaraco Saeramento Santuan Jesus visitetan daben edoceimbere arimari dirautsaz Jaun onec beste dempora baten liburu santuetako lagun edo esposeari esan eutsazan berba oneee: *Jagui zaitez eta zabiltz arin, neure maitea, neure ederra eta erdu.* Visitetara etorri zachatazan ari-meia: jagui zaitez ceure argaltasun eta naibagueetatic, bada emen naucazu zu sendatu, gozatu eta aberastutco neure graciacaz. Zabiltz arin, eldu zaquidaz neugana, ez zaitez nire anditasunaren bildurizan, dagoalaco beeratu eta humildurie Sacramentu santu onetan, quenduteco zinc bestelán euquico cenduquean bildurra, eta emoteco zuri aguinte, icharopen eta ustebetea. Neure adisquidea: ez zara

onczquero nire arerioa, neure gogoco eta adisquidea baño, eta ceue maite nozulaco, neuc bere maite zaitut. Neure ederra, nire graciac edertu zaitu. Erdi ona, laztandu gaitean alcar; escatu eguidazu nai dozuna, bada ez deutsut ecerchubere ucatuco. Esan oi eban Santa Teresac, ceruetaco Erregue andi au egoala Sacramentu santu onetan oguiaren irudian, czcutetearren bere anditasuna, eldu guinaitezan bildurraren apurric eta izpiric baga bere biotz Jaungoicozcora.

Goazan bada Jesus maiteagana uste oso eta poz andi bategaz; batu gaitean bera-gaz, eta escatu daioguzan mesede ta gracia asco. ¡Oh Jaungoicoaren seme gu gaitic guizon eguiña, eta gure amodioa-gaitic Sacramentu orretan zagozana! ¡Celaicoac izan bear ez dau orain nire atseguiñac, jaquiñic nagoala zure aurrean, eta zu zareala nire arimea aimbeste maite dozun Jaungoico, anditasun eta ontasunean neurribaguea? Jaungoicoa maite

dozuen arimae nundai aurquilituten zareela, nai ceruan nai lurrean; maitetu egui-zue guztiz asco nire ordez bere. Ama ceruкоа: lagundi eguidazu maitetulen neure Jaungoicoa. Eta zu, neure Jaun guztiz maitea; zu izango zara gaurtic aur-rera nire amodio guztiaren jaubea. Artu eguizu oso osoric nire borondate guztia, euqui eguizu ceureagaz lotu eta catigaturie: zuri emoten deutsut neure adiña, ez deitean iñoz beste munduko gauzagaz go-mutau zure ontasunagaz baño. Zure mendean ichiten dot neure gorputza, lagundi daguidan onec bere zure aguinduac betetan. Esquintzen deutsut neure arimae, izan dedin guztia zurea. Nai neuque, ó neure Jaun maitea, Adanen Seime alaba guztiac czagutuco balebe cein andia dan deutsezun amodioa, vici deitezan bacarric zu onrau eta zure borondate santua beti eguiten, zuc gura dozun eta gure zor deutsugun leguez. Beñic bein nic vici gura dot beti, nai ascopai guichi vici naiteala,

zure ontasun neurri-baguearen amodioan issioturic: gaur erabaguiten dot eguitea beti zure borondatea, eta ez ichitea eguin baga zuc nai dozun gauzarie, nai ta igaro bear banitu bere onetaraco asmau al beste naigabe ta neque; nai ta galdu bear banitu bere neure ondasunac, osasuna, eta vicitzarañoco guztia. Zorionecoa izango nintzateque guztia galduco baneu, zugaz neure Jaungoicoa, neure ondasunac, neure amodioa, eta neure onera guztiac, zugaz beti egon eta beti aguaintau, ta viciarren.

Erreguchua. *O neure Jesus ona! neure amodioa, neure ondasunac, neure oneraaac: egon zaite beti nigaz.*

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O**h Maria guztiz gozo, eztitsu eta zarean ori beti maitegarria! Ecin aitatu leite zure icena issiotu baga viotza zure amodioan. Ez dira beinbere gomutetan

zugaz, violzetic maite zaituenac, gueitu baga zu ametaco gurariac. ¡O ceruetaco Erreguiña altsua! Sendatu eguizu gure argaltasuna eta eguizu ceure escubide andiagaz, izan gaiteala zeure maitetzalla cintzoac. ¿Noc erregutu leio gugaitic Jesucristo gure Jaunari zuc baño obeto, equiric ainurrean, eta izanic bere adisquide ain andia? Berba eguiuzu gure alde, bada guztia entzun eta autortuten deutsu ceure semeac, eta jarichico deuzezu bear dogun guztia.

Erreguchua. *O neure ama, eguizu eu. qui zaidazala beti zu neure gogoan.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua. 22.*

---

### BEDERATZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. 10.  
*Bularrac loturic urrezco sereni edo cinta bategaz.* Apoc. 1. 13.

**S**an Joan Evangelisteac diño Apocalip-

sis-ean, icusi ebala salbaguillea bularrac loturic urezco cinta bategaz. Eguiaz alanche aguertuten jacu Jesus gure Jauna Altaraco Sacramento Santuan bere semeen billa dabilen ama samur baten guisan, emoteco janari ta sendagarritzat bere bularretaco ezne edo ugatza, au da, bere samurtasun amarena la-coac Sacramento onetan opa deuzcuzan gracieng ugaritasuna. Orra emen Isaiasen aoz esquinirico gozotasuna: *Izango zare eroanac bularretara,* (66. 42.)

Aita Alvarez Veneragariac icusi eban Jesus Altaraco Sacramento Santuan, bere escuac doe, gracia ta ondasunez beteric cituzala, emon gurarie norbaiti, eta aurquitu ecinie nori emon. Santa Catalina Senacoa comulguetan zan bacochean, joan oi zan Altarara, umechu bat bere Amaren bular eta ugatza artutera joan oi dan pozagaz.

**¡O Aita betikoaren seme bacar guztiz maitea! Badazaut zu zareala munduan eta**

ceruan aurquitu al neiquean gauzaric  
gueien maitetu bear dodana, eta beragai-  
tic gura zaitut maitetu, bear zaitudazan  
añan edo guichienez arima batec maitetu  
al zaiquean beste eta edu. Ezagututen dot  
ez nazala duin zu ametaco, ez zure aur-  
rean egoteco, orain Elessa onetan leguez,  
ez deutsadalaco erantzun bear neuquean  
moduan zure amodioari, baña nic daquit  
ceuc escatuten dozula nire amodioa. Dan-  
tzut diraustazula. «Neure semea: ecatzu  
ceure viotza, maitetuco dozu ceure Jaun  
eta Jaungoicoa ceure biotz guztitic.» Orain  
artean gorde baldin badeuztazu vicitza  
eta ez banozu bota infernura neure pe-  
catuac gaitic bear ninduzun leguez, ez  
edo dà izan beste gauza gaitic, ezpada  
ezaguturic onetan euqui dodan esquer  
charra, biurtu nāitean nosbait guztiau  
ceugana. Ez bada Jauna: nic maitetutea  
nai dōzun ezquero, uste dot beteco do-  
dala onetan zure guraria. Emen naucazu  
neure Jaungoicoa: zuri emoten nachatzu

guztiau, zure mende eta aguinduan jar-  
ten naz danau. Zu bacarric artuten zaitut  
neure viotzeco Erregue eta Jaungoicotzat:  
zuc escatzen deuztazu neure biotza, eta  
nic emoten dentsut: ona nun daucazun:  
otza eta gogorra dá, baña zuc artzen bal-  
din badeutzazu, berotu eta bigunduco  
dezu. Eroan naizu Jauna ceugana esquer  
gueistoco au, tatarraz edo arrastaca edo-  
labere, borondatez cz baldin banator. Ez  
dot vici bere nai, vicienean orain artean  
leguez zugaz ain azturic, eta zuri ain  
amodio guichi dentsudala, bada zure on-  
tasun neurri bagueari zor jaco amodio  
neurri bagaco bat. Eguizu gaurtic aurre-  
ra aimbeste maitetu zaidazala, cein da  
moduren baten osotu eta quitau daidala  
orain arteco amodioric eza, edo beintzat  
laburra.

Erreguchua. *O amodiozko Jaungoicoa!*  
*Nic gura zaitut amau, eta ez vici ezpa-*  
*da zure amodioz.*

*Gurarizco Comuninoia pag. 20.*

## AMA DONCELLA MARIARI.

**A**doretan zaitut ó pecatarien bitarteko andia. Zu zara Jesucristoren urrengo, Cristinauen icharopena. Entzun eguiuz gogoz nire erreguac, bada maite zaitut viotzetic, honrau nai zaitut berarizco aleguinaz, eta Jaungoicoaz ostean, zugandie icharoten dot neure betico zoriontasuna. Zuc Jaungoicoaren urrengo emoten deuztazu vicitzea. Zure laguntasunaz uste dot Jesucristogaz adisquidetutca. Erreguteten deutsut lagundu daidazula pecatutic urteten. Aldendu eguiuz nire adiñeco illuntasunac. Lagundu eguidazu goituten neure arimaco arerioen malmuzqueria eta esetsiac. Atera eguiuz neugaz batera nire biotzeco gurari bide bagacoac, eta zucendu eguizu nire vicitza betico zoriontasunera. Alan izan dedilla.

Erreguchua. *O doncella santea, gure icharopena! Erregutu eguizu gu pecata-rioc gaitic.*

*Egun guztiatarako Ama doncella Mariari errequa.* p. 22.

### AMARGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco errequa. p. 10.

*Baque ta alcartasunean lo eguingo dot,  
eta atsedengo dot.* Ps. 4. 9.

**O**mundutar centzun bagaac: diño San Agustinec, ¿Nora zoaze ceñen biotzac bete eta asetutera? Erdue Jesus gana, bada beronec bacarric emon daiquezue nai cenduqueen gozotasun ta atseguina. Neure arimea: ez zaitez arren izan zu ero eta centzun bagaco onen artecoa: ez eguizu beste gauzaric billatu Jaungoicoa baño: billatu eguizu onera bat, guztiac beragan daucazana, dirautsu San Agustinec: eta aurquitu gura badozu erraz eta laster, emenche daucazu ceure ondoan. Esan eguiozu nai dozuna; bada Altaraco Jaungoico lecu edo Sagrario orretan dago zu

gozatu, zuri entzun, eta escatuten deutsazuna emoteco. Santa Teresac esan oieban, nai eban guztiac, sarritan ecin izaten ebala berba eguin lurreco Erregueacaz, eta batzucaleguinguztiacaz bere ecin besterie jarichi oiebel, besteren baten bitartez euren escabideac adierazotea banio: baña nai dagunean berba eguin zugaz, ó Jesus Sacramentadua ta ceruco Erregue andia, ez dogu cetan bitartecoric billatu, beti zagozalaco guertu eta prestauric gure erregu ta escariac entzuteco. Lurreco Erregueac egun eta ordu icentauriac dauguez euracaz berba eguiteco; eta orregaitic ecin dabe guztiac, eta al dabenac bere, ez nai leuqueen beste; baña zugaz berba eguiteco, ó gure arimetaco Erreguea, ez daucagu ordu ez egun icentauric, bada egunaren ogueta lauretatic edoceinetan eguin daiquegu, nai gabaz nai egunaz, nai gossean nai arratsaldean, eta gueuc nai dogun beste dempora eta edocein egunetan.

¡O amodiozco Sacramentua, ceñtan  
emon oi zachacuzan comuniñoc santuaren  
bitartez, eta onezaz ostean beti zaucagu-  
zan Altara orretan gure erreguac entzu-  
teco! Eracarri eguiuz z euganuniz amo-  
diozco soca, cate eta locarri gozoacaz  
araco viotz, zure ontasun neurribaguea-  
ren gomuteagaz zoraturic, ez dauqueenac  
beste gogo ta asmoric zure borondate  
santua beti eguitea baño: baita bere ceu-  
ganatu eguizu nire biotz erquin ciz trin  
ta errucarri au, zu maitetu eta zure aguin-  
du pean beti vici gura daben au. Gaurtic  
aurrera ez dot jaramonic eguingo, ez lur-  
reco ondasunac gaitic, ez osasuna gaitic,  
ez munduco beste gauzagaitic: neure ari-  
ma ta gorputza osoro iminten ditut zure  
ontasun amai baguearen escuetan: onez-  
quero eguin daiquezu nigaz gura dozun  
guztia: ez dot bein bere chitic ez murtic  
ateraco nigaz eguiten dozun gauza gaitic,  
ondo daquidalaco, diranac urtetan dabela  
nire oneraco, zure biotz, ain maitegarri-

tie: zuc guradozuna berbera gura dot nic  
bere orain, guero ta beti. Nazan guzliau  
gueldituten naz zure borondateagaz batu-  
ric, cerren daquidan dala guztia ona, guz-  
tia santua, guztia ederra, ta guztia mai-  
tegarria. ¡O neuro Jaungoicoaren boron-  
date santua, cein maite zaitudazan! Gura  
neuque beti vici, eta ill zugaz batu, josi  
eta laztanduric. Zure naia da nirea bere:  
zure asmo eta gurariac nireac. Lagun  
zaquidaz arren neure Jaungoico laztana.  
Emon eguidazu indarra bici naitean emen-  
die aurrera zuretzat bacar bacarric; ez  
bestetaraco, ezzpadamaitetuteco zure onta-  
sun amaibaguea. Arren bada ill eta urtu-  
co al naz zure amodioz, zu nigaitic ill  
ciñan leguez. Madaricatuac zu maitetu  
baga igaro ditudan egun eta urteac ez bi-  
tez cembatu eta contau nire vicitzacoen  
arteak. Maite zaitut Jaunaren borondate  
santua Jaungoicoa bera beste, zarealaco  
Jaungoicoa bera: maite zaitut neure biotz

guztitic, eta neure arima guzlitic, neure  
indar eta aleguin guztiacaz.

Erreguchua. *O neure Jaungoicoaren  
borondatea! Zu zara nire amodio bacarra.*

*Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**A**doretan zaitut, ó Maria graciaz betea,  
Jauna da zugaz. Adoretan zaitut, ó gure  
poz eta atseguiñaren jatorria, ceñetan  
deseguin ta zatitu zan zure semearen bi-  
tartez gure betico galdu mendiaren epaia  
eta biurlu zorion eta dontsutasunean. Ado-  
retan zaitut ;ó Jaungoicoaren gloriaren  
elessea: Ceruco Erregueac bereturico  
eche bedeincatua. Zu zara Jesucristogan  
Jaungoicoagaz guizonen arteco baque  
eguillea. Adoretan zaitut gueure Salba-  
guillearen Ama. Eguiaz zara bedeincatua,  
bada zu bacarric ciñan Andra guztien ar-  
tean Jesusen Ama izateco diña. Mundu  
eta ceru guztiac diño ao betean zareala  
bedeincatua. Zugan iminten baldin badot

orretan; eta ezcutauric bazagoz bere araguizco begnientzat, ezagututen zaitut fedeco beguiacaz ostraia santu orretan cern ta lurreco Erreguetzat eta munduaren salbaguillatzat. ¡Há neure Jesus guztiz gozoa! Zu zarean leguez neure icharopena, neure salbacinoia eta neure sendotasuna; alan gura dot izan zaiteala neure amodio guztia; eta zugana bacar bacarric zucendu deitezala nire gogo, asmo, gurari ta alequin guztiac. Gueiago poztulen nau zuc eruan daueazun eta beti euquico dozun zoriontasun amaibaguearen gomuteac, nic mundu onetan nai bestean izan neiquezan ondasun ta onera guztiac baño. Nire atseguinic andiena dà, ¡Oh neure salbaguilla maitea! jaquitea zure zoriontasunac ez dancala mugeric, neurriric, ez amairic. Izan zaite nire arimearen jaubea, eta aguindu eguziozu nai dozuma; zure mendean guelditaten dà osoro, eta euqui eguizu beti ceugaz baturic. Nire borondatea, nire biotza, nire gorputza, nire ari-

gandie: cerren araco ardi, artzañaren urrean dabiltzazanac izan oi dituben leguez artzainac maiteen eta artuten dituen leguez copau galant eta gozo aseo bere escuetatic; alan gu bere izango gaitu Jeseuc maiteenac, eta eguingo deuzcuz meseide ugariac, joaten bagachacoz sarri, beragaz egotera Altaraco Sacramentu Santuan.

¡Há neure salbaguilla maite Sacramentadua! Emen naucazu ceure urrean: ez dot nai beste mesederic, ceure amodio santua neure violzean viztu eta gueroago gueituago eguitea baño. ¡O fede santua! Nic alabetan zaitut, eta esquerrac emoten deutsudaz, iracasten deuztazulaco Altaraco Sacramentu santua gaitic, janari ceruco atan ez dagoala ogniric ezpada an dagoala oso osoric neure Jesus berbera, eta ez dagoala beste gaitic ezpada niri deuztan amodioa gaitic. ¡Neure Jesus eta neure onera guztia! Nic sinistunten dot zagozala ecin da ciurrago Altaraco Sacramentu

orretan; eta ezcutauric bazagoz bere aragizco beguiertzat, ezagututen zaitut fedeco beguiacaz ostriak santu orretan cernita lurreko Erreguetzat eta munduaren salbaguillatzat. ¡Há neure Jesus guztiz gozoa! Zu zarean leguez neure icharopena, neure salbacinoia eta neure sendotasuna; alan gura dot izan zaiteala neure amodio guztia; eta zugana bacar bacarric zucendu deitezala nire gogo, asmo, gurari ta alequin guztiac. Gueiago poztutenean nau zueceruan daucazun eta beti euquico dozun zoriontasun amaibaguearen gomuteac, nien muudu onetan nai bestean izan neiquezan ondasun ta onera guztiac baño. Nire atseguinie andiena dà, ¡Oh neure salbaguilla maitea! jaquitea zure zoriontasunac ez daucala mugarie, neurriric, ez amairic. Iban zaite nire arimearen jaubea, eta aguindu eguiozu nai dozuna; zure mendean gueldituten dà osoro, eta euqui eguizu beti ceugaz baturic. Nire borondatea, nire biotza, nire gorputza, nire ari-

mea, nire centzun eta almenac guztiac dagoz prestau ta guerturic zure naia beti egualeco, eta ez dot gura beste gauzatan jardun daien mundu onetan, zure agnindu santuac gorde, eta zure esanac betetan baño. Onetan jardun cenduan beti zue jō Jesusen maitetzallarie cintzoena, eta neurre Ama Maria! Lagundu eguidazu bici nai-tean gaurtie aurrera Jaungoicoarentzat bacar bacarric.

*Erreguchua. O neurre Jesus! Eguizu ni  
guztian izan nadilla zurea ta zu izan  
zaiteala guztiori nirea.*

*Gurarizco Comuniñoia.*, p. 20,

## AMA DONCELLA MARIARI.

**O**rruquiaren Ama! Bigundu eguzu ceure semeac gugaz daucan aserrean. Bai zu, ceruco glorian lecuric ereguienean zagozan ori, ezagututen zaitu mundu guztiac bere baqueguillatzat. Escatuten deurtsugu, Ama santea, erregutu daiezula sarri

gugaitic Jaungoicoari; bada gueiago halio dabe zore erreguae, munduco ondasun guztiac baño. Eurac parcatu eraguiten deutsez Jaungoicoari gure pecaluac, eta jaristen deuzcuez gracia ugariac; eurac urrinduten dituez gure arerioac, deseguin euren asmoac, eta osticopetu euren aleguin eta malmuzqueria guzliac.

Erreguchua. *Neure vicitza ta icharopena! Gozatú naizu, ez naizu ichi.*

*Egun guztieta raco Ama Donzella Mariari erregua.* p. 22.

---

### AMABIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Jaungoicoa caridadea da, eta caridadean dirauanac, Jaungoicoagan dirau, eta Jaungoicoac beragan.* 1. S. Joan. 4. 16.

**J**esus maite dahena dago Jesusegan eta Jesus beragan. San Felipe Neric comulguelako egoala bere azquenengo gaiso al-

dian icusi ebanean sartzen bere guelara Jesus sacramentadua, esan eban : orra emen nire amodioa, orra emen nire amodioa. Esan daiogun bada guztioc eta baco-chac Jesusi sacramentaduric dagoan Alta-ra aurrean: orra emen nire amodioa: orra ceñegana zucenduten diran nire gogo eta gurari guztiac. ¡Há neure Jaun eta Jaun-goico laztana ! Zuc esan cenduan ceure evangelioan, maitetnico cenduala con maitetuten zenduzana, eta beragan iminico cenduala ceure vicilecua: ara bada nic maite zaitut, maitetu naizu ceuc bere, cerren naiago dot zure maitetasuna mun-duco aberats, aguintari, andiqui eta Erre-gue guztiena baño. Maite zaitut beste onera guztiac baño gueiago. Erdu, Jauna, erdu: etaimini eguzu ceure vicilecua nire arima errucarri onetan, iñoz bere alderic ecingo dozun moduan; edo obeto esateco, neuc iñoz bere alderic ecingo dodan moduan. Zuc, Jauna, ez dozu iñoz bere alde eguiten gugandie, guen aldenduten

ez bagachatzuz pecatuaren bitartez; eta orain artean aimbeste bidar alde dodan leguez zu gandic, bildur naz ostera bere jausico ete nazan zorigaistotasun esquerga onetan ¡Ay Jauna! Ez alda jazoco munduan gaistaqueria ain andi eta esquergabetasun izugarri ait! Ez al zaitut neugandic ostera botaco; aimbeste mesede eta erruquitasun zugandic artu ezquero! ¡Baña ay! badaquit jazo leiteala. Orregaitic neure Jauna naiago dot leenago galdu daucadan guztia; naiago dot leenago ill; zure borondatea baldin bada, zugandic alde eguitea baño. Nai dot vici eta ill zugaz baturic, izan gaitean guero beti alcarregaz beste munduan. Bay neure Jesus maitea, alan icharoten dot. ¡Ay beti beti alcar maitetuco baguendu! Uste dot Janina alan izango dala: maitetuco dogula orain emen mundu onetan, eta guero orbetico glorian. Alan izan dedilla.

Erreguchua. *Neure Jesus! Nic amau*

*gura zaitudaz betico iraunean, eta ceuc  
maite izan naizula.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

## AMA DONCELLA MARIARI.

**O**ceruelaco Erreguiña eder, eta Jesu-sen Ama maitea! Auzpazturiic ceure oñetan escatuten deutsut jaretsi daidazula Jaungoicoagandic neure vicitza gantzico pecatuen parcaciñoe oso osobat eta garbi-turiic gueratudedilla nire arimea pecatuen orban guztietatic. Emon eguidazu gracia batu batu eguin naitean zugaz eta Jaun-goicoagaz amodio garbi baten bitartez: baita bere zure seme Jesus eta zu albait ondoen servietaco, zure semea neure salbaguillea leguez, eta zu onetan bere lagun cintzoa ta ciurra leguez; cerren ber-ae pagau baldin beebar gure pecatuen zorra, pagau eban zugandie attu eban odol ta araguiagaz.

Erreguchua. *O amodio santuaren Ama!*  
*Alcantzau eguidazu Jaungoicoaren amo-*  
*dioa.*

*Egun guzlietaraco Ama Doncella Ma-*  
*riari erregua.* p. 22.

---

### AMAIRUGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateko erregua. p. 10.  
*Anche euquico ditut imiñiric neure be-*  
*guiac eta viotza, neure vicitzago egun*  
*guztietan.* 3. Reg. 9.

**B**etico zoriontasunaren billa zabiltzan arimea : entzun egnizu cein esquintzari ederra eguiten deutsun Jesusec Altaraco Sacramentu Santuan, ceñetan gueratu nai izan daben gau tá egun beti gugaz egoteco. | Ay neure Jaungoicoa! Guichi erechi ceuntzan gueratuteari Sacramentu orretan egunaz, guizonac lagundu eiquezuen artean, baita bere gura izan cenduan gueratu gabaz,

guizonac Elessatic urten, euren echeetara joan, eta bacar bacarric ichico cenduezanean. Baña badaquit bai ergaitic: guri deuzcuzun amodioac ez deutsu ichiten aldenduten gugandie instante edo uneric laburrenean bere! Ha neure salbaguilla maite maiteal Mesede arrigarri onen gomuta bacarrac asco eta larregui izan be ar leuque, egoteco Elessangui zonguztiac zure aurretic iñoz bere aldendu baga, aric eta nai ta ez, esquergaistoan, bultzaca eta tarraz alera daiezan arlean, eta orduan bere zugan ichi bear lituquez eureen biotzac; hada au eta gueiago zor deutsugu, izanic zu Jaungoico eguiatzcoa berbera, gure araguia artu cendualaco, eta guelditu ciñalaco Jaungoico lecu edo Sagrario orretan nun zagozan beti icharoten eta zain, ceure arima maiteac zugaz egotera etorri daquizuzan euren premiñetatic ateira, eta euren naibagueac gozatuteco.

Bay neure Jesus ona: onezquiero adisquideac izan bear dogu: orainche emen

bertan, eta betico emoten deutsut neure gorputza centzun guztiacaz eta arimea bere almenacaz. ¡O Jaungoico baten anditasun neurri-bogueal! Zue nai, izan cenduan guelditu Jaungoicozco Sacramento santu orretan, ez bacarric gugaz egoteco, baita oraindic gueiago, aberastuteco ceurre ondasun ugariacaz arima autu ceure gogocoac. Baña jay Jauna! ¿Cein dà azartuko dana zure maira urreratu, eta zure araguia iruntziten? ¿Baña cer diñot nic! ¿Cein izango da mai onelan jarri, eta janari Jaungoicozco onegaz sendatu naico ez dabena? Onetaraco guelditu ciñan ezcutauric oguiaren antzean, gure barruan sartu, eta gure viotzac ceuganatuteco. Zue nai ceunqueana dà, gure barruan sartu, eta gugaz beti vicitea. Erdu, bada, neure Jesus laztana, erdu; cerren ez dot nic bere besteric gura, ezpada sartu zqidazala neure barru barruan, izateco neure viotz eta borondateco Jaungoicoa. Neugan danez ichiten ditut neure atsegui-

nac, neure pozac, neure borondatea eta  
euqui al neiquezan onera guztiac, zure  
amodioan issioturic vicitea gaitic. ¡O neu-  
re arimaco amodioa! ¡O amodiozco Jaun-  
goicoa! Erdu arren nigana; janbetu zaite  
nigaz, eta eguizu nigan nai dozun guztia.  
Atera eta urrindu eguiuz nigan dic zure  
gogoco ez diran gauza guztiac. Quendu  
eguiozu Jauna nire arimeari zugaz baño  
bestegaz gomutetaco escubide eta aguin-  
tea, cerren ez dirudi ondo, zu ezpada go-  
goan euquitea bein comuninoe santuan  
zure Jaungoicototasunagazase ta bete ezque-  
ro. Ametan zaitut neure Jaungoicoa, ame-  
tan zaitut eta nai cenduquedaz beti amau.

Erreguchua. *Eracarri nagiztu, ó neu-  
re Jesus ona, ceure amodio santuaren  
locarriacaz.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Maria Virgina gozoa! Ondo daquit zu  
zareala Adanen seme alaba, eta ceruco

aingueru guztien artean andiena, ederrena, garbiena, santuena la maitegarriena. ¡Ay guztiac ezagutu eta maitetuco bacinduez bear leuquen beste. Nai cenduquedaz asco amau, baña ezagutoten dot ez zaitudazala a netan biar neunquean beste. Eguizu, Andrea, emendic aurrera euquidaila zuganaco amodio vici, bero, goritu, sendo, eraguilla eta eguiazeo bat. Benetaco amodioa baldin badeutsut, dudatzaca salbauco naz, bada berau dà salbauco garean edo ez guichi goiti beti jaquiteco ezaugarri edo señalerie ciurren bat; eta Jaungoicoac ceruraco auturic daucazanai baño egiten ez deutsen mesede bat. Erregulu eguizu nigaitic icusi naitean arte ceruco glorian, Jaunaren adisquidetasuna, eta bere amodio santua galduko bildur bagarie.

Erreguchua. *O Maria! Salvau eguizu zugana zucenduten dana.*

*Egun guztiataraco Ama Doncella Mariari errequa.* p. 22.

## AMALAUGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Au dā nire beti betico atseguiña; emen euquico dot neure vici lecua, autu neba-taco. Ps. 151.*

**J**aun guztiz maitegarria! Zuc-iminiñi bacendnan gure artean ceure vicile-cua Altara orren gañetic guri lagun eguiteco, eta deuzcuzun amodioac aur-quitu eraguiten badeutsu emen ceure atseguiña, errazoa dā gure viotzac bere bici izatea zugan amodioaren bitarbez, eta ceugan bacar bacarric aurquitutea euren poz, gázotasun eta atseguiñac. Zorioné-coac nulla bidar zuec arimia maitetzalla, ecin aurquitu dozuenac beste atseguiñic munduan Jesus Sacramentaduagaz ego-tean baño: eta ni bere izango nintzateque zorionecos, ez baneu aurquituco atseguiñic beste gauzatan, zure viotz maitetza lleagaz beti baturie egon, eta zu maitetu,

eta zure aguindu santuac gordetan vici-  
tean baño.

¡Ay neure Jesus gozoal gērgaitie al-  
perrie galdu nituzan nic araco urte, zū  
maitetu baga igaro nituzanac! ¡Ah zori-  
gaistoco urteac, celaco gorrotoagaz be-  
guiratuten deutsuedan! ¡O neure Jaungoi-  
coaren eroopen ta paciencia neurribag-  
uea! Nic alabau eta adoretan zaitut, ni-  
laco donga, cital, prestuez, dollor, ta  
esquercharreco bati aimbeste urtean icha-  
ron deutsazulaco. Zuc, neure Jesus ona,  
zuc icharon deuztazu: baña gētaraco? ¡Ah!  
Bigunduric egunen baten nire gogortasu-  
na, zure niganaco erruqui ta amodioaren  
gomuteagaz, biurtu naitean nosbait guz-  
tiau zu gana. Ez nachaco bada onezquero  
jarqui nai gueiago zure borondateari: ez  
naz onezquero izango esquer dongacoa.  
Alan bada ez daquit guichi ala asco vicico  
nazan mundu onetan, baña, dana dala,  
munduko dempora guztia lucea nai labur-  
ra, dan dana oso osoric igaro nai dot zu

ametan, eta zure aguindu santuac gorde-  
tan. Uste dot Jesus maitea lagunduco  
deuztazula guiztiau ceurea izaten. Zuc me-  
sederic asco egun ceustan zugandic  
iguesi nembillenean, eta zure adisquide-  
tasunie nai bere ez nebanean: orain bar-  
riz ¿botaco ete nozu ceugandic? gorain,  
billatuten zaitudazanean, eta maitetu gura  
cenduquedazanean? Icharoten dot zure  
errnqui amai bagan, ez dozula eguingo  
onelacoric. ¡O Jaungoico, amodio neurri  
baguearen duiña! Indazu ceu ametaco  
gracia. Ametan zaitut neure viotz guzti-  
tie: ametan zaitut gauza guztien gañean:  
ametan zaitut neure vicitzea baño gueia-  
go: damu dot ecin gueiagoraño zu ofen-  
didua: parcatu eguidazuz arren Jauna nire  
pecatu guzliae; eta parcaciñoiagaz batera  
emon eguidazu gracia zu guztiz ascoame-  
taco mundu onetan azquenengoe arnasara  
artean, eta guero beticoiraun guztian.  
¡O Jaungoico altsua! Eguizu arren mirari  
bat gueiago munduan ceure escubidearen

anditasunagaz: biurtu eguizu nire arima donga eta zure amodioraco otzitu, eta izoztu au, ceure maitetzallarie andien bat izatera. Eguizu au ceure irabaci edo merecimento amaibagaac gaiti: ausse da ni gura neugneana eta onetaraco egungo ditut aleguin guztiac. Ceuc emoten deuztazun ezquero gurari au, emon eguidazu onetarao biar dodan laguntasun eta indarra bere.

Erreguchua. *Esquerrac emoten deutsudaz, neure Jesus, orain artean icharron deuztazulaco.*

*Gurarizco Comuninoia p. 20.*

### AMA DONCELLA MARIARI.

**E**rregututen deutsugu, ¡O Ama santeal! Jaungoicoae emon eutsun escubidea gaitic izateco ain altsua ceruan eta lurrean, erruquitu zaiteala gugaz: jaretsi eguigu zu aimbat lasterren araco onerea ceñe-

gaitic Jaungoicoa guizon eguin zan zure errai garbietan: ez zaite gortu gure erre-guetara. Zue escatzen badeutsazu guretzat zure semeari, bereala emongo deutsu guztia. Zue badaucazu gú salvetaco gurari sendo ta eraguilla bat, berau dogu asco Jesucristoren irabaci eta merecimientoaz gue vicitza onean irauteco. Orain bada gnoi imiñi daquioz mugaac zure erruquizco erraiai? Erruquituten ez baldin bazachacuz, zú, erruquiaren Ama jcer izango dà gugaz aguertu bear dogunean zure seme Jesusen aurrean, gueure vicitza guztico kontu estu eta ciatza emotera?

*Erregelua. O erruquiaren ama! Jaso eguzu jausiric dagoan errucarri zure laguntasunaren billa dabillen bat.*

*Egun guzti taraco Ama Doncella Mariari errequa. p. 22.*

## AMABOSTGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateko erregua. 10.

*Etorri nintzan lurrean sua iminitera,  
eta cer gura dot, ezpada issiotutea?*

San Luc. 12. 49.

**D**on Francisco Olimpio Teatino Aita Beneragarriac esan oi eban, ez egoala munduan Jaungoicoaren amodiozco sua guizonen violzelan obeto vizinten eban gauzaric, Altaraco Sacramento Santua baño. Orregaitic aguerlu jacon Jaun au Santa Catalina Senacoari, su izaragarri baten irudian, zabaltzen citsuala bere gar andiac mundu guztitie; arrituric ichiten ebala Santea, cein adituric celan vici leitcequezan guizonac suzco ichaso onen erdian amodiozco garretan erre eta quis caldu bagaric. ¡Ay neure Jesus ona! Egui zu issiotu dedilla nire violzean zure amodiozco sua. Emon eguidazn indarra ez beste gauzagaz gomutetaco, ez esan.

ez eguin, ez billatuteco beste gauzaric,  
zu baño. Zorionecoa izango nintzateque  
bici banintz beti issioturic alde guztietat-  
tic su ta gar Jaungoicozeo onegaz. Milla  
bidar zorionecoa, amaituaz joatan leguez  
munduko vicitza, alan amaitueo balitzat  
munduko gauzetaraco dancadan eraspen,  
gurari ta gogoa ¡O neure Jesus! Zacuzta-  
zan ezquero Altara orretan guztiori ece-  
rezturic nigaitic, neuc bere erantzun  
bear deutsut celanbait: gaurdanic jarten  
naz guztiau zure mendean: zure escue-  
tan iminten ditut neure arimea, neure  
borondatea, neure vicitza, eta nazan  
eta izan al neitequean guzlia. ¡O Aita  
Cernecoa! Gura neuque batu neure es-  
quintzari labur au, zure seme Jesus ee  
curutzean eguin eutsun eta egunoro gu-  
re Altaretan eguiten deutsun esquintzari  
amaibagueagaz. Abegui onagaz begniratu  
egujozu, Jesus neure Salvaguillearen  
merecimentuac gaitic, eta emon eguida-  
zu gracia, barriztetaco esquintzari au vi-

ci nazan arteco egun guztietan , eta amaitzeco neure vicitza berau barriztan diardudala. Gura neuque eguingo baceuzt gracia beste martiri ascori leguez bota eta isuriteco neure zanetaco odola eta ilteco zure amodioz , zure legue Santua gorde eta mundu guztitic zabalduearren , eta uste baldin badozu ez nazala allaguiñaco mesedearen duin , ichi egnidazu esquiñi daguizudan guichienz neure vicitza , eta gaurdanic nago prestauric ilteco ceuc nai dōzun leguez eta cenc nai dozunean.

Erreguchua. *Neure Jaungoicoa!* Gura dot milla bidar ill , zu ofendidu baño tenago .

*Gurarizco Comuninoia* pag. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Erreguiña guztiz erruquitsua! Lagundu eiqueguzu arren atzeratu baga gure pecatuen anditasun , eta ugaritasuna gai-

tic. Gomuta zaile ez ebala artu gure araguia zure errai garbietan Jesucristo gure Jaunac gu condenetako, ezpada gu salvetako. Ez baldin bacinduz egun Jaungoicoac bere Ama, ceure honra eta gloriaraco baño, esan gueunquean bearbada, ez deutsula emoten ardura andiric gu salvau nai condeneat; baña ondo daquizu, Andrea, Jaungoicoa zure araguiaz jantzi zala gù guztioe salbetearen. ¡Cer guenduque gue zure escubide ta gloriaren anditasunagaz, gure oneraco ez izanenean? Lagundi eguiogoz arren ta zaindu gaizuz: ondo daquizu, cein zure bear garean. Zure mendeap jartzen gara: eguiizu ez gaiteala galdu betico, eta bai vici eta ill gaiteala zure seme Jesusen gracia eta adisquidetasuncan. Alan icharotzen dogu.

Erregochua. *O deituten deutsuenen osasuna! Salbau nagiztu.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua.* p. 22.

## AMASEIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Ez al dago Galaad-en errechiñaric edo balsamuric edo emen osaguillaric?*

Jerem. 8. 22.

**Z**ucenduce baldin balira Adanen seme alabac Altaraco Sacramentu Santura eu-ren gachen osagarri billa , ez litzatequez ez izango ain erruecarriac. Negarrez ci-ñoan Jeremiasec ; Ez al dago Galad-en errechiñaric , edo balsamuric , edo emen osaguillaric? Galaad Arabiaco mendi, miritza edo ungüentu usaintsuz betea, da Jesucristo gure Jaun, Altaraco Sa-cramentu Santuan gure gach guztien osagarri mueta guztiac guerturic ta prestauric daucazanaren irudia, Veda Beneragarriac dirauzcunez ¡O Adanen semeac, beguitanduten jat dirauzcula deadarrez salbaguilleac ¡cergaitic ez do-zne osatu nai ceûen gachetatic, euquiric

Sacramento onetan guztien osagarri ain  
merque ta doacoa , eta ceñen naibague  
guztiac atseguiñ biortuco deutsuezana? Erdue bildur baga neugana neque eta  
pisuaren azpian vici zaren guztioc , neuc  
arindu eta guztiz quenduko deutsuedaz.  
¡Ay neure Jauna! ichi eguidazu esan dai-  
zudan Lazaroen arrebacaz: «Maite dozu-  
na gueisoric dago.» Jauna ni naz araco  
maite dozun errucarreria ; neure arimea  
daueat gueisoric pecatuen gachagaz, eta  
ceugana nator ; ó osaguilla ceruкоа, osa-  
sunaren billa. Zuc nai badozu erraz eta  
laster osatu naiquezu ; osatu eguizu bada  
arren nire arima pecatu eguin dabena.

Eroan naizu ceugana, neure Jesus go-  
zoa , ceure amodiozco soca maitegarria-  
cاز. Naiago dot zure viotzagaz baturie  
egotea mundu guztiaren jaube izatea ba-  
ño. Ez dot beste gauzarie gura mundu  
onetan , zu ametea baño. Guichi edo utsa-  
da nic zuri emon neiquezuna ; baña mun-  
duco Erreinu guztien jaube banintz bere,

ez nituquez bestetaraco nai izango, zuri emoteco baño. Emotea nachatsu nazan eta al neiquean guztiau: daucadan eta euqui al neian guztiau: neure atsegui, eta arimaco pozgarrirrañoco guztiac. Ametan zaitut ontasun amaibaguea: ametan zaitut neure burua baño gueiago: uste dot orain eta guero mundu oneton eta bestean beti beti amauco zaitudazala.

*Erreguchua. Neure Jesus! Jarten naz pocic zure borondatearen mendean.*

*Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Maria guztiz altsua! Lagundu eguigu zu zure bitartecotasuna escatuten deutsugunoi. Biurtu eguiuz guganuntz zeure begui erruquitsu orreec; Gelan aztu ci naitequez gugaz, gugaitic bazara Jaungoicoaren Ama? Ecin litzateque ecelan bere. Ondo daquizu celaco arriscuetan vici garean, eta cein errucarria dan zu-

re seme alaben egoerea. Ez jaoca zurealaco anditasun batí, urfi, estu, ta escu laburrecoa izatea; eta alan bete gaizuz arimaco ondasun ugariacaz. Goitu eguz gure arimaco arerioen asmo dongae. Zu gueure aldetie zaitungula, ez gaitue inoz menderatuco; bada Jaungoicoac emon eutsuzan escubide guztiz andiac ceruan eta lurrean: barriz ceimbat altsuago zarean, aimbat bigunago, samurrago eta erruquiorrago.

Erreguchua. *Maria guztiz maitegarrial Eguizu, zure icen santua izan dedilla gaurtie gueiago nire vicitzearen arnasea.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua. 22.*

---

### AMAZAZPIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateeco erregua. p. 10.

*Jauna, ondo gagoz emen. Math. 17. 4.*

**A**rima maitetzallentzat ez dago alseguin

andiagorie, maite dabenagaz egotea bano. Maite badogu bada Jesucristo gure Jauna, benetan maite badogu, egen gaitean albait sarrien eta luceroen beragaz, gueure escuan daucagun ezquero nai dogun guztian beragaz egotea. Altaraco Sacramento Santutic Jesusec icas-  
ten gaitu, entzuten ditu ez bacarric gure aozco berbac, baïta bere gure viotzeco escariric issillenac: eta zegongo gara gu bere aurrean isillic, muturic, ecer-  
chu bere esan baga? Gozatu gaitean orain bere laguntasunagaz, berac dauncan glo-  
riagaz, eta arima garbi ascoc Sacramen-  
tu onetan deutsen amodio sutsu, goritu  
eta galduaguaz eta emoten deutsezan es-  
quer tá alabantzacaz. Enqui daigun guz-  
tioc gurari andi bat maitetu daiñ mundu  
guztiac Jesus Altaraco Sacramento San-  
tuan. Benic bein maitetu daigun gueuc al  
daigun bestean, esquini daioguzan gueu-  
re viotzac eta beragan imiñi daiguzan  
gueure uste, gogo, eta gurari guztiac.

Aita Salesio guelditu oi zan conort bagaric pozaren eta amodioaren indarrez ciarduanean berbetan Jesus Sacramentaduaren gañean. Al eban guztian egoten zan beragaz iñoz aspertu baga. Sarrate edo porteriara deituten eutsenean, bere guelara biurtuton zanean, nai besto edo cçimbere achaquia atrapau al ebanean, bere lelengo eguiquizuna zan Jesus Sacramentaduaren aurrera joatea, al eban bestean anche beragaz gozatutera, ain modutan eee, guichitan igaroten jacon egunaren orduric, Jesus Sacramentaduagaz egon baga: eta azquenik eguin eutsan Jaungoicoac gracia, emoteko bere viciotza eracustea gaitic egua au sinistu nai ez eben heregeai; Ay, jaretsiko banenic gracia au! Jaungoicoac Sacramentu adoragarri onetan deuzenn amodioaren anditasuna munda guztiari eracustearren ilteco gracia! Ea Jauna, aimbeste mirari Sacramentu onetan eguiten dituzun ezkerro, eguzu bat gueiago, eta da, ceugana

eroan eta nazan guztian zure amodioan goriturea: emon eguidazu indarra maitetu zaidazan neure viotz guztitic. Ez dot nai nic munduko onera eta ondasunie, eta ala n emon eguzkizuz nai dozunari, eta nai dituzanari; nie gura dodana eta viotz gaztitic escatuten deutsudana dá, ceure amodio santua: ausse dá orain escatuten deutsudana, eta beti escatuco deutsudana. Ametan zaitut neure Jesus; amau naizu eta ez deutsut besteric escatuco.

Erreguchua. *O neure Jesus gozoa!*  
*¿Noz izango deutsul amadio osoa?*

*Gurarizco Comuniñoia.* pag. 20,

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Santa Maria, Jaungoicoaren Ama! Badaquit guztiori zareala biguna, eta ameten gaituzula amodio guztiz samur bategaz. Geimbat bidar bigunduten dozu zuc Jesucristoren aserrea, eta quenduten deutsazu bere escuetatic gu castiguetaco

gogoagaz artutaco cigorra? Zure escuetan dagoz Jaunaren erruquitasuneko ondasun eta aberastasun guztiac; Ay gueure Ama maitea! Ez dozu zue alperric galduen gu salbetako esquintzen jatzun eraric eta baldin billatuten bazaitugu gueure pecatuen damu eguiazcoagaz, ez deucuzu ichio lagundu baga jaristen betiko zoriontasuna. Eguizu bada alan aurreruntzean bere, bada gue euqui al guinaian zoriontasunic andiena, Jaungoicoaren arpegua icusi, eta beragaz egoteaz ostean, da, zu icusi, maitetu, eta zure mempetasun gozoan vici izatea. Entzun eguiuz gure errengua, bada ondo daquigu, baita zeuc bere, ez deutsola ucatuten zure seme Jesueristoc, escatuten deutsazun gauzaric.

Erreguchua. *O María, neure ama!*  
*Nic maite zaitut eta beti maitetu gura*  
*zaitut.*

*Egun guztietaraco Ama Doneella Ma-*  
*riari errengua. pag. 22.*

## AMAZORTZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Aingueruen aurrean alabauco zaitut:  
joango naz zure elessara zu adoretara:  
eta goratuco dol zure icena ceure erruqui  
ta egui gaitic. Ps. 137. 4.*

**E**gunen baten aguertuko da Jesucristo gure Jauna Josafateko Celaian jarlecu itzaltsu baten: barriz orain Altaraco Sacramentu Santuan daucagu amodiozco jarlecu baten. Joango baldin balitz errengue bat vici izatera artzain baten chabolara eracustearren artzañari deutsan amodia, eta artzain au beti ibillico balitz Erregneren iguesi, jaquinic beragaz aimbat sarrien egotearen etorri dala Erreguea chabolara jcelácoa esango gunden duque dala artzain onen esquerbagatasuna? ¡Ay neure Jesus! Badaquit nire amodia gaitic etorri zareala, eta zagozala Altaraco Sacramentu Santuan. Gura

neuque al baneu gau ta egun beti zugaz  
egon. Eta eguiaz, Jauna, baldin Aingue-  
ruac badagoz emen lecaraturic guri deuz-  
cuzun amodioaren gomuteagaz, ecin egon  
neite ni al bait sarrien zugana elorri baga-  
bedeincatu eta alabetara zure ontasuna,  
ni laco gaisto, donga eta prestuez bat-  
eguiten deutsezuzan mesedeac gaitic.  
Ainguueruen aurrean alabauco zaitut,  
ctorrico naz Elexa Santara zu adoretara,  
eta esquerrac emotera zure icen santua-  
ri ceure erruquitasun eta égnia gaitic.

¡Ó Jaungoico Sacramentadua! ¡Ó Ain-  
gueren ogua! ¡Ó Geruco janaria! Nic ame-  
tan zaitut, egua dà baña guichi. Ceuc Jau-  
na ezagutu eraguídazu, cein andi eta neurri  
bagaea dan aiñ guichi ametan dodan onta-  
sun eta edertasuna. Eguizu atera daguidala  
neure viotzelic, eta urrindu neugandie lur-  
reco gaucetaraco daucadan gogo eta etsi-  
guitasun guztia, gueralu deitean uts utsic  
zure amodioac eragozpen, ez eztropezu-  
ren izpiric aurquituco ez dabean moduan.

Zu jatziten zara egunoro Cerutic gure Altaretara gure amodioa irabaztearren, eta nire arimeagaz batutearren; hada ni bere gaurtic guéisago neure yicitzeac diraustan arte, etorrico nachatsu al do dan guztian lecu santu onetara zuri es querrac emoten eta barriztetara, zu amau, eta neure eguin bear, eta zure aguindù santuac gueroago obeto gordetako asmo eta gurariac. Ametan zaitut neure arimaco almen eta gorputzeco entzun guztiacaz. Emon gura baldin badeuztazu deutsudan amodioaren sariric, emon eguidazu amodio gueiago, gar guieago, sulu, goritu, galdu, erre eta quiscaldu naitean zure amodio santuan.

Erreguchua. *O Jesus amodioa! Emon eguidazu beti amodioa.*

*Gurarizco Comuniñoia.* pag. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** gueure Erreguiña eder eta altsnai Jaungoicoac emoten deutsuz zuri doe eta

gracia mueta guztiac. Esaten deutsugu  
graciaz betea, Jaungoicoaren semea sor-  
tu zalaco zore errai garbietan, ceure ga-  
ñera jatziteco Espiritu Santuaren egitez.  
Zabaldu eguzkiz gure artean neurri ba-  
ga ceure aberastasun eta ondasunac, eta  
emon eiguzu orraco aiñ beteric zaucazan  
graciare n ugaritasuna. San Gabrielec di-  
rautsu graciaz betea, eta mundu guztiac  
ezagututene zaitu zorionecotzat. Gue bere  
dirautsugu orain guztien iccnean. «Jaun-  
goicoac gorde zaizala, Maria, graciaz  
betea, Jauna da zugaz, erregutu egui-  
zu gu gaitic Jaungoicoaren Ama Santea,  
izan gaitean Jesucristoren esquinien  
duin.»

*Erreguchua. O Maria, pecatarien  
gordelecua! Salbau nagizu.*

*Egun guztiataraco Ama Doncella Ma-  
riari erregua. pag. 22.*

## EMERETZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egnororo esateco errequa. p. 10.

*Ce ona dan Jaungoicoa Israel-entzat!*  
Ps. 72. 1.

**E**z dago munduan atseguin andiagorie, bacocha gueien maite dabenagaz egotea baño: eta jcelan ez dogu atseguin andi bat enquico egoteaz munduco erbeste onetan gueure adisquideric leialenagaz, onera guztiac emoten deuzcuzanagaz; amodio, esan al baño andiago bat deuzcunagaz, eta gueu maitetu eta onez betetearren, inoz bere gueugandie aldendu baga dagoanagaz? Ara bada nun daucagun Altaraco Sacramentu Santuan. Anche dago; eta ez daucagu eragozpenic, bere aldetic, nai dogunean berari berba eguin, gueure viotzac idigui, eracutzi gueure premiñac, bere laguntasuna escatu eta jaristeco. Guc euqui daiquegu Sacramentu onetan Ceruco Erreguegaz, usteric beteena eta

amodioric andiena. Ez zan chiquia Jose-ren zoriontasuna jatzi jaconeau Jaungoi-coaren gracia, egoan presondeguira, bere nai hagueac gozatuleco, liburu Santuac dirauzcu en leguez: baha andiagoa da gurea enquitcan gueugaz beti negarrezco lecu onetan, gueure Jaungoicoa guizon eguiñic, iñoz bere gueu gandie aldenpu baga, beguiratuten deuzeula allaguiñaco amodio; eta erruquiagaz. ¿Celaco atsegui-na ez da catigu dagoan batentzat aurqui-tutca adisquide bat, beragaz berba egui-teco, eta onezaz ostean bear daben guz-tia emoten dentzana eta penazco lecu atatic aimbat lasterren aterateco al daben guztia eguiten dabena? Orra bada nun daucagun Sacramentu onetan gueure adisquide Jesus ceñec sendatulen gaituan dirauscula. «Emen nago zuen amodia gaitic; nator berariz cerutic lurreco er-bestetara zuec gozatu, zuei lagundu eta zuen naibagueta tic atera eta libreta-ra. Escaluz eguidazue nai dozuen guztia;

batu zaiteco neure borondateagaz, eta onembestegaz atseguin biurtuco dirá zuen naibagueac, eta guero etorrico zaree neugazneure Erreinura, nun beteco zaituedazan zoriontasunez,

¡O Jaungoico andia! ¡O amedio, adierazo ez aditu ezin guíñaiqueana! ¡Zarean ezquero gugaz ain laña cein dá jatzi nai dozun gure Altaretara gugaz egotearren, nic gura dot mesede ain andi onen partill izan eta alan emoten deutsut berbea etorrico nachatzula albait sarrien, eta egongo nazala zure aurrean eta zugaz al dodan guztian; hada zugaz egon eta zu icustegaz beste baga gueratuten dira zorioneeco eguinic cerular guztiae. ¡Ay! egon al baneite emen beti zugaz, iñoz bere zure aurretic aldendu baga, zu adoretan, eta barriztetan gueroago eta gueiago zu maiteuteco gogo eta gurariae! Aguiraca eguidazn Jauna naguitasunez edo munduko arazoac gaitic ichiten deutsadanean zugana etorteari. Viztu eguizu Jauna nigan gurari

andi bat, egoteco beti zugaz sacramentau-  
ric zagozan Altara aurretan. ¡Há neure  
Jesus lastana, beti beti maitetu bacindu-  
daz! Baña orain daucadan poie andiena  
da, jaquitea badaucadala oraindic zu mai-  
tetuteco demporea, ez bacarric beste mun-  
duan, baita onetan bere. Maitetuco zaitut  
hada; maitetuco zaitut bene benetan zu,  
neure oneraric andien, neure amodioric  
goriena, neure ondasunic aberatsena, eta  
neure zoriontasun. guztia: maitetu gura  
zaitut, maitetulen zaitut neure indar eta  
aleguim guztiacaz.

Erreguchua. *Maite zaitut, ó neure  
Jaungoicoa, eta onezquero ez naz vicico;  
zu maitetuteco baño.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**E**racarri nagizu zukanuntz, ó Maria Vir-  
giña gozoa, joan naitean arin aringa zure  
miritza edo ungüentuen usain gozoaren

ondorio. Eracarri naizu; bada neure peca-tuen pisuac, eta neure arimaco arerioen asmo dongac eragozten deuzte zu ganaco bidea. Zu zara eguiazco jaquituriaren Ira-caslea; zu zara jorichiten deutsezuna pe-catariai Jaungoicoa gana biurtzeco gracia, zarealaco euren bitarteko guztiz andia; az-quenie zu zara ceure seme alabai betico gloria esquintzen dentsezuna; cerren za-rean Jaungoicoaren ondasun eta aberasta-sunen uchia, eta bere doe, gracia, ta emo-cai guztien berarizco egolecua.

Erreguchua. *O neure Ama! Zorione-coa maite zaituzana eta zugan icharoten dabena.*

*Egun guztielaraco Ama Doncella Ma-riari erregua.* p. 22.

## OGUEIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateko erregua. p. 10.

*Etorrico da demporea, ceñetan izango dán iturri agiri bat Daviden echean, eta Jerusalenen vici diranentzat, nun garbituko dán pecataria. Zac. 13,*

**J**esus Altaraco Sacramentu Santuan dá iturri agiri, guztientzat idiguiric dagoan au, ceñetan gueuc nai dogun guztian garbitu daiqueguz gueure arimac egunoro eguiten dituguzan pecatuen orbanetatic. Ulseguitarren baten jausten gareanean jay cé osagarri eraguilla ta egoquia dan, berrealia joatea Jesus Sacramentadua gana! Bai neure Jesus maitea; esquintzen deutsut alan eguitea beti emendic aurrera; batez bere jaquinic iturri onetako urac ez bacarric garbitzen nabela, baita bere emoten deuztela arguia ta sendotasuna ez ostera jausteco; neure griña ta ecandu dongae eciteco; neure buruari deutsadan amadio

Iarregua guichituteco, eta azquenic ur onec isiotu eta gartulen nabela zure amodiaan. Badaquit onetaraco zagozala nire zain Altara orretan, eta emoten deutsezn. zala ceure gracién sari ugariac, ceugana sarri jatortsuzan maitetzallai.

¡Ay neure Jesus ona! Erruquitu zaite arren pecatari andi onegaz: parcatu eguidazuz egun onetan eta neure vicitza guztian egun ditudan pecatu guztiac: Damudot viotz viotzetic euracaz zu iraindu edo ofendidu zaitudazalaco: emon eguidazu laguntasun ta indarra ez gueiago pecaturie eguituteco, eta viztu eguizu nire ariman gurari andi bat zu guztiz asco' ametaco.  
¡Ay nor egon leitean beti zure ondoan, ataco zure servitzari Ieial Maria Diaz Santa Teresaren demporan vici zana leguez, ceñec jaretsi eban Abilako Obispoaren escubide ta baia vicituteco Elessaco tribuna baten, nun oi egoan beti Altaraco Sacramentu Santuaren aurrean, ceñi esan oi eutsan bere vici laguna, eta ez eban iñoz

andic alderic eguiten confesau eta comulguetako baño. Igaroten zanean Fr. Francisco del Niño Jesus Carmelita Veneragarría Altaraco Sacramentu Santuan Jesus egoan Elessaren batetic, ez eban iñoz ichiten Elessan sartu, eta bere Jesus maiteagaz egotaldichu bat baño ezpazan bere eguin baga; eta esan oi eban, azaiera onac eragozten ebala, igarotea adisquide bat adisquidearen eche ondotic, echean sartu baga, agur eguin, edo cerchubait esaten baño izango ez bazan bere: baña bera ez zan onembestegaz aspertutzen; ezpada egon oi zan al eban arte guztian Jesus sacramentaduaren aurrean.

¡Há neurre onera bacar ta neurri bagneal! Badaquit gueratu ciñala Jaungoicozco sacramentu santu orretan, eta oraindic bere zagozala nic maitetu zaidazan. Onetaraco emon deuztazu ceure amadioaren duin dan viotza. Eta nic esquer charreco oneez ergaitieez zaitut ametan? Edo ergaitieez ametan zaitutain guichi? Ez Jauna ez: ez dā

asco ametea amodio ain epelagaz, onera  
ain maitegarri bat. Izanic zu Jaungoico,  
ceure onoidade edo perfecciño guzlietan  
neurriric ez daucazuna, ni barriz lurreco  
arr erquin eta ecetaraco gauza ezdan bat,  
guichi eguingo neuque galduco baneu be-  
re zu gaitic neure vicitzarañoco guztia:  
bada zu lenago ill ciñan nigaitic, guelditu  
ciñan sacramentu orretan nigaitic, eta  
egunoro esquintzen zachacoz Aita ceru-  
coari nire amodioa gaitic. Amodio guztiz  
andiaren duin zara zu, eta nic euquico  
deutsut. Lagundu eguidazu, Jesús ona,  
neure gurari au eguiatzuten; lagundu egui-  
dezu ceu maitetutene neure viotz, arima,  
indar, aleguin, almen etacentzun guztiacaz.

Erreguchua. *Maite zaitut neure Jaun-  
goicoa! Eta beti nago zu gueiago maite-  
tuteco gurariz.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

## AMA DONCELLA MARIARI.

**O** gueure vicitza, gozotasun, eta icharo. pena! Zuc aurquitu cenduan gracia Jaungoi-coaren aurrean, berac gorde cinduzalaco czaindu ez cinaian ceure arima ederra jatorrizco peccatuagaz. Izan ciñan Espiritu santiuaz betea, eta bere eguitez sortu zan zure errai garbietan Jaungoicoaren semea bera. Zuc artu cenduzan mesede guzti oneec Jaunaren escutic, ez bacarric ceure oneraco, baita ez guichi gureraco bere. Eguia da, Andrea, alan eguiten dozula: zuc lagunduten deutsezo onai, gracian iraun eraguiñaz; baita dongai bere, pres. taúaz pecatutic urten eta Jaungoicoaren erruquitasunac artuleco. Zuc lagunduten deutsezu eriotzaco orduan dagozanai, gordaz ceure egapean infernuco arerio tā etsaiac betico galdu ez daizan: baita bere lagunduten deuzezu ill ezquero, artuagaz ceure escuetan gueure arimac, eta eroanaz betico zoriontasunera. ¡O Ama

erruquierral jZorionecoac zure eguiazco servitzariac, eta zugan bene benetan icharoten dabenac.

*Erreguchua. O Maria! Zugana nator eta zugan icharoten dot.*

*Egun guztiataraco Ama Donzella Mariari erregua.* p. 22.

### **OGUETABAT GARREN EGUNERACO.**

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Gorputza aurquituten dan edocin lecutan an batuco dira arranoac bere.*

*Luc. 17. 37.*

**M**unduaren asieran imiñi ehan Jaungoicoac Iurreco atseguin-ortu edo Paradisuarren erdian ibai edo iturri ugari ur garbizco bat, ortu ataco bedar ta landarac urtu, ezcotu eta guirotuteco. (Gen. 2.) Modu onetan, Elessa santaco ortuan bere imiñi dan, diño S. Juan Crisostomoc, Altaraco sacramentu santuco iturri Jaungoicozcoa,

gozatu, ezeotu, eta guirotutecó gure ari-mac, erne, ceitezan euretan virtuteceo lora ederrac, eta zoritu, eldu, ela umaotu santidadeco frutac. Berau gaitic Cristi-hau onac jarraitu eutsen beti iñoz aspertu baga, orein egarriz ito aguinean dagoana-ren guisan, Jaungoicozco Sacramento onen iturriari, eta beti aurquituten cituen bertan gozotasun, atseguin eta pozac gura betean.

Aita Baltazar Albarezec edocein lanetan jardun arren ecin arteric artu eban nosic beinean beguiac gora jaso, eta Altaracº Sacramento Santua egoan leeuruntz beguiratu baga: visitelan eban sarri, eta ascotan igaroten cituzan gau osoac bera-gaz. Negar egniten eban, ieusirie-mondu-co Erregue eta andiquien jaureguiac gentez beteric, guizon argal bategandic artu ceiquezan mesede eta onera urri, labur, eta egun guichi batru amaituco jacoezan batzue gaitic; barriz Erregue guzlien Erreguea gugaz lurrean amodiozco jarto-

qui bater ondasunic andi eta ugarienacaz aberasturic, eta guztiac aberastu gurarie vici dan Elessac, iñor baga, arima bat baga: eta esan oi eban guztiz andia zala combentuetan vici ciranen zoriona en queelaco euren escuan joatea Jaun andi onegaz Eleissan egotera edocein ordutan nai gabaz nai egunaz euren echetic urten baga.

¡Há neure Jaun guztiz maitetzallea! Aiñ ontasun andiagaz deituten deuztazun ezquiero, icusi arren nire duinbaguetasuna, eta zure amodioarentzat nire esquer charra, ez dot orain bildurtu gura neure argaltasunaren, eta egun ditudan pecatu aseo eta andien gomuteagaz, |jaquinic zuc edoceimbere pecatari ondu ciñiala. Ondu naizu, bada, ni pécatariric andien au, atera eguzu nigandic |zugana zucenduten ez dan amodio guztia: urrindu eguzuz nigandic zure gogoco ez dirán gurari guztiac, eta zure gloriaric andieneraco ez dirán asmo guztiac. ¡Neure Jesus, neure

amodia! ¡neure ondasunac! Guztiori zara neurea: zuretzat bacarric vici gura dot; zu bacarric zara nire amodioaren duiñ, eta zu bacarric maitetu gura zaitudaz neure viotz guztilatik. Aldendu nəguizu ceu ez zarean gauza guzlielatic: alcartu gaitcan bioc, mundu onetan ez bestean iñoz bere gueiago bata besteagandie aldenduco ez garcan moduan.

Erreguchua. *O Jesus, neure onerarie andiena! Ez eguzu onezquero laquetu zugandie nic iñoz alde egutia.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**Z**u gana nator, ó Jaungoicoaren Ama altsua eta Elessa santeac erruquiaren Ama deituten deutsun orregana! ¿Celan ucatu ciñaioe pecatariai ceure bitartecotasuna, izanic zú aiñ Jaungoicoaren gogocoa elaberac atzerapenaren apurric baga eguiten badou escatuten dentsazun guztia? Ez bedi

secula gueiagoaitatu zure erruquitasunic,  
diño San Bernardoc, aurquituten baldin  
bada iñor, bere premiña ta estutasunean  
zugana zucendu ezquiero entzun eta lagun-  
du baga ichi deutsazunic. Ez deuztazu ba-  
da niri bere ucatuco, deituten deutsuda-  
laco uste osoagaz. Bay, icharoten dot  
erregutuco dozula ni gaitic, neuc baño  
bere ardura andiagoagaz, eta jaretsico  
deuztazuzala, escatuten azartuten nazan  
baño bere mesede andiagoac. ¡O erru-  
quiaren Ama! Araco guztiac zugan aur-  
quituten daben ontasun andiac ¿celan  
ucatu lequiet bere laguntasuna, betico  
galduteco nagoan arriscuan? ¡O Maria  
erruquierra! Guztian naz zurea: lagundu  
eguidazu neure arimachu an salbetan.

Erreguchua. *Oerruquiaren Ama! Zure  
escuetan ichiten dot nire betico salba-  
cinoia.*

*Egun guztielaraco Ama Doneella Ma-  
riari erregua. pag. 22.*

## OGUETABIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Icusi dozue nire arimeac maite dabena?*

Cant. 5.

**E**billen era baten; liburu santuac aitatu-  
ten daben lagun edo esposea bere mai-  
tearen billa, ta ecin aurquituric, itandu-  
ten eutsen ardura andiagaz topetan citu-  
zan guztiai. *¿Icusi bai al dozue nire ari-  
meac maite dabena?* (Cant. 5.) Ez egoan  
orduan Iurrecan Jesus, baña orain edo-  
ceimbere arima maitetzallac billatuten  
badau Jesus, aurquitoten dau erraz eta  
laster Altaraco Sacramentu Santuan. Aita  
Avila veneragarriac esan oi eban: Elessa  
guztien artean gogocoena ebala, Jesus  
Sacramentadua aurquitulen zana.

*¡O neure Jaungoicoaren amodio neurri-  
bagacoa, beste neurri bagaco amodio  
baten duiña!* *¿Celan beeratu ciñan aim-  
besteraño ezcutetan ciñala ogniaren*

antzelan guizonacaz vici eta eureen vio-  
tzacaz batuteagaitic? ¡O Jaungoico guizon  
eguiña! Larregui beeratu ciñan, gueiegui  
maite guenduzuzalaco. ¡Celan ichiko  
deutsut nic maitetu baga neure violz eta  
arima guztiagaz, jaquinic certzuc egui-  
dituzan nire amodioa ceuganatutea gai-  
tic? Maite zaitut neure indar guztiacaz eta  
orregaitic naiago dot eguiñ zure boron-  
datea, neurea baño, eta neure osasuna-  
ren, ondasunen nai vicitzearen caltean  
izan arren. Nire poza dā zuri atseguiña  
emotea, neure Jesus, neure Jaungoicoa,  
neure amodioa, ta neure onera guzliac.  
Issiotu eguiñ nire violezan gurari vici  
vici bat, lagun eguiteco zuri Altara  
urrean al dodan guztian, eta sarritan za  
artzeko comuniñoe santuan. Zuc, Jauna,  
dei eguiten deutzazu Jaungoico lecu edo  
sagrario orretatic, ta ni izango nintzate-  
que gaisqui aci ta esquer charrecoena,  
erantzungo ez baneutsu. ¡Ay neure Jesus!  
Amaitu eguiñ nigan munduko gaucetara-

co-daucadan zaletasun, gurari ta garra-bada zugana bacar bacarric zucendu bear-dabe nire amodio ta asmo guztia. Ametan zaitut neure Jaungoicoaren ontasun guztiz maitegarria; eta ez dot beste gauzaric munduan maite, zu baño. Emendie aurrera ez deutset jaramonic eguingo neure atseguin, era, ta gurariai, bada gauza guztietañ eta beti gura dot eguiñ zure borondate santua. Ontzat artu eguidazu neure Jesus laztanā gurari au, orain artean pеeataria izan banaz bere. Lagundi eguidazu bete ta eguiatzuleñ ceure graciaren indarragaz. Orain artean vici izan banaz zorigaistoan Luciferren erara eta bere mendean, eguizu Jauna gaurtie gueiago vici naiteala zure aguindu santiac gordetan, ta izan nadilla zure amodioaren servitzariric cintzo, eguiazeo eta leialen bat.

Erreguchua, *Maite zaitut, ó amodiozko Jaungoicoa, eta mailetuko zaitut eriotzaraño.*

*Gurarizco Comuninoia*, p. 20.

## AMA DONCELLA MARIARI.

O Ester garbia! Zure ontasunac ez dau iñoz beragandic bota, here pecatuen damuagaz billatu zaituzan pecatariric. ¡Baña cer? ¡Uts eguiten ete dau Elessa santeac deituten deutsunean pecatarien bitartecoa? ¡Ah! ez bedi iñoz jazo nire pecatuen anditasunac iminlea eragozpen ez eztropezurie zure erruquitasunari, ceñetan daocazun pecatarientzat igueslecurie seguruena. Ez bedi iñoz jazo ueatutea bere laguntasuna, dei eguiten deutsan pecatalari bati, araco Jaungoicoaren Ama bigunac, ceñeganic jaio zan erruquitasuneco iturria. Zure eguiquizunic andiena da, Jaungoico ta guizonen arteco baqueac eguitea. Zure samurtasun andiac artu eraguiñ daizula niri lagun eguiteco gogo sendo bat, bada eein goitu leie nire peca tuac, euracaz ondo damulu ta garbaturie nagoan ezquero.

Erreguchua *O María, bitarteko gueu-*

*rea! Jarri zaitequez neure alde ta zaindu naguizu ceure semeac contuac arluten deuztazanean.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua.* p. 22.

### **OGUETAIRUGARREN EGUNERACO.**

Asieran egunero esateko erregua, p. 10.

*Ni aurquituten nabenac, aurquituco dau vicitza.* Prov. 8. 35.

Cristiñau asco joan oí dira Jerusalen eta inguruetacon tecu santu, Jesu-cristo gure Jauna sortu, jaio, vici, ta ill zanetara, igororic onetaraco bide lucetako nequeac, eta gente donga ascoren arteko arriseuac. ¡Ah! eta celan Cristiñau onen onerazpen eta devociñoe santu, ta nosbait larreguiac lotsatu bear dabent gure nagiutasun ta ardura guichia, bada euquiric gueure Elessetan gueure echeetatic pau-

su guichi barru, lecu santu aretan vici eta ill zan Jesus berbera, igaroten ditugu sarri egun osoac, ta batzuetan asco. Jesu-sen aurrera edolabere elduchu bat bere egun bagaric. San Paulinoc diño, arluten dabencan Jerusalenera doazanac Jesucris-to jaio zan ascaco edo egon zan obico edo sepulturako lurpusca bat, pozarren etorri oi dirala, ta ardura audiagaz gorderie ecarten dabeela: bada *ȝelaco* garragaz, eta celaco gurariacaz joan bear ezguen-duque gue Altaraco Sacramento santura, nun dagoan Jesus berberá, eta ez enqui-rie cer igaro onetaraco allaguiñaco bide lucetako neque ez arrisurie? Altaraco Sacramento Santuaren amodio andi bat Jaungoicoac emon eutsan Erliginoian vici zan batec iminten ditu bere carta baten berba oneec. Nie daucat icusiric neure onera guztiac jatordazala Altaraco Sacra-mentu santutic, nie ichi deutset mundu-co gauza guztiai, ta emon nachaco nazan guztiau Altaraco Sacramento Santuari.

Dacust ez jacuzala emoten, ecin contau  
beste doe ta gracia, billatuten ez dilugu-  
laco Sacramentu Santu onetan. Ezagutu-  
ten dot cein gogotic zabaldu gura litu-  
quezan Jesusec gure artean, Sacramentu  
onen bitartez bere gracia ugariac. ¡O  
ezcutapen edo misterio santua! ¡O hostria  
consagrada! ¡Nun eracusten dau Jaungoi-  
coac hostria onetan baño arguiroago bere  
escubidearen anditasuna? Hostria onetan  
dago Jaungoicoac gu gaitic eguin daben  
guzti guzlia. ¡cer dauque guc baño  
gueiago ceruco zorionecoac, baldin lur-  
rean gueure Elessetan badaucagu aimbes-  
te mirarien artean eurac ceruan danquen  
Jaungoicoa berberá? Eguizue aleguiña  
issiotuteco Sacramentu santu onen zale-  
tasun, amodio ta devociñoiaren ceñecaz  
berba eguiten daben guztiac. Nic onelan  
berba eguiten dol, bada Sacramentu san-  
tu onec ichiten nau, cetan diardudan be-  
re ez daquidala, conort baga, eta zoratu-  
ric. Ecin iñoz aspertu naz aimbeste amo-

dioren duin dan Sacramentu onen ganean berba egitez. Ez daquit nic cer esan, da ez cer eguin Jesus Sacramentaduaren amodioz. Alan amaitzen dau bero carteia.

¡O ceruetaco Serafinac! Zuec zagoce Jaunaren inguruau bere amodioan ssiöturic; eta alambere ez eban gura izan ceruetaco Erregue onec guelditu Sacramentu onetan zuec gaitic ez pada gu gaitic. ¡O Aingueru Santuac! Ichi eguidazue amodioz erre naitean, edozeuec erre, goritu, quiscaldu ta galddatu naizue Jaungoicoaren amodio santuan, guztioz batera issioturic vici izateco. ¡O neure Jesus! ezagutu eraguidazu guizonari deutsazun amodioaren anditasuna bere gomuteagaz gueroago gueituago eguin daquidan zu ametaco guraria. Maite zaitut Jaungoiko guztiz maitegarria: maite zaitut ez beste gauza gaitic ezpada ceuri alian jaotsulaco, ceue alau nai dozulaco, ceure ontasun bacar bacarra ta uts utsagaitic.

Erreguchua. *Neure Jesus! Zukan sinistuten dot, zugan icharoten dot, eta zu maite zaitut gauza guztien gañean.*

*Gurarizco Comuniñoia.* pag. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Maria gaztiz garbia! Gomuta zaite ez dala iñoz munduan entzun, zuri laguntasuna escatu deutsunic ceugandic bota dozula. ¡O María! Erregutu eguizu guztioe gaitic; baña batez bere ni gaitic, boda izanic ni besteac baño pecatari andiagoa, daucat zure erregu ta laguntasuren premiña andiagoa.

Erreguchua. *O Doncella doncellen Ama! Emolen deutsudaz neure viotza ta neure arimea.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua.* 22.

## OGUETALAUGARREN EGUNERACO.

Asieran egunero esateco erregua. p. 10.

*Zu zara eguiaz Jaungoico ezcutaúa.*

Is. 45. 15.

**A**ztertutene baditugu bere Jaunaren amodioac gugaitic egunin dituzan gauza guztiac, ez dogu bat aurquituco ceñctan obeto eguiatzuten dirán visita onen asieraco San Lucasen berbac, ceinda Altaraco Sacramentu Santuco ezcutapen edo misterio adoragarri onetan, nun dagoan gure Jaungoicoa guztiz ezcutaurie. Gure araguiz jantzi zanean ezcutau eban bere Jaungeicototasuna, eta aguertu zan lurrean guizon eguiñic: baña guero guelditu zanean gugaz Altaraco Sacramentu Santuan ezcutau eban guizatasuna bere; eta bacarric dacuzgu, diño San Bernardoec, oguiaren irudi bat, eracusteco modu onetan guri deuzcun amodio lareguia.

¡O neure Salbaguilla maitea! Guizonai  
deuzcuzun amodio aiñ andiaren gomuteac  
ichiten nau guztian mirarituri. Zuc Sa-  
cramentu Santu onetan ezeutetan dozu  
ceure anditasun eta gloria, guri deuzcu-  
zun amodioa gaitic; ta ez dirudi dauca-  
zula beste lan ta cereguinic, guizonac  
maitetu, ta maitelasunau eracustea baño.  
Baña eurac, ¡O Jaungoico andia! ¿Celan  
erantzuten deutsue? ¡O Jesus! ¡O guizo-  
nen amodioz zoratu jatzun maitetzallea!  
Ichi eguidazu modu onetan berba egiten,  
icusiric obeto beguiratuten deutsazula  
gure onereari ceure ondo izate ta on-  
dreari baño. ¿Ez al cenquian celaco irai-  
nac izango cenduzan guizonen aldetic  
Sacramentu Santu onetan? Nic dacust, ta  
nic baño obeto dacutsu zuc, munduko  
guizonen zati andi batec ez zaituala eza-  
gutu, ez adoretan Jaungoicotzat, Sacra-  
mentu Santu orretan. Nic daquit guizon  
oneec euroc bein baño gueiagotan oñaz-  
pietan zapaldu dituela hostria consa-

grauac, baita bere jaurtigui ta bota lurrera, locatsetara, ichasora ta sutara. Dacust jō neure Jaungoicoa! guichitu eta arindu bearrean cristināu ascoc zuri eguiñico irain oneec euren vicitza santu, zuganaco amodio, ta devociñoiagaz, datozala Elessara ta an dagozala ganora baga, gogo baga, alboetara beguira, mimberratuteco gueiago zure viotz samurra; edo ichiten zaituela bacar bacarric laguntasun baga, ta sarritan arguichu bat bere baga. ¡Ay Jauna! Eta cé pocic garbituco nituquezan neure beguietaco ma coacaz, eta pozagoric oraindic neure zanetaco odolagaz, araco lēcu zorigaiztoacoac, ceintuetan allaguiña mingoztu eben Sacramentu santu onetan zure viotz ain maitegarria. Baña uste baldin badozu ez nazala mesede onen diña, erabaguiten dot neuraz, albait sarrien zugaz egotea Sacramentu Altaracoaren aurrean, eta aleguiñezco esquerrac emotea, guizonac eguin deutsuezan irain eta injurien ordez. On-

tzat artu eguizu Jaungoico altsua, guizonic donguenen batec eguiten deutsun esquintzari labur au. Beguiratu eguiozu abegui onagaz, eta nastau eguizu ceure seme Jesusec Curutzeco Altaran emon eutsun, eta Altaraco Sacramento Santuan egunoro emoten deutsun atseguin eta gloria amaibagueagaz. ¡Ay neure Jesus! Baneuca neure escuan munduko guizon ta emacume guztiac zure amadioan issiotutea, ondo pocic eguingo neuque; naita igaro onetarako asmau al nai bague, neque ta loisari.

Erreguchua! *O Jesus guztiz maitegarria! Eguizu munduko guizon guztiak ezagulu ta amau zaiezala.*

*Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**I**Ama guztiz samurra! Badaquit zuc lagundu gura deutsezula pecatariai: bada emen daucazu zuri deiez pecatari andi bat. Lagundueguidazu arren. Ez dau guichi irabacico zure erruqui ta escubideac,

salbetan badozu milla infernuren duin dan pecatari bat. Badaquit andia dala ceure seme Jesusegaz daucazun escubidea, eta orregaitic zue errazto jarichi cinaidaz ain biar ditudazan gracia ta virtuteac. Jarichi eguidazuz bada arren, Jesucristori deutsazun amodia gaitic. ¡O Maria! Beti autortuco dot San Bernardoagaz, zu Jaungoicoagan, eta Jaungoicoaren urrengo, zareala nire icharopenie andiena.

Erreguchua. *O María! Erruquitu zai-te nigaz.*

*Egun guztiataraco Ama Doncella Mariari erregua. 22.*

---

### OGUETABOSTCARREN ECUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Eguinic esanecoa ta obedientea eriotzarrano. Philip. 2. 8.*

**S**an Pabloc alabetan dau Jesucristoren mempetasun edo obediencia, diñoala:

«Obedecidu eutsala bere Aita beticoari eriotzaraño. Baña Altaraco Sacramentu Santuan oscozaz aurrerago igaroten dá bere obediencia; bada emen ez bacarric obedecietan deutsa bere Aitari baíta bere guizonai, eta ez bacarric eriotzaraño, ezpaña munduae diraúan arte. Jatzitenda cerutic guizon baten esana eguite arren, eta dago Altara gañean guizonac nai dabuen arte, ta nai daben moduan. Añche dago cirquiñic egun baga eraguiten ezpadeutse: gueldituten dá iminten daben lecuan, nai aguirian custodia baten, nai ezcutauric sagrarioan: ez dau atzerapenic iminten eroan nai dabenean nai dala cale-etatic, nai echeetara: doa edoceiñegana comuniñoe santuan, nai izan justoa nai pecataria. Mundu onetan vici zan artean, diño San Lucas ec obedecietan eutsela bere Ama Mariari ta Aita usteco San Joseri; baña Sacramentu Santu onetan obedecietan deutse munduan diran sacerdote guztiai.

Ichi eguidazu gaur berba eguiten zugaz, ó Jesusen viotz guztiz maitegarria, ceñetacie urten eben Saeramentu guztiac; eta batez bere amodiozco Sacramento onec. Gura neuzquizu emon aimbeste honra ta gloria, ceinda emoten deutsazun ceuc Aita cerucoari Sacramentu Santu onetan. Ondo daquit altara orren gañean deuztazula amodio ain andia, ceinda euqui ceustan curutzean eseguita nigaitic ill ciñanean. Argitu eguiuz zó viotz Jann goicozcoa! ezaututen ez zaituen guztiac. Atera eguiuz aimbat lasterren ceure irabaci edo merecimentuac gaific garbi-lecu edo purgatorioco arima, ceure betico lagun edo esposatzat auturic daucəzuzanac; edo beinic bein, guichitu eta arindu eguiuz euren pena portitzac, eta laburtu eureen arroztasun eta erbestea. Nie alabau, adorau eta ametan zaitut ordu onetan, munduan, nai ceruan alabau, adorau, ta ametan zaituen arira guztiacaz batera. Quendu eguizu, ó viotz guztiz garbia, ni-

re vioztetic, munduko gaueen amodio bide  
bagaco guzlia, eta bete eguizu gañez  
eragin arte eeure amodio santuagaz. Jau-  
betu zaite, ó viozt guztiz biguna, nire  
vioztagaz, ain modutan ece, gaurtic sur-  
rera oso osoric izan dedilla guzlia zurea.  
Incau ta josi eguiuz nire viozean, ó viozt  
guztiz santua, oguela amairu urtean  
mundu onetan nire amodioa gaiti igaro  
cenduzan mingoztasunac, euren gomutea-  
gaz igaro daidazan nic eroapenagaz eta  
zure amodioz, munduko neque guztiac.  
Neure Jesusen viozt guztiz humildea, egui-  
naizu ni bere viozt humilla. Viozt guztiz  
otsana: iraatsi eguiroza nireari eeurearen  
otsantasuna, eta urrindu eguizu andie zu-  
re gogoco ez dan guzlia. Biurtu eguizu  
ceugana guzlia, ain modutan, ce, ez daiala  
beste gurariric euqui zurea baño. Eguizu  
azquenie, ez nadilla mundu onetan beste  
gauzataraco vici, zure aguindo santuac  
ciatz gorde, zu maitetu, eta zure boron-  
datea beti eguiteco baño. Ezaututen dot

asco zor deutsudala. [Ay Jauna! Zu gaitie ill ta amaituco banintz bere, utsa litzateque guztia, zor deutsudanaren aldean.

Erreguchua. *O Jesusen viotz dontsua!*  
*Zu zara nire viotzaren jaube bacarra.*

*Gurarizeo Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Raquel ederra! zú zara Janngoicoac gugaz eguin nai dituzan erruquitasunen gordetzallea. Ceuc dirauzcuzu : «Zugan dagozala ondasunac maite zaituenac aberastuteco.» Ea bada Andrea; aberastu eguiuz ceruco ondasunez, billatuten zaituen guztiac. Neure Ama maitea; egui dà pecatari andi bat nazala; baña egui dà bere, asco maitetu gura zaitudazala. Erruquitu zaite, bada, arren nigaz; ez naguizu bota ceugandic, ezpada lagundu eguidazn vicitzan eta hatzet bere eriotzan, elda naitean egunen baten zure arpegui ederra ceruan icustera. Alan uste dot.

Erreguchua. *Ama neurea! Jaungoicoaren urrengo beti izango zara nire icharopena.*

*Egun guztiatarako Ama Doncella Mariari erregua.* pag. 22.

---

### OGUETASEIGARREN ECUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

*Poztu zaitece ecin gueiagorano eta alabau eguzue ceuen Jauna, Sionen vici zarenac, bada ceuen erdian dago Andija, Israelgo santua.* (Is. 12)

**O**neure Jaungoico maitea! ¿Celacoac izan bear leuque gure atseguiñac, eta norao eldu gure viotzeco poza, jaquinic gueure erriaren erdian, güenre Elessearen barruan, gueure echetatic ur-urrean dagoala ta vici dala Altaraco Sacramento Santuan, santu guztien santua, Jaungoico eguiaztea, bera icusiaz beste baga ceruco santuac zorionecko eguiten dituzana, amodia berbera? Sacramento Jaungoicozco

au ez bacarric dá amodiozco Sacramen-  
tua, baita bere amodioa berbera, edo  
Jaungoicoa bera, ceñi, deuzeun amodio  
neurri baguea gaitic deitu oi jaco amo-  
dioa edo Caridadea: *Deus charitas est.*  
Baña nic dantzuzut neure Jesus ona char-  
to erantzuten deutsugula: « *Hospes eram,  
et non collegistis me* » Etorri ciñala  
mundu onetara gure oneraco, eta gueez  
cenduguzala artu gura izan, ez gueuntsu-  
la ostaturic emon gueure violz eta arime-  
tan. Alanche dá, errazoea daucazu, Jauna,  
errazoea daucazu. Ni naz onen arteco es-  
quer charreco bat, ichi zaitudazana ba-  
carric, nosie beiñean baño ezpada bere  
zugaz egon eta edolabere berbachu bat  
eguitera etorri baga. Castigau naizú gura  
dozun moduan, baña ez neuganđic alde  
eguinaz, ez neure Jauna, ez arren; bada  
ez naz izango orain artean laco lotsagal-  
duoa, nagui ta azaiera charrecoa. Emen-  
dic aurrera ez bacarric etorrico nachatsu  
sarritan, baita bere egongo naz aimbat

luzaroen zugaz. ¡O salbaguilla maitea! Eguizu izan naquizula leiala, ta ecarri doidazala emparau guztiac bere, neure on-bide edo egempluagaz, Altaraco Sacramento santun zuri lagun eguitarra. Nic dantzut celan diñoan zure Aita ceruacoa: «Au dá nire seme maitea, ceñetan daudazan neure atseguiñ guztiac. Orain bada jibaldin Jaungoico batec badaucaz zugan bere atseguiñ guztiac, celan ez ditut nic bere euquico zugaz egotean negarrezco erri onetan? ¡O su, guztia urtu eta ecerecera biurtutene dozuna! Amatau eta urtu eguizu nigan munduero gauzen gurari guztia; bada bacarric oneec dirá zugandic alde eraguin leiquidena. Aimbeste mesede eguiñ deuztazun ezquierro, eguidazu beste, orain escatuten deutsulan bat; atera egui zu nire viotzelic zngana zucenduten ez dan amodio guztia. Danau jarten naz zure escu bedeincatnetan; eta emoten deutsut berbea, igaroteco neure vicitza guztia, nai lucea, nai laburra, zu maitetuten. Al-

tarao Sacramento Santuan. ¡Neure Jesus Saeramentadua! Zu izango zara nire uste, icharopen, eta amodio guztia, alan vicitzan celan eriotzan. Emon eiquidazu astija ta ləguntasuna artuteco Elessaco Sacramento santuac ondo ondo prestauta, neure azquenengo gaiso ta egunetan, eta guero eroan naizu ceure Erreinu zorionecora. Alan guerta dedilla; alan icharoten dot.

Erreguchua. *O neure Jesus! Noz izango da, zu icusico zaitudazan egun zorionecoa?*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Maria Virginña gozoa! Esan bear deutsut orain San Bernadogaz: zú zara erro quitasunaren Erreguiña. Eta, ¿ceintzuc dirá zure mendecoac ezpada errucarriac? Zu erruquiaren Erreguiña, ta ni pecatari guztien artean errucarriena; beraz, zú zara nire berarizco Erreguiña, ta ni zure berarizeo mendecoa, eta berangaitic zue

euqui bear dozu ardura gueiago ni gaitic  
emparau guztiac gaitic baño. ¡O ceruco  
Erreguiña altsu ta neure bitarteko andia!  
Ondo daquizu nire premiñen barri zaindu  
naguizu, ta erruquitu zaite uigaz. Bai, ar-  
ren, bai.

Erreguchua. *O ama graciazcoa! O ama  
erruquitsua!* Zure bitartecotasunean  
daucadaz neure icharopenac.

*Egun guztietaraco Ama Doncella Ma-  
riari erregua.* pag. 22.

---

### OGUETAZAZPIGARREN EGUNERACO.

Asicran eganoro esateco erregua. p. 10.

**E**lessa santeac Corpusco erreuetan di-  
ño: *Ez dago Erreiñu ain andiric bere  
Jaungoicoac ainurrean daucazanic, cein-  
da daucagun gue gueure ondoan gueure  
Jaungoicoa.* Gentillac entzunic gure  
Jaungoicoaren amodiozeo eguitadac esan  
oi eben. ¡Ce ona dan Cristiñauen Jaun-

goicoa! ¡Ce ona dan! Eguiaz, gentillac asmetan bacituen bere, euren era ta go-goco Jaungoicoac, ez dogu iracurten euren liburuetan otu jaquela iñoz asmetea Jaungoicoric, gureac bestean guizonac maite cituzanic; bada onec eracustearren bere jarraitzallai eutsen amodioa, eta aberrastutearren ceruco ondasunacaz, eguiñ eban amodiozeo mirari au, gueratutea gugaz gueure betico lagun eguiñic, ezcuaucie gau la egun Altara barruan unechu bacar baten bere gugandic alderic ecin eguiñ baleu leguez. ¡Há neure Jesus guztiz gozoa! Badaquit eguiñ cenduala ceure mirariric andiena, eguiatzu eta betetearren beti gugaz egoteco ceuncan eta daucazun gurari larregua. Baña geergaitic, Jauna, igues eguiten dabe guizonac zure aurretic? ¿celan vici leitez aimbeste demporan zugandic aldenduric, nosic beiñcau baño ezpada bere zugaz guichienez ego-taldi ta berba aldichu bat eguiñ baga? Ordu lauren bat zure aurrean eguiten ba-

dabe guiza aldi bat begitanduten jaque:  
ain dā andia euren naguitasun ta gogo  
charra. ¡O neurre Jesusen eroapen edo  
paciencia, cein andia zarean! Baña, ba-  
daquit cergaitic dan ain andia, andiagoa  
dalaco guizonai deutsezun amodioa; eta  
onec zaucaz loturic iñoz alderic eguin  
baga, ain esquer charreco guizonac gandie.

¡Ay neurre Jaungoico, izanic amaiba-  
guea ceure onoidade edo perfecciñoe  
guztietan; amodioan bere amaibaguea  
zareana! Ez eguidazu ichi izaten orain  
artean leguez, zu ganaco ain esquer  
dongacoen artecoa. Emon eguidazi, eu-  
qui bear nenzquizun besteco amodioa. Ba-  
zan dempora bat (zori gaistoco demporea)  
ni bere laster aspertutene nintzana zugaz  
egotez, maite ez cindudazalaco, edo guichi  
maite cindudazalaco: baña baneuzquiza  
bear neuzquizun amodioa, erduan, neurre  
Jesus Sacramentadua, ez niutzateque as-  
pertuko zugaz egotez gan ta egun osoetan  
bere. ¡O Aita beticea! Esquintzen deutsut

ceure seme maitea berbera; eta bera gaitic escatuten deutsut Altaraco Sacramentu santua ganaco amodio aiñ andia, ce, gomutetan nazanean beragaz, edo igaroten nazanean Jesus Sacramentadua dagoan Elessaren baten urretic, issiotu dedilla nire viotza, beragana joan eta beragaz al dodan guztian egoteco gurarietan.

Erreguchua. *Neuré Jaungoicoa! Jesusen amodioa gaitic emon eguidazu Altaraco Sacramentu Santua ganaco amodio vici bat.*

*Gurarizco Comuninoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**J**aungoicoac gorde zaizala, ceruaren berarizco edergarri, ta guizonen gordeitzallea. Jaungoicoac gorde zaizala, betico Erregueareb Ama, mila bidar zorionecoa. Zuc, Andrea, ceure seme Jesusen urrengo, daueazu gauza guztiag, aguintaritza. Zuri, guiza aldi guztiak, eta guiza aldi

guztietaco Adanen semeac, macurtutene  
deutsue burua. Ceure oñazpian daueazu  
munduaren zabalera guztia. Zure icena  
entzunaz beste baga izaratuten dirá De-  
moniac. Zure arguiagaz igues egniten  
dabe illuntasunac; eta zure esanera idigui  
eta zabal zabalie guelditutene dirá erreco  
amabi aleac. ¡O Jesusenurrengo Cristi-  
ñauen icharopena! ¡O erruquiaren Erre-  
guinal! ¡O vicitzaco gozotasuna! Zugana  
nago eizpuruz negarrezco leen onetan. Ea  
bada Andrea, gueure bitartecoa, biurtu  
eguizuz guganuntzeure begui erruquitsu  
orreec, eta erbeste onen ondoren eracu-  
tsi egniguza Jesus, zure sabéleco frutu  
bedeincatua, guiza aldi guztietan vici eta  
beti aguinduten ta aguinduko dabena. ¡O  
viotz bigun, ó erruquier, ó Maria Virgina  
gozoa! Amen Jesus.

Erreguchua. *O Maria! Zure icen san-  
tua izango da nire jaolea.*

*Egun guztietaraco Ama Doncella Ma-  
riari erregua.* p. 22.

## OGUETAZORTZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esateco erregua. p. 10.

**E**mon ezquero Jaungoicoac bere Semea berbera, San Pabloc dirauzun leguez ;ce. Ian bildur izan guinaitz ucatuco deuzcula escalutendentsagungauzarie? (Rom 8, 32.) Gue daquigu Aita beticoac emoten den tsala Jesueristori dauean guztia. Alabau eta bedeincatu daigun bada gure Jaungoicoaren ontasun, erruquitasun, eta ugari lasuna, aberastu gura izan guenduzalako ceruco ondasun guztiacaz emonaz guri Altaraco Sacramentu Santuan Jesu Cristo gueure Jauna.

¡O munduaren salbaguilla maitea! ¡O Jaungoico araguitua! Nic ardura baga ;esan neique, neurea zareala ta guztiori neurea, neue gura dodanean, baña ;esan ete neique cenrea nazala ni, ta guztiau ceurea ceuc gura dozunean? ¡Ah neure Jesus

ona! Eguizu ez dedilla gueiago munduan icusi onelaco lotsabagaqueriaric. ¡Cer! Izanic zu neurca neuc nai dodan guzlian jez naz ni izango zurea ceuc nai dozun guzlian? ¡Ce guichi Jauna gueiago onelacoric! Orainche eimen bertan opa eta esquintzen deutsut oso osoric eta beti betico neurte viotz guztia. Esquintzen deutsut neurte vicitza, neurte borondatea, neurte gurari, asmo, esate, ta eguite guziac. Agur eguiten deutset betico munduko gauza guztiai zure aguindupean beti vici-tea gaitic. Erre naguizu centre amodio jaungoicozcoaren garretan. Ez dot nai cer icusiric euqui daian onezquero mun- du onetaco gauzac nire violzean. Eguin dituzun aleguiñac, eracusteco niri ceus- tan amodioa, nic maite ez cendudazanean sinistu eraguiten deuste artuco nozula orain maite zaitudanean, eta guzliau cen- re mendean jarri nazanean.

¡Aita ceruoa! Nic esquintzen deutsu- daz ceure seme maite Jesusen viotz guz-

tiz santuaren onera ta virtute guztiac. Artu eguziz nigaitic eta nire icenean. Eurac gaitic, neure neureac diran ezquierro, Jesusec neuretzat emon deutzazalaco, emon eguidazoz Jesusec niretzat escalzen deutsuzan arimaco onera ta virtute guztiac. Euracaz emoten deutsudaz egun deutzazuzan mesede guztien esquerrae: curacaz paguetan deutsut neure pecatuen zor andia. Euren bitartez uste dot emongo deutzazula bear dodan guztia; neure pecalu guztien paracacione oso osoa; neure azquenengo arnasaraguiño zurc adisquide-tasunean irauteco gracia; guero betico gloria; eta guztien gañetic zuganaco amodio garbi eta guztiz issiotu bat. Ondo da-quit, onetaraco eragozpen andiac imini ditudazala neure aldetie; baña guztia goitueo dau zure escubide andiac. Nic escatulen deutsut Jesucristori deutsazun amodia gaitic: ceñec aguindurie deuscul emongo deuzcuzula bere icenean escatzen deutsugun guztia. Ez dot nai nic beste

gauzarie, ezpada zu ametea, eta ez izatea zu ganaco esquer charrecoa orain artean zorigaistoan izan nazan leguez. Entzun nagizu Jauna: autortu eguidazu escatzen deutsudana; egoizn gaurcoa izan dedilla, zu beti beti amelaco zugana guztiz biurtzen nazan eguna. Ametan zaitut neure Jaungoicoa; ametan zaitut ontasun neurribagaea; aurretan zaitut neure amodioa, neure maitea, neure laztana, neure cerua, neure osagullia, neure vicitza ta neure gauza guztiac.

Erreguehua. *Neure Jesus, gaztia neurrea: ceuc nai deuzlazun ezquiero neurre bere nai deutsul.*

*Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Ama biguna! cein andia dan nire vio. tzae artzen daben poza, gomutetan dodan bacochean, Elessa santeac letañetan eta zure seme alabae sarritan emoten deutsuen icen gozoa, dirautsuenean. «Mater

amabilis» Ama maitegarria» Eguiaz, Andreia, zu zara munduko eta ceruko guztien artean samurrena, garbiena, bigunena, santaena, eta maitegarriena. ¡O eta guztiae ezagutu, eta maitetuco bacinduez bear leuqueen ta zor jatzun añañ! Orra, Erreguiña ederra, nic orain gura neuqueana. Gura cenduquedaz maitetu guztiliz asco. Baña nire indar laburracaz jaretsi ecin dōdan amodio au, jaretsi ciñaiquet zue Jaungoicoagandie. Jaretsi eguidazu arren; nic auspazturie erregutu ta escazen deutsut. Gaurtie gueiago ez bacarric izango naz zure servitzaria, baita bere gura neuque izan zure servitzariric cintzo eta leialena. Alan guerta dedilla. Amen.

Erreguchua. *Erreguiña guztiliz maitegarria! Alcantzau eguidazu amodio uts ta garbizeo doea.*

## OCUETABEDERATZIGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esatocco erregua. p. 10.

*Atean nago deiez.* (Apoc. 5.)

**O**artzain guztiz maitegarri, aspertu baga bein bacarric ilteagaz, curutzeco altaran ceure ardiac gaitic, gura izan cendua, na guelditu Sacramentu Jaungoicozco orretan gure Elessetaco altaretan munduaren güeneraño gugaz beti egotearren! ¡Ay! Banequi nic ateraten al neiquezan onera ta mesedcac zure laguntasun gozagarritic, zure lagun edo Esposa santeac leguez, ceñec esan oi eban: «*Ni jarri nintzan araco asco gura neutsanaren querizpean*» (Cant. 2.) ¡Ah neure Sacramentu maitea! Maitetueo bacindudaz bene benetan, orduan bai garaco neuqueala egon belaunico gau ta egun osoetan custodia baten oñetan, edo Sacramentauric zagozan Altara aurrean atsedeten neure Jaungoicoaren ondoan, ceñegan aurquito-

co mituquezan, viotzetic maite zaitueza-  
nac aurquituten dituen atseguin zoragar-  
riac. ¡O Jauna! Eroan naizu ceugana, ceure  
edertasunaren, eta sacramentu onetan-  
eracusten deuzcuzun amodio neurribaguea  
ren locarriacaz. Bay neure Salbaguillea!  
orduan ichico deutset guztiz munduko  
gauzai, eta juango nachatzu arin aringa sa-  
cramentauric zagozan lecura. ¡O cé aur-  
rerapen andiac eguiten dituen virtuteco  
bidean, araco arima dontsu, zugana etor-  
reric, eguiten dituezanac zugaz egotaldi  
luceac altara aurretan amodioz beteric!  
Baña ni lotsa nazzure aurrean aguertuten  
neure arimea billosic, edo virtuteen so-  
ñecoacaz jantzi eta apaindu baga dodala.  
Zue daucazu aguinduric ez ditezala utsic  
etorri altara aurrera jatortsuzanac: » Ez  
zara aguertuko nire aurrean esquintzari  
baga.» (Ezod. 23) ¿cer eguingo dot bada nic?  
¿Ez etorri zugana? ¡Ay neure Jesus guz-  
tiz maiteal! Ez da au zue nai dozuna. Etor-  
rico nachatsu utsic eta billosic; eta ceuc

bete eta jantzico nozu ceure virtuteen soñeco ederracaz. Badaquit onetaraco guelditu ciñala sacramentu orretan; ez bacar, rie emoteco sarija maite zaituenai, baita bere erregututeco ceure Aita beticoari gupecalarioc gaitic, eta aberastuteco gú ez euqui edo pobre errucarrioc.

Ea bada Jauna: asi zaite bereala; entzun naizu arren, erruquitu zaite nigaz, eta poztu eguiyu zure servitzari errucarri au. Nic adoretan zaitut jó neure viotzeco Erreguea, ó guizonen maitetzalla eguiazcoa, ó artzain ceure ardiac maiteegui dituzuzana! Zure amodiozco jarleku onetara natoritsu, eta ez daucadan ezquiero beste cer esquiñiric, esquintzen deutsut neure viotz epel, otzitu eta izoztua edo leitua gueratu dedin zure amodiozco garretan berotu eta gorituric: garbitu eguidazu Jauna, eta imiñi eguiyu loturic zure bordonate santearen mempe ta catigarioan. Eguiyu batu ta alcarty gaiteala, zugaz neure eguilla orregaz ecinda gueiagoan:

aztu nadilla neure buruaagaz eta munduko  
gauza goztiacaz; eta ez daidala neure go-  
goan beste gauzaric euqui, zu maitetu eta  
zure naia beti eguitea baño. Maite zaitudaz  
neure Jesus Sacramentadua; maite zaitut  
neure viotz guztitic, neure arimaco almen,  
eta gorputzeco centzun guztiacaz.

*Erreguchua. Jaun maitetzallea! Egui-  
zu ez nadilla zugandic iñoz aldendu.*

*Gurarizco Comuniñoia.* pag. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** ceruetaco Erreguiña! Zuc daucazo,  
ceugana zucenduten jatsuzan pecatari  
guzlien bitartekoaren icena. Ea bada An-  
drea, zuri jaotsun ezquero laguntasuna  
escatuten deutsuen pecatari guztiac gor-  
detea, orra nun daucazun gaur pecatari  
au, Santo Tomas Villanuebacoagaz dirau-  
tsuna: Ea Andrea, gueure bitarteko, ez  
deutsut besteric eguiten ezpada gogoratu  
eragin ceure lan, eguiquizun edo car-  
gua. Artu eguizu bada ceure contura gu-

gorde eta zaindutea. Eguia dá dempora  
lucean izan nazala pecatari andia: baña  
¿celan izango dá? Onezquero caltea egui-  
ñic dago, orain barriz zuc osotu daiquezu,  
zuc lagundu cinaiquet. Ni guztiz damutu  
eta garbaturic nago, eta alan zuc esaten  
badeutsazu Jesucristori parcatu daidala,  
ez dago bildurric, berac guztia parcatuco  
deust eta salbauco naz.

Erreguchua. *O erreguiña goratua! Artu nagizu arren ceure mempeco, otsein ta servitzaritzat.*

*Egun gurtietaraco Ama Doncella Mariari erregua.* p. 22.

---

### OGUETAAMARGARREN EGUNERACO.

Asieran egunore esateco erregua. p. 40.

*¿Cergaitic ezcutetan deuztazu ceure arpegquia.* (Job. 14.)

Bildurrez icara gueldituten zan Job santu-  
a, icusten ebanean ezcutetan eutsala

Jaungoicoac bere arpeguia; baña ez dau, cagu gue cetan bildurtu, ezcutetan deuzculaco Jesueristo gure Jaunac altaraco Sacramentu Santuan bere arpegui eta anditasuna; ezpada artu beraugaitic uste bete eta poz andi bat; cerren aguertuko baldin baleu ceruco Erregue andi onec altaraco Sacramentu Santuan bere anditasun ta itzala ñor azartuko litzateque beragana urreratu, eta adierazoten, bere gurari ta premiñac.

¡Ah neure Jesus! Zu ezcutetan zachacuz Sacramentu Santu orretan oguiaren irudian guizonac amodio gueiago cuqui dei-zuen, eta aurquitu cinaiezan billatu nai cenduezanean. Errazoea eucan Isaia s Igarleac ciñoanean: Deadar andiaeaz adierazo eta zabaldu eguzieza mundu guztitic, certzue asmetan cituzan gure Jaungoico onac guizonen oneraco. *Notas facite in populis adinventiones ejus.* (Is. 12.) ¡O neure Jesusen viotz mundu guztiko vio-tzen duiña! ¡O viotz, guztiori guganaco

amodioric gorienaz betea! ¡O su vici,  
atrapetan dozun guztia urtu, austu eta  
ecerecera biurtzen dozuna! Erre eta quis-  
caldu naizu guztian. Emon eguidazu vi-  
citzar barri bat, ceure gracia ta amodiozco  
vicitza bat. Lotu naguizu zure boronda-  
teagaz, iñoz bere zugandic alderie ecingo  
dodan moduan. ¡O viotz beti idigoia, ari-  
men gorde lecua izateco! ¡O viotz nire  
pecatuac gaitic curutzean ain samindua!

Emon eguidazu neure pecatu guztiendu-  
mu, garbai, ta gorroto guztiiz andi bat.  
Ondo dazaut, curutzean esegoitia ni gaitic  
ill ciñanean enqui ceustan amodioa berbe-  
ra, deuztazula gaur bere Sacramentu san-  
tu orretan; eta orregaitic daueazu ni  
ceuganduteco gurari ain andia. ¡Iraungo  
ete dot dempora guciagoan zugandie al-  
dendurie? ¡O neure Jesus maite maitea!  
Zure neque eta Pasinoeco irabaci edo  
merecimentuac gaitic zauritu naizu, alra-  
pau naizu, lotu naizu, eta ceure viotzari  
josi naizu. Nic gaur erabaguiten dot gor-

detea ecin da obeto zure aguindu santuac,  
eta zure borondatea beti beti eguitea. Bai,  
gaur danic osticopetuco ditut munduco  
esamesac, neure gurari bide bagacoac,  
neure gorputzac nai lituquean atseguin ta  
ereguac, eta zure esan ela aguinduac  
gordetaco aurquitu al neiquezan estrope-  
zu, aldapa ta eragozpen guztiac. Emon  
eguidazuz gracia guztiz andi ta eraguillac,  
eguiatzuteco neure vici moduagaz, miña-  
gaz diñodana; eta neurtuteco beti neure  
gogoraciñoe, esate, eguite, ta gurari  
guztiac zure borondate santuagaz. ¡O  
Jaungoicoaren amodioa! Atera egnizu ni-  
re violettic, aurquituten baldin bada,  
amodio bide bagacoric mundu onetaco  
edoceimbere gauzataraco. ¡O Maria Jaun-  
goicoaren Ama! Ez dago zuc Jaungoicoa  
gandie jarichi ecin cinaiquean gauzaric;  
jaretsi eguidazu bada Jesucristoganaco  
amodio guztiz bero, goritu, issiotu, eta  
garbi bat. Egnizu maitetu daidala neure

viotz eta arima guztiagaz azquenengo ar-  
nasaraño. Alan izan dedilla. Amen.

Erreguchua. *Jauna! Batu bedi zugaz  
nire arimea eta artu naguizu betico.  
Alan izan dedilla.*

*Gurarizco Comuninoia.*, p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Ama maitetzallea! Zu zara san Buenaventurac dirauzcun leguez: Ume zurtzen Ama. Eta *¡ceintzuc dirá Umezurtzac ez-pada ceruco Aita galdu daben pecatari errucarriac?* Zu gana nator, ó erruquiaren Ama! Nic galdu dot neure Aita ceruhoa, galdu dodalaco bere gracia pecatuaren bitartez, baña alambere egoera negar-garrizco onetan, zuc ncure Ama maitea, zuc lagundu cinaiquet. ¡Ay! eta celan poztutene dabeen nire viotza Inocencio Aita santu irugarrenac zugaitic diñozan berba oneec. *¡Entzun bada inoz gortu zachacozala dei eguin deutsunen bati?*

»Galdu bada iñoz bere pecatuen daimuagaz laguntasuna escatu deutsunic? Ez da besteric galtzen zugana zucenduten ez daña baño.» Zugana nator bada gaur neure Ama maitea; erruquitu zaite nigaz; ez naizu ceugandic bota, lagundi eguidazu, bada zu neure aldetik zaitudazala, dudatzaca izango ditut betico zoriontasunac.

*Erreguchua. O Maria! Artu naguiza ceuretzat eta alacoa leguez dendatu zaitte ni salbetaco lanetan.*

*Egun guztietaraco Ama doncella Mariari erregua. 22.*

## ILLAREN

### OGUETAAMAICAGARREN EGUNERACO.

Asieran egunoro esatcco erregua. p. 40.

*Ezagutuco bacendu zuc Jaungoicoaren doea.....! Joan. 4. 40.*

**A**ndia izan zan Jesucristoc Samariaco emacume ain entzunari eracutsi cutsan

amodia, jarriric Sicargo iturriaren ondoan, egon jaconeau bere zain beragana ecarri eta salvetaco; baña andiagoa dá oraindic guizon guztiai eta bacochari eracusten deutsen amodia, jatsiric eguno gerutic gure Altaren gañera, nun dagoan gure zain, eroan nairic beragana bere arima maiteac, beragaz egotera dempore pusea baten baño ezpada bere, issiotuteco bere amodio Jaungoicozcoan. Jesus Sacramentadua dagoan edoceimbere Altaratic dirudi eta beguitanduten jat dirauscula: Guizonac jergaitic igues eguiten dozue nire aurretic? jergaitic ez zatocee, jergaitic ez zare urreraluten, aimbeste amodio deutsuen eta zuet gaitic aīn humildu eta beeratric nagoan onegana? jergaitic bilduriulen zaree? Ez nator ni orain mundua juzguetara; ezpada nago sacramento onetan eguiteco guizonai misederic andienae, eta eroateco cerura neugana datozañ guztiaec.

Arima Jaungoico zaleac: jaquin eguihue

Jesucristo gure Jauna dagoan leguez ce-  
ruan viciric erregututen beti gugaitic, alan  
altaraco Sacramentu Santuan bere beti  
diarduala erregututen gugaitic Aita cern-  
coari esquintzen deutsala gu gaitic bere  
gorputza; onelan gugaz baquetu eta adis-  
quideturic jaristeco guri esan al bano  
onera ta mesede andiagoac. Orregaitic  
esaten eban Cristiñau on batec: Joan bear  
guenduqueala Jesus Sacramentaduagaz  
egon eta berba eguitera, uste osoagaz, eta  
bildurraren apurric baga, gueure adis-  
quideric andienan bategana leguez.

Bada Jauna, ain andia dan ezquiero zu-  
re niganaco ontasuna, ichi eguidazu idigi  
daizudan neure viotza; eta esan daizudan.  
¡O neure Jauna! ¡O arimen maitetzallea!  
¡Cein andia dán guizonac zu ganaco dau-  
quen esquergabetasuna! Ceue maite ditu-  
zu eurac, ta eurac ez ceu: eguiten deutse-  
zuz ecin esan beste mesede, eta eurac  
ez deutsue emoten atsacabea bāño. En-  
tzun eraguin nai deulsezuz ceure dei

amodioz beteac, eta curac tapetan ditue belarriac; esquintzen deutsezuz gracia mueta guzliac, eta curac ez ditue artu nai ;Ai neure Jesus! ¿Eguia ete dà ni bere nozbait izan nintzala oneen moduko esquer charrecoa? Ay neure Jaungoicoa! ,Bai, eta celan bere dan! Baña ez bacarric ez nachatzu aurrerantzean onelacoa izango; bait a bere ateraco ditut orain arteko utsac; eta emongo deutsudaz lengoen ordeac. Aguindo eguidazu nai dozun guztia, bada prest nago ecetan bere utsic eguin baga obedecietaco. Adierazo eguidazu neure Confesore, guraso, eta neure nagusien bitartez, cerren bereala egungo dot guztia. Neure Jaungoicoa : bene benetan erabaguiten dot gaur, gordetea albait ondoen zure aguindu santuac, eta eguitea gauza guztietan zure borondate santua; naita onetaraco galdu neure osasuna, ondasunac eta vicitza bera. Bai, galdu bedi bear bada guztia zure legue santua gordetearren. Zorionecogaldupena

zure leque santua gordetea gaitic datorrena. ¡O neure arimaco Jaungoicoa! Ametan zaitut ontasun amaibagaco ori; ametan zaitut munduco gauza guztiac baño maitegarriago ori. Gura neuque batu neure viotz chiqui eta otz au ceruco Serañen amodiaz beterico guztienacaz. Zú bacarric maite zaitut; zu bacarric maitetu gura zaitut orain, guero ta beti. Alan izan de dilla. Amen.

Erreguchua. *Jauna, cuqui naguizu ceure escutie, erruquitu zaite nigaz.*

*Gurarizco Comuniñoia.* p. 20.

### AMA DONCELLA MARIARI.

**O** Maria Virgiña gozoa! Jaungoicoaren Ama eta pecatarien bitartecoa! Beguiratu eguzu onuntz, entzuteco zure servitzari donga baten erreguac. Eguizu izan nadilla beti zure gogoco, eta zue aseoa maite dituzunen artecoa. Garbitu eguzu nire arimea, ¡O Doncella garbia pecatuen

orban guztietaic. Quendu eguzizuz nire arimatic ceure gogoco ez diran gauza guztiac: aldendu eguizu nire viotzetic munduko gaucetaraco etsiguitasun eta eraspen bidebagacoa; eta sartu eguizu onen lecuan, ceruco gaucen gurari ta amodio vici bat. Erregutu eguiozu nigaitic ceure seme Jesusi, orain, guero eta beti, batez bere neure eriotzaco orduan ; eta araco egun icaragarrian, ceñetan emon bearco dodan neure vicitza guztico gogo, esate, eta egnite guztien contu ciatz eta estua. Lagundu eiquedazu, zure bitartez igues daidan betiko penetatic, eta jaretsi daidazan amaibagaco atseguiñae. ¡O Doncella guztiz garbia! Ez eguzizuz iñoz bere aldendu ni gandic zure begui erruquitsu orreec. Zucendo naizu gauza guztietan, eta gorde naizu arimaco eta gorputzeco gach guztietaic. Librau eguizu erri ta Erreiñu an, guerra, gose, gorriña, izurri eta luicaretatic. Azquenik escatuten deutsut neure senide, ezagun, adisquide,

arerio, onguilla, ta gaisquillae gaitic, gor-  
deric zucen Jaunaren aguindu santuae  
mundu onetan, izan gaitean zorionecoas  
betico glorian. Amen.

Erreguchua. Neure Ama Maria! La-  
gundu eguidazu, erruquitu zaite nigaz.

Egun guztietaraco Ama doncella Ma-  
riari erregua. p. 22.

---

BATEOAN EGUINDACO ESQUINTZARIAC  
BARRIZTETACO ERA EDO MODUA.

**N**eure Jaun eta Jaungoicoa: nic N. de N.  
barritzeten ditut gaur arimaco pocie an-  
dienbgaz neure bateo santuco egun zorio-  
neean eguin neutsuzan esquintzari guz-  
tiae. Bai: esquintzen deutsut barriro,  
gorrotoz beguitatnteco deutsedala Satana-  
si, eta bere asmo donga guzliai, jarquico  
nachacuela, ta goituco ditudazala zuru  
laguntasunagaz batera bere esetsi eta  
tentaciñoe guztiac. Esquintzen deutsut

gorrotoz beguiratueo deutsadala mun-  
duari, bere arroqueriai, bere zoraqueriai,  
ta opa deuztazan andiqueria, ta atseguin  
irudi utsecoai: ez deutsedala jarraituco  
bere apainduria ta jantzi eroai, ez bere  
legue ta iracatsi dongai, ez bere ecandu  
gaistoi, ez da jarmonic egun bere esa-  
mesai. Esquintzen deutsut gueroago  
batuago eguingo nazala Jesucristo gure  
Jaunagaz; sinistu ta autortuten dodala  
bere legue ta iracalzi santua. Esquintzen  
deutsut gordenco ditudazala amar aguindu  
santuac, Elessa sancarenac, neure bera-  
rizco egun bearrac, eta jarraituco deu-  
tsadala gogotic ceruco bideari. Azquenic,  
esquintzen deutsut vicico nazala, bateo  
santuauan Jesucristori esquinita dagoan  
bat i jaocan leguez. Alan gura dot, alan  
esquintzen dot, eta uste dot betetea gu-  
rari ta esquini au zure laguntasunagaz  
batera azquenengo arnasara artean. Alan  
izan dedilla Aitearen, ta semcaren, ta Es-  
piritu santuaren icenean. Amen.

## JESUS SACRAMENTADUARI

### BEDERATZI URRUNA.

Bedeincatua ta alabadua &. Curutze santearen.

**C**eure Jesus eta Jaungoicoa; neure Eguillea, neure salbaguillea, ta gloria emolea, ceñegan sinistuten dodan, ceñegan icharoten dodan, eta ceim adorau eta ametan dodan gauza guzlien gañean; neure pecatuen damuric andienagaz nator zure aurrera: eta etzuten naz zure oñetan, ezaguturic peccatu eguin dodala ceruaren aurrean: damu dot milla bidar zu ofendida zarealaco ontasun amaibaguea, artu eguizu, Jauna, nire pecatuen amodiozco damua, gueitu eta osotu eguizu izan dedin sendoa, confesetaco eta ez iñoz gueiago pecaturic eguiteco artuten dodan gogota asmoa. Eta ceure adisquidetasunean artuteagaz, eguingo deuztazula uste dodan mesedearen ordez, erabaguiten dot euguitea zuri eraaspentzat devoción guztiz

andia Altaraco Sacramentu santu orretan,  
nun alabau eta bedeincatuco zaitudazan  
neure vicitza guztian. Amen.

*Gaur beguiratuko deutsagu Altaraco  
Sacramentu santuari, Jaungoicoa dán  
aldetic.*

### ERREGUA.

**J**aungoico guztiz Andi, ta beti beticoa,  
ceñen aurrean bildurrez icara dogozan  
Garrainguero edo Serafinic altuenac, eta  
mirarituric zure anditasun neurri baguea-  
gaz, ez dabe besteric eguiten espada esan  
iñoz aspertu baga: santua, santua, san-  
tua: batu gura izan dituzuna Sacramentu  
adoragarri orretan ceure onoidade guz-  
tiac; artu eguiuz nire esquer onaren  
ezangarritzat ceruco zorioneco guztiac  
euren izatea dauquen ezquero emon deu-  
tsuezan ta emoten deutsuezan alabantza  
guztiac; santu guztiac ceruan sartu ciran  
ezquero emon deutsuezanac; eta mun-  
duan izatea dauquen gauza guztiac orain

artean emon deutsuezan, eta beticoiraun guztian emongo deutsuezanac; eta erre-gututen deutsut argitu daguizula nire arimea guztizco fede vicibategaz, ezagu-turic sacramentu santu orretan deuztazun amodioa, euqui deizudan ordeaz albait andiena ta emon deizudazan esquerrac iñoz aspertu baga. Amen.

*Orain errezauco dira sei Aita gurea ta Ave Maria, ta guero esango dirá urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

**Z**ú zara neure Jaungoicoa, eta autortuco zaitut beti Sacramentu guztiz santu onetan.

Zú zara neure Jaungoicoa, eta emongo deutsudaz alabantza andiac.

Autortuco zaitut beti, nai izan dituzu-zalaco entsun nire escariac baqueco lecu orretan.

Goratuco dot nazan arte guztian zurc icen santua, orrela eracusten dozulaco niganaco erruquia.

Zú bacarric zara Jaungoicoa; eta ez dago besteric zu baño. Zú bacarric santua. Zú bacarric Jauna. Zú bacarric guztiz altua. Zú zara Aitaren arguitasuna. Bere izatearen irudia. Argitu eguizu nire adina, eta quiscaldu nire viotza zure amodioan.

*Emen escatuco deutsa baco chac Jesus  
Sacramento duari bederatzi urrun onen  
bitartez jarichi gura daben.*

*Gaur ta beste egun guztietañ bere,  
esango dà azquenean urrengo.*

### ERREGUA.

**J**aungoico betico eta guztiz erruquitsu, ceure caridade amaibaguearen indarrez aberastu gura izan cenduana ceure Elessa santua, ceure gorpuz ta odolaren ondasun iñoc aditu leian baño andiagoagaz; izateco Altara orretan Erreginea gú zainduteco; Artzaiña, gu zuzentzeco, osaguisse, gú sendatuteco; Iracaslea gu jaqui-

turiaz betetaco; Aita, gù mailetuteco; Eguzquia, guri argui eguiteco; eta iñoz agortutenez dan Jaungoicozco Iturria, gure arimac gracia muela guztiacaz ezcotuteco. Ezaguturie eguin deuzlazuzan mesedeen anditasuna, gura neuque errethan banengo Serafinen amodiozco garretan, urtuteco zure alabantzelan, emoteco alegríaz esquer duiñac gueratu ciñalaco Sacramentu orretan batuteco gugaz caridate guztiz gozoaren locarri estuagaz. Gura neuzquizuz emon esquer ta alabantzac, herege ta fede bogaac emoten deutsuezan iraiñen ordez; baita bere cristianau dongac pecatuan comulgañagaz eguiten deutsuezanac gaitic; ta azquenik esquer ta alabantza oneec artu eguiñuz, osotuteco celambait, aimbeste maite dituzun guizonac Elessetan bacarric eta jaramonic eguin baga zauquezanean emon baga ichiten deutsuezanac. Baña nic eguiñalaic ain guichi diran ezquero, esquintzen deutsudaz. Ainguern ta zorioneco guztiak

emoten deutsuezan alabantzac, batez bere Aingueruen Erreguiña ta gure Ama Maria guztiz santeac lurrean vici izan zanean emon eutsuzanac, eta guero eruan emon ta emongo deutsuzanac. Artu nagizu Janna ceure betico servitzaritzat, ta eguizu adierazo daidala deutsudan amodiaan, ta emparaiauc zuganatuteco eguiten ditudazan aleguiñetan. Gomuta zaite Elessa santearen premiñacaz, eta begiratu eguiuzu erruquizco beguiacaz Erreinu oni, batez bere cuscalerriari. Amaitu egnizuz heregiac, ceuganatu pecatariac, eta emon eguiiezni iraupena onai. Idigui eguizu ceure escu guztiz ugaria, eta erruquituric nire gorputzeco ta arimaco premiñacaz, emon eguidazuz bear ditudazan osagarriac, santuturie zure graciaz, alabau zaidazan beti iraun guztian. Amen.

Oh salutaris hostia,  
Quæ cœli pandis ostium:  
Bella premunt hostilia,  
Dâ rebur, fer auxilium.

7. Panem de Cœlo prestitisti eis

8. Omne delectamentum in se habentem

**OREMUS.**

**D**eus, qui nobis sub Sacramento mirabili Passionis tuæ memoriam reliquisti; tribue, quæsumus, ita nos Cörperis et sanguinis tui sacra misteria venerari, ut redēptionis tuæ fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et regnas per omnia secula seculorum. Amen.

*Bedeincatua ta alabadua etc.*

**BIGARREN EGUNA.**

*Esanic bedeincatua tā alabadua; eguiñic curutze santearen señalea: Neure Jesucristo Jauna etc. esangoda laster imiñico dan erregua.*

*Egun onetan beguiratuco deutsagu Altaraco Jaunari Erreguea danez.*

**ERREGUA.**

**J**aunic andien, ta betico Erreguea; ego-nic ceruan Aita beticoaren alde ezcuma-

tatic gauza guztiengaguintaritza ta jaubeta sun oso osoagaz, maitetu, adorau ta itzalez ta errespetoz beguiratuten deutsuela ceruco Santo ta Ainguero guztiac, emoten deutsuezala olabantza andiac iñoz aspertu baga, ezagutulen zaituezala euren eguiatzco Erregue ta Jauntzat, eta alambre gura izan cenduana beeratu nire amodioa gaitic Altaraco Sacramentu Santuan, ezcutetan cenduala ceure anditasun guzgia ceure antz eta irudien erreccelagaz; erregututen deutsut humiltasunic andienagaz, etorri zaiteala nire arimara Erregue altsuaren guisan, eta ill däguizuzala neure arerio guztiac, ceintzuc diran nire grina dongac, eta imiñi daidazuzala bertan incauric ceure aguindu santuac, ¡O neure Jaungoicoa! Idiguiric daucazuz nire viotzeco ateac, emoten deutsudaz neure auquera ta borondatearen guiltzac, eta esquintzen deutsut izango nachatzula leiala ta esanecoa, eta adorauco zaitudazala

men, cintzotasun ta eguiaz neure vicitza-  
co egun guzlietan Amen.

*Errezauco dirá sei Aita gurea, la gue-  
ro urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

**O** Jauna! Zu zara nire Erregue, ta nire Jaungoico Jacobi osasuna emoten deutsa-  
zuna, zarealaco Jaungoico ta Erregue an-  
dia beste Jaungoico guztiengan gañetic.

Zuri, guiza aldi guztietacon Erregue,  
iñoc ecin icusi ciñaiquezan ez iñoz ill  
ciñaiquezan orri, emon daquizula icea  
ona, gloria ta aguinaritza.

Urten beguie nire arimatic gurari guz-  
tiz sutsuac, adoretaco Sacramento Santuan  
dagoan eguiazko Erreguea prestauring nire  
arimearen lagun edo esposo izateco, bere  
viotz guztiz gozoaren atseguin, esan al  
baño andiagoagaz.

**O** Jauna! Betor nigana zure Erreiñua;  
eta ez eguizu ichi aguindu daiala iñoz pe-

catuac nire gorputz illecor onetan, eta ez dedilla nigaz jaubetu gaistaqueria.

¡Erreguo viotz guztiz bigunecoa! Zu izan zaitez nire viotzaren beti betico Jau-be bacarra.

*Orain eguingo dà escaria, tá guero egunoroco errengu, ta emparúac lelengo egunean leguez.*

---

### IRUGARREN EGUNA.

Bedeincatua ta alabadua & Curutze santearen.

*Egun onetan beguiratuco deutsagu Je-susi, Artzaiña dan aldetic.*

### ERREGUA.

**J**aun guzliz gozo, tá neure arimaco Artzain guztiz arduratsua; guichi erechiric nilaco ardi galdu bat aimbeste amodio ta lanegaz billatu ta eroateari ceure bizcar Jaungoicozcoetan, eracusten deuztazuna ceure pozaren anditasuna, aurqujutuen dituzubean ceure dei, oles, tá chistuai

leial erantsuten deutsen ardiac; gura izan cenduana guelditu. Sacramentu guztiliz santu orretan emoteco ceurori ceure ar-dien janaritzat, jan daguien ceure gorputza berbera, eta edan ceure odol valiot-tsoa, betetan eenduzala ondo ederto Ar-tzaiñic onenaren biar ta eguiquizunac, Igarlen bitartez esquiñi ceuzcun leguez. Eguizu damuturic orain artean aimbeste neque ta lan igaro eraguin deutsudazalaco ni aurquitu ecinic, ta aimbeste bidar zu-gandic alde eguin dodalaco, emeadic aur-rera ichi daguizudala noranai eroaten, eta ceure graciagaz zucenduten; eta sendaturic nire arimea janari Jaungoicozeo onegaz, ez dedilla ostera jausi pecatuco pistia donguearen erpeetan. Amen.

*Sei Aita gurea tā urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

**E**z zaite bildur izan neure arimea, bada Jauna dā zure Jaungoicoa, eta zure Ar-tzaina, eta orregaitic berac zucenduten

zaitu, eta emoten doutsu janaritzat bere gorputza, eta cerura eroango zaituala adierazoten daben ezaugarri ciur bat.

Entzuten baditut Jaungoicozco Artzain onen dei ta chistuac, eta ezagututenebat berau, emongo deust vicitzea.

Ez naz iñoz galduco, eta ez nau iñoc aldenduco bere artaldetic.

Billatu nagizu neure Jaungoicoa, tá ez zaite iñoz aspertu ni billatuten, bada ezaguturic neure esquerdonguea, eta neurri arima ardi galdu onec bere gaistaqnerriac, zugana biurtu gura dau, eta onetara iguitu zaitean, esquintsen deutsut ez natala iñoz aztuco zure aguinduacaz.

*Erregua etc.*

---

### LAUGARREN EGUNA.

Bedeincatua ta alabadua & Curutze santearen.

*Egun onetan beguiratuco deutsagu Jaurari Medicu edo osaguilla dan aldetic.*

### ERREGUA.

**J**aun gonzález mailegarri, eta neure arima. co Medicu edo osaguilla, zure guganaco

erruqui lá amodioac artu eraguin eutsuzan icenen artean bat Medicuaren a artu cenduana; adierazoten ceuzcula celan eiñan eguiatzco Medicua, araco Samariako guizon, lapurrac banatu eta zauriturie bidean etzunic ichi ebenaren irudian; eta osatuteco gueure gachetatic ichi ceuzcuna ceure Elessan ceutorren gorputz lá odolaren osagarri guztiz eraguillea, ceñen bitartez emoten deuzcuzun osasun sendo la betea; sendatu naguizu lengüetatic, gorde aurrerantzecoetatic, eta indartu eguzu nire argaltasuna. ¡O Medicu cerucoal Erruquitu zaite nire gachacaz. Beguire, Jauna, zarraeta anchiñacoac dirala. Eguizu bada aimbat sorrien, ta aimbat ondoen prestaurie artu daidala osagarri ain eraguillea, berac emon deion nire arimeari ain bear daben osasuna. Amen.

*Sei Aila gurea, eta guero urrengo.*

## VIOTZECO GURARIAC.

**J**auna, zuc maite dozuna gaisoric dago; zuc au jaquitea asco dà euquiteco nic osasunaren icharopena.

Erruquitu zaite, Jauna, nigaz; bada inguratuten naben gachac ez dauque neurriric; eta entzun gura badeuztazu noraño eltzen dan nire gacharen anditasa, dirautsut eguiaz baña lotsaz. Oñazpietatic asi tá buruaren güeneraño ez daucadala gach bagaco lecurie.

**J**auna, zuc aleguiñac eguin arren senduteco Babilonia donga au ceure gorputzaren osagarria emonagaz, osatu ezpada bere; ez naguizu arren ichi, bada onezquiero osatu gura dot.

Neure pecatu asco ta andiac zauri, zambro, ta leguenez loitu ta ezaindurie banauque bere, zuc gura dadozu, garbitu naiquezu.

**J**esus Daviden semea; erroquitu zaite nigaz.

*Orain escaria, egunoroco erregua etc.*

### BOSTGARREN EGUNA.

Bedeincatua, eurutze santearen Neure Jesu-cristo Jauna &.

*Egun onelan beguiratuko deutsagu Jauri Iracasta edo Maesua dan aldetik.*

### ERREGUA.

Neure arimaco Jaun ta Iracasta guztiz jaquitun, aimbeste bidar tā aimbeste cratara berba eguiñic ceure anchiñaco Erriari Igarlen bitartez, gura izan dozuna berba eguin tā iracatsi ceure aoz ceure Elessaco semeai imiñiric ceure iracaslecua Altaraco Sacramentu santuan, ceñetara, eguiazco Jaun goicoaren Mendi ta Jacoben eche-ra léguez, ecarri gura dituzun guztiac, entzun daizuen, ta icasi zure barruan ez-eutaurie dagozan jaquituriaco arguitasun amaibagaac. ¡O neure iracasta guztiz gozoa! Erruquitu zaite nire illuntasun ta jaquiñezagaz, argitu eguizu nire adiña ceure jaquituriagaz icasi daguidazan zure aguinduac; eracutsi eguidazu ezagutulen

nor zarean ta nor nazan, eguin daguidan  
gauza guzietan zure borondate santua.  
Amen.

*Sei Aita gurea, eta guero urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

Poztu zaitece Siongo alabac ceuen Jaun  
ta Jaungoicoagan, bada jarri gura izan  
dau Altaraco Sacramento Santuan ceuen  
Iracasla eguiñic.

An, anche dago Aita cerucoac beragai-  
tic dirauscuna «Entzun daguiogula berari.

¡O cein andia dán nire arimearen zo-  
riona; bada dacust neure fedeco beguiacaz  
neure Iracaslea.

Zorionecoa neure Jaungoicoa zú Iracas-  
latzat zaucazana.

Noc lecarquezan munduko guizon guz-  
tiac auspazturiak zure aurrean Madalenea-  
ren guisan zure berba gozatsuac entzutera.

Nic beitlic bein emoten deutsut Jauna

berbea Ainguero ta Santu guztien aurrean, alan eguitelco.

Berba eguizu Jauna, bada entzutelco zain dago zure servitzari au.

*Escarria, egunoroco erregua etc.*

---

### **SEIGARREN EGUNA.**

Bedeineatua, curutze santearen &.

*Gaur beguiratuco deutsagu Jaunari  
Aita dan aldetik*

### **ERREGUA.**

**N**eure Jaun ta Aita guztiz maitegarria, izanic zarean leguez ceru ta lurreco, Jauna, aimbeste maite dituzuna guizonac, ce, artuten dituzun ceure semetzat, eta gura dozun alan izan deitezala, ta alaccoen ico na emon daquioela, prestetan deutsezuela Jaungoicozco mai orretan ceruco ogua euren janaritzat. Zú, neure Aitaric one-haren aurrean aguertutendá nire arimea,

iratzarturic orain artean vici izan dan astuntasuneco lo zorrotic, eta Evangelioco seme ondatzaldearen guisan nator zugana, jaquiñic eta gomutauric zareala nire Aita, sarritan galdu badot bere zure semearen izate maitegarria. ;Ay ceñi eraguin leion bere pecatuen damuac diadar ain zoli bat, ce, eldurie ceruetaraño, entzun deite- quean munduaren bazter guztietañan peca- tu eguin dodala neure Aita onaren aguin- duba ansiaz! Mesedez escatuten deutsut parcatu daidazula, artu nañuizula ceure gracián, eta lecua emon daidazula Sacra- mentu santu orretaco maian beti zugaz an izateco. Amen.

*Sei Aita gureac eta guero urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

**O**nire esquergabetasunaren ichusia! Ni aldendu naz izatea emon eustan Jaungoi- coa gandie! Eta aimbeste bidar aztu naz eeerecetic atera ninduan Jaunagaz,

Ez, ez bedi jausi, Jauna, nire gañera zure Igarlearen madaricaciñoia; zorigais-tocoac euren Jaunari atsea emoten deutsen seme madaricatuac.

Ama bat aztu deiteque bere semechunagaz; bñia zú neure Jaungoicoa ez zara nigaz iñoz aztuco.

Aberatsa zara, ceuro erruquia escatu-ten deutsuen guztientzat; bada ez egui-ichi eracutsi baga ceure semeai ceure ugaritasuna.

Ea Jauna; neure Aita zarean ezquero, biurtu eguidazu neure pecatuac gaitie galdu dodan garbitasuneco jantzia.

*Escarria, egunoroko errengua etc.*

---

## ZAZPIGARREN EGUNA.

Bedeincatua, curutze santearen &.

*Gaur beguiralucodeutsagu Jesusigure ari-mara ostaluz datorren Bidazliari leguez.*

## ERREGUA,

**J**aun guztiz bigun, eta nire arimaco os-tatura zatozau guizon Jaungoicoa, izanic

estuac ceru zabalac zure anilitasunaren-tzat, gura dozuna egon ostatuz nire ari-maco eche utsean, eta onetaraco cen aurreratuten zareana, eta erregutu ichi deizudala echean sartzen, dirauztazula aspaldian atean deiez zagozala; eta erraz-tuteco niri zorion au gura izan dozuna guelditu Altaraco Sacramentu Santuan; erregututene deutsut ain doe ta gracia an-diacaz aberastu cenduan leguez Aingue-ruen Erreguiña tà ceure Ama Maria guztiz santea, artu cendualaco bere sabela ceure egolecutzat, alan ezarri daizuzala nire ga-nera bere, ceure erruquitasunaren onda-sun ugariac, izanic zure eche ta Elessa-vicia, artu zaidazan ondo prestauta, eta euqui beti neugan bear dodan santulasuna. Amen

*Sei Aita gureac, eta guero urrengo.*

#### VIOTZECO GURARIAC.

**C**é zoriona nirea! Humildadeco Jaun-

goico onec igūinic artu boga nire arimeari, diraust beste Zaqueo bati leguez: «Erdu arin ni artutera, bada noa zure echean osasuna zabaldutera.

Aingueruen Erreguiña, ceruco Aingeruac; escatu eguiozue ni gaitic Jaungoicoari aztu dedilla nire orain arteco esquergabetasunagaz, eta etorri dedilla vici izatera nire arimaco echera, nire viotzaren jaube bacarra. Baldin Salomonec ez beban gura izan sartu ceiteala bere Aitaren echean Faraonen alabea, an egon zalaco ucha santua; nic bere gaur erabaguiten dot neure Jaungoicoa ez sartuten ichitea gueiago nire ariman pecatuari, ezaguturic artu nozula eeure vici lecutzat.

Ez daucat nic cegaz apaindu neure arimaco echea, allaguiñaco Jaungoicoa osta-tuz artzeco; baña bereala, diño Espiritu santuac, aberastu daiquezula ceruco bedineacincioez premiñaric andienean dagoana.

*Escaria, erregua, etc.*

## ZORTZIGARREN EGUNERACO.

Bedeincatua, curutze santearen etc.

*Egun onetan beguiratuco deutsagu Jesusi ceruco Iturria dán aldetic.*

## ERREGUA.

**J**aun gracia emola guztiz ugari, eta ceruco ur vicien Iturria; erruquituric nire premiñacaz, eta zabaldu nairic gure artean ceure ondasun andien ugaritasunac, zareana Jaungoicozco Iturria Altaraco Sacramentu Santuan, ceñetara deituten deuzcuzun guztioi urrerie ez cidarric enqui ez arren edatera ase ase ta ordi ordi eguiñ arte zure ardao Jaungoicozco, ta zure guganaco amodioaren ezne guztiz gozatzua; ceñetan adierazoten deuzcuzun zure Errege-mai orretara eldu dcitequezala garbi dagozan guztiac, nai izan oraindie virtuteco ugatsa edaten diarduenac, nai ugatsa quenda ta onezquero acita dagozanac;

eguizu Jauna zauriturie nire arimea zugaz batuteco gurariacaz, eldu deiteala zugana aimbat lasterren aurquitu deian zugan ain bear daben atseguiña, goituric neure griña dongac, eta garbituric neure pecaluen orban guztiac, vici naitean beti issioturic zuganaco amodioric beroenean. Amen.

*Sei Aita gureac eta guerourrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

Bai, neure arimea, Altaraco Sacramen-  
tu guztiz Jaungoicozco orretan dago agui-  
rian, Daviden Echeraco, eta Jerusalenem  
vici gura daben guztientzaco Iturria.

Arritu zaitece ceruac; beguira noraño  
eldu dan nire gaistaqueria ta zoraqueria,  
ichiric ur vicizeo Iturri Jaungoicozco au,  
ibilli naz edaten cinguira loietaco ur li-  
zundu ta atsituac.

Zorionecoa araco Cristiñau, bere gogo  
guztia Jesus Sacramentadua maite izatean  
imiñiric daucana, berau izango dá ur vici

onen corrontetan iminitaco landarea leguez betico vitzaco frutuac emoten dituzana.

Jauna badazaut onezquero zure emocai onen balioa, ta alań albait sarrien esango deutsut. «Neure Jaungoicoa; emon eguidazu ur au egarritu ez naiten gueiago.

*Escarria erregua etc.*

---

### BEDERATZIGARREN EGUNA.

Bedeincatua, curutze santearen etc.

*Gaur beguiratuco deutsagu Jaunari ceruco Arguia dan aldetic.*

### ERREGUA.

**J**aun guztiz maitetzalea; erruquituric munduagaz, icusiric egoala jarriric illuntasunic andienean, etorri gura izan cenduana lurrera ceure Aitaren ondotic arguituteco Argui Jaungoicozcoa leguez,

eta gueldituric gugaz Altaraco Sacramen-  
tu santuan, zabaltzen dituzuna gure artean  
arguitasun oneec, eta ceure erruquitasur-  
nen berotasuna; argitu eguizu nire adiña  
cerueo argui orrequin, ezagulu zaidazan  
beti; eta issiotu eguizu nire borondatea-  
ceure caridadeco suagaz, izan naquizun  
beti esquer onecoa, eta zugan sinistu dai-  
dala, zugan icharon daidala, eta zu maite-  
tu zaidazala orain emen lurrean eta guero  
or betico glorian. Amen.

*Sei Aita gureac eta guero urrengo.*

### VIOTZECO GURARIAC.

**O**nōc sinistu eraguin al leioen guizon  
guztiai, berari bildur santu bat deutsa-  
nentzat dagoala beti Altaraco Sacramen-  
tu Santuan justiciaco eguzquia, eta ez  
dabela iñoz ichi gura bere berotasuna  
emon baga.

Orain, orain dazaut ez daquiela pecata-  
riac nun estropezu eguin eta jausten dirán,

ez diralaco Jesus gana urreratuten argui  
au artzera.

Urreratu zaite zú neure arimea, eta ez  
zaite inoz aldendu, bada Jaun onec beteco  
zaitu bere arguitasunez elduten bazacha-  
coz sarri Sacramentu santu onetará.

Eriotzearen illuntasun eta queriza as-  
tunetan vici zareen pecatari errucarriac,  
beguirá zuentzat bere izango dala ceruco  
argui au, artzeco prestetan bazare.

Ez naz iñoren bildur, Jaungoicoa dalaco  
nire arimaco Argua.

*Escaría, egunoroko erregua.*

---

## CONFESIÑO TA COMUNIÑOECO

SACRAMENTU SANTUAC ONDO

## PRESTAURIC ARTUTECO ERREGUAC.

---

*Esamiña aurreco erregua.*

**E**spiritu santo Jaungoicoa, argui guztien

iturria. Urrindu eguiuz nire adiñeco illuntasunac eta arguitu naguizu, icusteco ondo neure arimaco bazterrae, gogoratuteco oraintzuengo confesinotic ona eguin ditudazan pecatuac, salaturic damu viciagaz cta ez gueiago eguiteco asmo sendobategaz, alcantzau daguidan guztien paracacihoa. Au dà orain gogotic escatuten deutsudan mesedea Jesucristoren irabaciac gaitic, Ama Doncella Mariaren, cerruco santu ta zorioneoco guztien bitartecotasuna gaitic. Amen.

Orain beguiratu ta aztertu eguizu Jaungoicoaren legueco amar aguinduetatic, bost eleisacoetatic eta ceure eguinbideetatic ce pecatu eguiñ dozun ta ceimbat bidar.

**Esamiña osteraco erregua.**

**O**neure Jaungoico guztiz on ta maitea! Icaraturic eta lotsaturic nago icusiric ain asco, ain andiac ta ain ichusiac dirala nic eguiñ ditudazan pecatuac. Zuc emon deuz-

tazun argui ta laguntasunac ezagutu ta  
gogora ecarri eraguin deuztaz. ¡O neure  
viotzeco Jauna! ¡Celan ni aztu naz ain  
erraz zugaz? ¡Celan azartu naz ausiten zu-  
re legue ta aguinduae? ¡Celan pecatu egun  
dot nic aimbeste bidar? ¡Celan icharon  
deuztazu ain dempora lucean? ¡Celan ez  
nau iruntzi infernuac? ¡Cer egun dot nic?  
Nire zorigaistocoa confesau baño lenago  
illgo banintz!

¡O Jesus neure artzain tá Salbaguilla  
maitea! Izan zaquidaz bitarteko ceure Aita  
aserratuagaz. Andiac dirá, esquergaac  
dirá, egua dá nire pecatuac, baña andia-  
goa dá, neurri baga andiagoa dá zure  
ontasun amaibaguca eta nigaitic aimbeste  
igaro eraguin eutsun amodio samurra.

Ceruetaco errenguiña, pecatarien amaric  
Jaztanena ta bitartecoric altsuena, ceruco  
Ainguera ta santuac, escatu eguiozue  
Jaungoicoari pecatari andi one gaitic. Pe-  
catua gaitic jarri naz bere arerio eguiñic.  
galdu dot bere semetasuna... galdu dot

cern ederra... gnelditu naz betico Infer-nuraco opaia neugan dodala... eta ezaindu dot neure arimea:

Damu dot Jauna pecatu eguiña; dàmu dot viotz guztitic; erruquia Jauna nigaz; erruquia pecatari andi onegaz. Aurrerantzean Jauna ez gueiago pecaturic: lenago ill ostera pecatu eguin baño.

**Pecatuen damua viotzean viztuteco erreguac**

**O** neure Jaungoico maitea! Zu zareana zarealaco eta maite zaitudazalaco gauza guztiac baño gueiago. damu dot Jauna, damu dot viotz guztitic pecatu eguiña, damu dot zure ontasuna neure pecatuaçaz ofendidua, damu dot zure legue santua gorde eza eta gura neuque zatituko bali-tzat neure viotza damuaren indarrez.

Cintzotasunie andienagaz emoten deutsut berbea ez guciago pecaturic eguiteco: pecatuen bide guztietaic alde egniteco: neure vicitza gaitoa onduteco: eta viotz guztitic zu maitctuteco.

Bai Jauna: leenago illgo naz milla bidar  
bere bear baldin balitz eta leenago galduco  
dodaz osasuna ta oñdasunac guztiac ostera  
pecaturic eguin baño

¡Ay neure viotzeco Jaungoicoa! Nun  
neucan nic centzuna pecatu eguin neba-  
nean? Nora beguira nengoan zure on-  
tasunari bide bagatasun ain esquergac  
eguin neutsazanean? ¡Ger eguin dot nic?

Pecatu bacar bat gaitic dagoz asco in-  
fernuko laba gorietan: ¿celan bada icharon  
deustazu niri; eguiñic aimbeste ta ain  
andiak? Ceimbat dagoz orainche infer-  
nuan erretan, nic baño pecatu guichiago  
eguin dabenac?

¿Cer izango zan nigaz ta nun egongo  
nintzateque orain quendu izan baceust vi-  
cizia pecatu eguin da laster, beste ascori  
leguez? Eta ¿cer icharon neique biurtutene  
banaz lengo pecatuetara?

¡Ay Jauna! ce larri, ce icara naucan  
neure pecatuen gomuteac! ¡O ontasun  
neurribagacoa! Ce prestueza, ce billaua,

ce dollorra izan nazau ni zugaz! Zuc ni  
ecerecetic sortu ninduzun: zuc cristiñau  
eguin ninduzun: zuc alde guztietatic one-  
raz ta mesedez bete nozu.

Zú nigaitic jatzi ciñan cerutie lurrera,  
nigaitic araguiz jantzi ciñan: nigaitic iga-  
ro cenduzan aimbeste neque, atsacaba,  
gose ta egarri: nigaitic bota cenduan aim-  
beste icerdi: nigaitic eguin cenduzan aim-  
beste barau: nigaitic isuri ta bota eenduan  
ceure odola eta emon cenduan vicitzea  
curutze baten josiric. Eta nic esquerbaco  
onec celan erantzun deutset aimbeste  
amodiori ta mesede ecin andiagoari.

*Orain esan eguizu bein, birritan ta  
gueiagotan.—Neure Jesucristo Jauna...*

Pecatuac confesetaco lotsea daueazu-  
nean gogoratu bear dozu: lelengo, lotsa  
gui chigaz pecatu eguin dabenac, lotsea  
igaro bear, dabela parcatua izateco. Bi-  
garren, salatuten ez badeutsazuz pecatuac  
issill issillean Confesore bati, ceñec ar-  
tuco zailuzan biguntasunic andienagaz eta

ez deutsazan iñori bere aguertueo, Jaun. goicoac juicioco egunean zabaldupo dituzala mundu guztiaren aurrean ta guero icharoten dentsula betico infernuac; confesetan badituzu, pareacinoa ta salvacinoa. Irugarren, pecatu andiren bat letsaz confesau bagaric ichiten badozu, eguingo dozula sacrilegiozco pecaturie andiena.

**Confesau baño lenchuago esateco errengua.**

**O**rainche noa, Jauna, confesorearen oñetara: badaquit zure lecuan dagoala. Indazu arren Jauna gracia, quenduteco lotsea eta salatuteco ciatz eta arguiro esaminan goratu ditudazan pecatu guztiac. Ama Doncella Maria: ceruco santu guztiac: lagundu eguidazue confesiño on bat eguiten.

**Confesiño esteraco errenguae.**

**N**eure Jesucristo Jauna: esquer andiac deutsudaz, eguideutzazun mesedea gaitic lagunduteaz neure pecatuac confesetan.

Ceure ontasun neurribaguea gaitic eta ceure Ama Mariaren erreguac gaitic esca-tuten deutsut arren parcatu daguidazuzala confesioñ onetaco utseguité tā erracuntza guztiac. Baldin aztu bajataz pecaturen batzuc: enqui ez badot eurac gaitic biar neuquean damua: edo neure argaltasunec izan neiquean beste edocein utseguité: bada nic gura neuque albait onduen egui-na izatea, elduteco zure mai santura graciaren soñecoagaz albait ondoen apainduric.

#### **Comuniño aurreraeo.**

I. *Fedea viztuteco.* Zuc, ó neure salbaguilla maitea, esan dozu, Altaraco Sacraméntu Santuan dagozala ceure gorputza ta ceure odola. Nic alañ sinistuten dot violz osoagaz. Bai, sinistuten dot anche dagoala araco gorputz Ama Doncella Mariaren errai garbietan sortua, Belenen jaioa, curutzean josia eta orain ceruan dagoana, eguzquia illunduteco besteko arguitasunagaz. Anche dagoala bere odola,

bere arimea eta bere Jaungoicotasuna. Bai, egua guzti oneec sinistuten dodaz federic vicienagaz. Sendatu nagizu, Jau-na, sede onetan.

II. *Icharopena sendatuteco.* Neure arimea: zabaldu eguizu ceure viotza. Je-susec egun leiquezuz biar dituzuzan me-sede guztiak: berae deutsu amodio larre-gui bat: icharon eguiuz bida onera andiac Jaun maitetzalla onegandic, cein datorren zu gozatutera deutsun amodio andia gai-tic. Bai neure Jesus maitea, nic icharoten dot zure ontasunecan, sarturie orain nire bularrean, issiotuco dozula nire viotz epel ta otzean zure amodio garbiaren gar beroa ta gurari vici bat eguiteco beti zure boron-date santua.

III. *Amodioa issiotuteco.* ¡O neure Jaungoicoa, neure Jaungoicoa! Nire ari-mearen maitetzalla eguiazco ta bacarra! ¿Cer gueiago egun cinaique eracarteko ni zu maitetutera? Ez zan zuretzat asco izan nigaitic illea: gura izan cenduan guelditu

Sacramentu andi onetan, emoteco niri za.  
rean guztiiori eta batuteco ceure viotza  
neure viozagaz, nilaco gaisto ta esquer  
charreco batenagaz. ¡O amodio neurriha,  
guea! amodio amaibaguea! Jaungoico bat  
gura jatala emon niri!...

Neure arimea sinistunten dozu zuc au?  
Bada cer eguiten dozu? O Jaungoicoa Jaun-  
goicoa! O amodioa! Zu zará nire amodio  
guztiaren duiña: zugana zucendu bear dau  
nire amodio guztiae. Nic maite zaitut neu-  
re vioz guztilic, maite zaitut gauza guztien  
gañean, maite zaitut neu neurau baño  
gueiago, neure vicitza baño gueiago. ¡O  
eracarri al baneiz Adanen seme alaba guz-  
tiac zu maite izatera duin zarean bestel!  
¡Ay noc leusquizun Serafinac deutsuen  
amodioa! Andra Maria neure ta ceure amae  
deutsun amodioa! Lurreco gancetaraco  
amodioac, urten eguzue nire vioztetic;  
amodio ederraren Ama Doncella garbia,  
lagundu eguidazu ametan araco Jaungoico  
ain gura cenduquena guztiac maitetu daiela.

IV. *Humiltasuna viztuteco.* ¿Ez al  
zará zu, neure arimea, artutera zoazana  
orain Jesucristoren gorputza? ¿Bai al zará  
zu mesede ain goratuaren duin? ¡Ay neu-  
re Jaungoicoa! ¿Nor zará zu ta nor naz  
ni? Nic ondo daquit eta sendotasunie an-  
dienagaz sinistuten dot, zu zareala Jaun-  
goico bat itzalean tá ceure onoidade guz-  
tietan neurriric baguea ta iñoc aditu ecin  
cinaiquezana: ni cer nazan barriz zue Jau-  
na daquizu. ¿Celan bada zue, neure Jesus  
garbitasun amaibaguea, sartu gura dozu  
nirea laco arima loi baten eta neure peca-  
tuen lupetza zantarragaz aimbeste bidar  
ezaindua izan danean? Ay Jauna! Icusic  
zure anditasun azquen baguea eta nire  
duin bagatasuna, lotsa naz zure aurrean  
aguertuten. Bildurrac eta itzalac aldendu  
eragin gura deuzte zugandic. Baña urrin-  
duten banaz zugandic ¿norá joango naz?  
Eta cer izango da nigaz? Ez Jauna, ez dot  
iguesic eguin gura zugandic, ezpada nai  
dot gueroago urreratuago eguin zugana.

Banator bada, ó neure salbaguilla maite. garria; banator goss onelan zu artutera, neure pecatuac gaitic lotsaturic, beeratric eta macurturic; baña icharopen sehdo bategaz zure ontasunean eta deustazun amodioan.

V. *Pecatuen damua virtuteco.* ¡O neure arimaco Jaungoicoa! cein damu dodan zu maitetu ez izana neure vicitzaco dempora guztian! Eta maitetu bearrean, bete zaitudaz irainez, bide bagatasunez ta charqueriaz. Ase ta beteta arren neure gurari citalac, egun ditudaz sarritan zure ontasun neurribagueac gura ez cituzan gauzac; atsea emon neutsun, ez dot gura izan egón zure gracian ta izan zure adis quide. ¡O cein damu dodan Jauna! Nori puscatuco litzaquion viotza damauren indarrez! Gorroto gueiago deutset egun ditudazan pecatu guztiai; andiai ta chiquiai munduko gach guztiai baño. Icharoten dot zuc onezquero parcatu izango denstazuza la; baña ez baldin badot oraíndic alcantzau

parcaciñoia, parcatu eguidazuz arren, zu artu zaizdazan baño leenago. Garbitu egui-zu ceure odolagaz arima au, ceñetara etorri gura dozun vicitera denipora guichi barru.

*VI. Guraria viztuteco.* Ea bada neurre arimea: eldu dá onezquero araco ordu zorionecoa, ceñetan zure Jesus ona sartuco dan zure viotzerrucarrian. Orra emen ceruco erreguea, zure Salbaguillea, ta zure Jaungoicoa, zugana datorrena: gner-tu tá prestau zaite, amodioz artuteco. deitu eguiozu gurari guztiz bici bategaz: Erdu, ó neure Jesus! Erdu zure gurariz erretan dagoau arima bat gana. Baña eeu niri emon zaquidazan baño leenago, ni guztiau emon gura nachatzu zuri: emoten deutsut neure viotz errucarria, artu egui-zu; ta erdu, erdu arin heragaz jaubetutera.

Erdu neure Jaungoicoa, erdu arin, ez eguizu luzatu ta atzeratu nigana etortea, erdu neure maitea, neure laztana, neure amodia, neure vicitzea, neure cerua ta

nire gurari guztien asebetea. Nic artu gu-  
ra cenduquedaz arimarie onenac ta gar-  
bienae artuten zaituezan amodioagaz, cen-  
re ama Mariac artuten cenduzan amo-  
dioagaz.

Ceruetaco erreguiña ta neure ama mai-  
tea: orainche noa artutera zure semea.  
**Emon eguidazu,** Andrea, goss onetan ceu-  
re Jesus, emon ceuntsan leguez Simeon  
Elez guizon zar beneragarriari: nic artu  
gura dot zure escu garbietatic: esan egui-  
zu nazala ceure adisquide ta gogocoa,  
cerren onelan ezarrieo deust beguiracune  
samurragoa: lagundu eguidazu albait on-  
doen prestetan berari vieilecua neure  
viotzean,

### **COMUNIÑOA EMOTECO**

**Sacerdotea altarako elduten danean.**

**C**onfiteor Deo.....Esan eguzu: «Ni peca-  
taria.....Dómine non sum dignus....Esan  
eguzu iru bidar bacochean bularra joten

dozula. Jauna, ez naz ni duin, zu neure  
barruan artuteco, baña esan egizku berba  
bat eta osatuco dá nire arimea.

**Comuniño Santua artuten danean.**

Corpus Domini nostri  Jesuchristi....

Jesucristo gure Jaunaren gorputzac zaien  
du daguiala nire arimea eroateco betico  
vicitzara. Alas izan dedilla.

**Comuniño osteraco erreguac.**

Jesusen arimea, santutu nagizu  
Jesusen gorputza, salvau nagizu  
Jesusen odola, zure onez bete nagizu  
Jesusen pasinoa, sendatu nagizu  
O Jesus ona, entsun nagizu!  
Ceure zaurien artean, gorde nagizu  
Zugandie alde eguiten, ichi ez eguidazu.  
Arerio gaistoa gandie, zaindu nagizu  
Neure eriotzaco orduan, dei eguidazu  
Zugana etorten, aguindu eguidazu  
Ceugandieurrean, imini nagizu  
Santu guztien artean zu alabetaco  
Betico iraunean. Alan izan dedilla.

I. *Fedea viztuteco.* Cé zoriontasuna  
nirea! Neure Jaungoieoa etorri dà nigana  
eta nire Salbaguilleac artu dau vicle-  
eutzat nire arimea. Nire Jesus dago nire  
barruan. Ô! ontasun amaibaguea! ¡O me-  
sede amaibaguea! ¡O amadio amaibaguea!  
Jaungoico bat etorri nigaz batutera eta  
guztia nirea eguitera..... Neure arimea:  
orain Jesusegaz ain baturic zagozanean  
¿cer eguiten dozu? ¿cer esaten deutsazu?  
Ez dezu berbaric eguiten ceure barruan  
dagoan ceure Jaungoicoagaz? Ea bada, viz-  
tu eguzu barriro ceure fedea, iruditu  
eguzu Aingueruac dagozala zure inguruen,  
zure bularraren barruan dagoan euren  
Jaungoicoa adoretan. Adorau eguzu zue  
bere orain ceure barruan ceure Jauna:  
batu zaite ceugan eta bota eguiuz ceu-  
gandic beste gogoraciño guztiac; alcarts  
eguiuz ceure gurariac ceure Jaungoicoa-  
gaz eta esan eguiozu.

II. *Humiltasuna viztuteco.* ¡Ay neu-  
re Jesus, neure maitea, neure on amai-

bagueal? Nun zagoz Jauna? Nire viotzaren barruan? Neure amodio bidebagacoz ta gurari citalez ain beteric dagoan viotz baten barruan? Esan gura neusquizu san Pedrogaz: alde eguizu Jauna nigandie, cerren nazan guztiz duin baguea ostatuz euquiteco Jaungoico ain andi bat. Baña zer diñot neure Salbaguillea? zer izango litzateque nigaz, zue ichico baceust? Nora joango nintzateque zu baga, ezpada betico galdutera? Ez zaite bada ni gandie alden- du: ni batuten naz zugaz, nire vicitza eguiazcoa zarean orregaz: ez dot gura iñoz aldendu zure borondate santutie, nie gura dodana da vicitea ta illtea zure vi- tzagaz baturic.

Ama Doncella Maria, Serafiñac, amo- dio garbiagaz Jaungoicoa maite dozuen arimac, iratsi ta emon eguidazuez ceñen gurariac, eguin daguiodian neure Jaun maitiari bear dodan laguntasuna.

III. *Esquerrac emoleco.* Neure Jaun- goicoa ta neure Jauna: emoten deutsudaz

esquerrac, goss onetan eginin deuztazun mesedea gaitic eterriaz visitetara nire arima errucarria : nie erantzun gura neonzquizu, ceure anditasunari ta egun deustazun mesede bardiñic bagueari jao-can esquer onagaz. Baña ; cé esquer emon leiquezu ni laco errucarri batec? Baldin Tobias gazteac ez beban beragan aurquinten cegaz emon esquer duiñac San Rafaeli, beragandie artu cituzan lurreco mesedeac gaitic ; celan nic emongo deutsudaz biar neuquezan esquerrac, ez lurreco mesedeac gaitic, ezpada emon deustazuzalaco orain janaritzat ceure gorputza eta edaritzat ceure odola?

Andra Maria neure Ama, neure bitarteko santuac, neure Aingueru jaolea, Jaungoicoaren amodioan erreric vici za-reen arimaac, erdue icustera, orain eguiten deuztan mesede larreguaia: miraritu zaitece, eta emon eguiozuez nigaitie esquerrac.

IV. *Esquinia.* Nire maitea dá guztia

niretzat eta ni guztiak nire maitearentzat.  
(Cant. II. 46) ¡Ah Jauna! Etorri zarean  
ezquiero nire arimaco eche utsera, ni es-  
quintzen deutsut neure auquera tā boron-  
date guztiagaz: zú guztiori emon zachataz  
niri, eta ni guztiak emon gura ta bear-  
nachatsu zuri. bai, nire almen tā centzu-  
nac izan bitez onezquiero guztiac zureac,  
ez daguien onezquiero beste gauzatan iñar-  
dun, zu alabetan baño: nire adiña bacarric  
izan daguidala gomutetaco zure ontasun  
ainairie bagueagaz eta borondatea bacar-  
ric zu maitetuteco. Baita bere opa ta es-  
quintzen deutsut goss onelan daucadan ta  
nazan guztia, neure gogoracinoac, neure  
gurariac, neure esateac, neure eguiteac,  
neure atseguiñac, neure etsiguitasunac,  
eta neure auqueria. Azquenik zure escue-  
tan iminten dodaz neure gorputza tā neu-  
re arimea.

Ontzat artu eguizu, ó ceruco erregue  
andia, munduan izan dán pecatariric an-  
dienac eguiten deutsun bere beraren es-

quintzaria. Bai orain osaro jarten naz zu-re escu bedeinecatuetan. Eguizu, Janna, nigaz gura dozun guztia. Erdu, ó su garbitzallea, ó amodio Jaungoicozeoa, eta al-dendu eguizu nigandic zure begui arguiac damuz, gorrotoz ta igúiñez icusico leu-quen guztia. Eguizu, emendic aurrera guztiau izan nadilla zurea, eta vici naitea-la bacar bacarric eguiteco ta betetaco ez bacarric zure aguinduac, baita bere zure esanac, zure gurariac eta zure gogoco dán guztia.

Ó neure Ama Santa Andra María! Eroan eguiuzu ceure escu garbietan eta opa eguiuzu Irubat tasun santuari neure esquintzari au eta alcantzau eguidazu on-tzat artu daguiala eta emon daguidala gracia iranteko vicitza onean neure azque-nengo arnasea emon artean.

V. *Escarria.* Neure arimea; cér egui-ten dozu? Ez eguizu arren alperric galdu dempora ain eder ta egoqui au, ceñetan alcantzau ciñaiquezan Jaungoicoagandic

escatnen deutsazuzan mesede guztiac.

„Ez dacutsu celan dagoan Aita cerucoa amodioz ta samurtasunez beguira ceure barruan daucazun bere seme laztanari, cein dan berac maiteen daben gaucca? Bota eguiuz ceugandic munduco gogoracino guztiac: viztu eguizu ceure fedea, zabaldu ceure violza eta escatu eguiozu nai dozun guzlia.

„Ez dozu entsuten celan berba eguiten dentsun Jesusec ceure violzera esaten dentsula: arimea esan eguizu cé mesede dán nic zuri eguitea gura cenduquena? Ni etorri nachatsu zu aberastutera eta zu gozatutera. escatu eguidazu icharopen sendo bategaz eta alcantzauco dozu guztia. ¡Ay neure salbaguilla guztiz gozoa! Etorrizarean ezquiero nire arimara: mese-deac eguitea eta escátutea gura dozun ezquiero, banoats u eguitera neure esca-bideac. Nic ez ditudaz billatuten, Jauna-lurreco onera ta gauzaac: ez esquibideac ez aguintaritzac, ez ondasunac, ez alse-

guiñae. Nic orain auspazturic eta gogoric vicienagaz escatuten deutsudana dā, orain artean egun ditudazon pecatu guzti en amodiozeo damu vici bat, euren paracaciño oso osoa, aurrerantzean ez iñoz peccaturic danic chiquienic bere eguiteco laguntasuna: santutasunic andienera igoteko ta vicitza onean neure azquenengo arnasea emon artean irauteco gracia: argua, eza gututeco munduko ganceen ecerezlazuna eta cein duin zarean maitetua izateco amodio amairic bagaco bategaz. Atera eguidazu, Jauna, viotz au eta imisi bere lecuan beste bat; viotz bat, bere eraspen ta etsiguitasun gnezlietan zuraren era eracoa; zure borondate santuac nai daben beti maite izango dabena: viotz bat, billatuco ez dabena ezpada zure amodio santua.

Ez naz ni Jauna mesede onen diña; baina bai bazará zú neuro Jesus maitea: nic escatuten deutsudaz ceure duintasuna gaitie, ceure Ama Doncella Mariaren ira-

baci ta erreguac gaitic eta ceure Aita  
cerucoari deutsazun amodioa gaitic.

*Emen escatu leique bérac bear daben  
beste edocein gauza; baita bere lagun  
edo progimnarentzat. Ez beiteque aztu  
pecatariacaz ta purgatorioco arimacaz.*

Comuniño ostean urrengo erregua esa-  
ten dan bacochean irabazten dà indul-  
gencia oso bat eta ateraten dà arima bat  
purgatoriotic.

Beguiratu eguidazu, ó neure Jesus ona,  
auzpazturic ceure aurrean: escatuten deu-  
tsut gogoric vicienagaz iratzi ta incan-  
daguiuzala nire viotzean fede vici bat,  
icharopen sendo bat, eta caridade goritu  
bat, neure pecatuen amodiozeo damu ta  
gogo sendoagaz ez gueiago pecaturic egui-  
teco, gomutetan ditudazan artean al do-  
dan amodio ta erruquiric samurrenagaz  
zure bost zauriac, asiten nazala David  
Igarla Santuac zugaitic, ó neure Jaungoi-  
coa, esan cituzan berba oneetatic: «Zula-  
tu deustez baterie bestera noure oñac eta  
escuac eta contau dituez nire azur guzliac.»

### **Elessatic urteean.**

**B**anoa, Jauna, orain echera, banoa neure lanac eguitera, zue alan gura dozulaco. Guztiac esquitzen deutsudaz ceure gloriariet audienetako ta neure pecatuen zorra paguetako. Banoa emendie, baña emen gueldituten da nire viopta. *Aita Jaungoikoaren bedeincacinoa, Seme Jaungoikoaren bedeincacinoa, Espiritu Santu Jaungoikoaren bedeincacinoa izan bedi orain eta beti nire ariman.* Alan izan dedilla.

Bedeincatua ta alabadua.....

---

### **MEZIA.**

#### **MEZA AURRETICUA.**

**O**h, Jesus, benetan maitegarria! Beraz, ez zan aspertu zure guganako ondo-naia, curutze Santuan vicitzia gugaitic emonaz? Ez. Nai izan cenduzan ugaritu gueiago ta gueiago ceure mesedecac, ta orretaraco

icentau cenduzan Sacerdoteac' jarraituteco eureen bitartez curutzeco Sacrificio andia zorionecoan. Sinistuten dot curutzeco Sacrificioa ta altaracoa bat dirala. Zu Jesus, zariala Sacerdote nagusi Meza bacochean sacrificuetan dozuna, ta sacrificua zariana. Indazu, arren arimaco prestaera garbi bat, bat egunie neure gogoa zugaz elessa santuagaz ta zure Ministro Sacerdoteagaz, irabaci daidazan meza santu onetan esquintzen jatazan doe ugariae, ta eguizu zabaldedilla guztietara zure erruquitasun neurri baguea. *Emen guelditu bear dozu Meziaren anditasunagaz gomitetan ta vitzuten ceure guraria itzal santu ta onerazpen andi bategaz entzuteco.*

#### **Meciaren asieria.**

**A**itearen ta Semearen ta Espiritu Santuaren icenean. Jauna nator zugana pez ta atseguin billa; artu naguiztu ceure aldetik, ta beguiratu eguidazu erruquitasun andiagaz ta eguizu, ez nadilla naastau gais-

quilla ta pecatariacaz. Zai zarà niré sendota-suna, ta ez zaitez aldendu nigandic Arguitu egnizoz nire beguiac urreratu nadin zurc Altara Santura, nun aurquituco dodan pozqueria eguiazcoa, gozatuteco beragaz zure anditasunarenurrean. Oh, neure arimia! Ez zaite, beraz, naibaguetu. Icharon eguzu, bai, ceure Jaungoicoagan, bada aurquituco dozu beragan atseguin ta baque osoa.

**Confiteor.**

Neure Aita chito altsua: auzpazturic zure oñetan, nator, cerutar guztien surrean, neure pecatuac autortutera. Neurea izan dà errua, ta guzliz erru andia, baña eza-guturic damutu dà guzliz nire viotza. Doncello chito garbi, Apostolu Santu, ta nire ceruco onguilla guztiac; Iesúric zuec nire lotsaria, jarichi eguidazue erruquia. Jaunai Eleissa Santuac erregututen deutsu nigaitic. Entzun eguzu bere Ministro Abadia; ceñegaz batera escaluteten deutsudan pareatu deiguzula, berari, niri, ta guztioi gocure erru ta utseguiñac.

**Abadiae altarara Igotean.**

**O**rretaraco, Jauna, Jesusen irabaciacaz bat eguiten ditugu santu guztienc, ta batez bere, araco santuénac ceintzuen Elikquia edo apurrac aurquituten dirán Altara onen barruan.

**KIRIK.**

**G**auza guztieng eguilea, erruquitu zaite ceuc eguin guenduzuzanocaz: Aita chito samurra bigundi zaitez zure semen erreguetara: ceruco ateac edegui ceuscuzan Jesus laztana, itzuli eguizu gure arinatarra ceure odola, ta izan zaite euren betico garvitasuna.

**Gloria in excelsis esatean.**

**C**eru guztiac autortu ta adierazo daiela Jaungoicoaren gozotasun edo gloria, ta bere baque santuac poztu daiala Iurra. Oh, Jaun altsua! Viotzeco aleguin osao-gaz, aguertu nai deutsuguz, gueure lotsa on, maitetasun, ta esquer onac. Ceruco bildots garvi quendutzen dituzuna guizonen

pecatuac entzun eguiuz gure erreguac. Aitaren alde ezcumau jarriric zagozana, erruquitu zaite gugaz. Autortuten dogu zure anditasun, dontsutasun, jauntasun, ta altsutasuna, ta zariana Jaungoico bat Espritu Santuagaz Aitaren gozotasun edo glorian.

**Dominus Vobisnum.**

**J**aungoicoaren laguntasuna izan dedilla gugaz, eguiñ daigozan alearturic gueure erregu ta escabideae.

**Erreguac.**

**E**leissa santuaren iccnean, Jauna, Abadiac zucenduten deutsuz erreguac; beraz, baita nifé iccnean bere, nazalaco Eleissaco semea. Bat eguinic neure gogoa beriagaz, escatuten deutsut, bere, neure, ta Eleissa guztico premiñac gaitic, ta uste dot entzuna izatea ceure erruquitasun ta Jesusen irabaci neurri bagáic gaitic.

**Epistola.**

**J**aungoico guztia daizuna; esan cenduan,

eguin bedi arguia, ta beriala eguin zan. Barritzau eguizu nire ariman, orduan munduan eguin cenduan miraria. Deseguin eguiuz illunduten naben lañoac, ta sortu eguizu nigan eeure arguitasuna. Entzuten nago orain bere Abadiaren aoz zure verbia, ta sinistuten dot. Oh gau illun, azpiratu ta queizaturic euqui dozuna nire arima gueissoa! Eguiozu leeu Jaunaren verbiac emoten deustan arguitasunari. Neure griña, arrotasun, argaltasun, ta munduaren labanqueria eroac, ez al dabe ichuteco gueiago nire arimea. Ez Jesus maitea, ez.

**Epistoliaz Evangelioaren bitartean.**

**J**aungoico, garbitu cenduzana Isaias Igarliaren ezpanac icatz issiotuagaz, garbitu eguiuz zure Evangelio santua adierazotera doan Abadearenac bere; baita bere nire belarriac ondo entzun daien. Bardin escatuten deutsut ondo aituteco arguitasuna, ta diñoana gorde ta eguiteco indarra.

**Evangelioan.**

**J**auna, asco dirá nire uts eguiteac, ta ez dira ez jaquinez, ezpada daquidana ez eguiñez. Ciur nago, sinistuten dodana; baña urrin dabilz niro eguitadac sinistuten dodanetic. Badaquit, barriz, sinistuntea aseo ez dodana, bada demonioac bere sinistuten dabe. Baña ceteraeo dabe alaco sinistea? Eleissiac gura dau orain nic zure Evangelio santua entzutea, ta adierazoten deust onetan beti egon biar dodala prest zucenduteco neure eguitada guztiac berac emoten dituan neurriatatic. Eguizu, bada, neure Jaun ona, gorde daidala aquin duten jatana, ta ez nadilla aldendu betico galdubidetara.

**Credoan.**

**S**inistuten dót Jaungoico bacar bategan, ceñec ez daucan naturaleza edo, izate bat bano iru Personetan. Sinistuten dol irubatasuneco lelengo personia dala Aita, cern, lur, ta icusten dirán ta icusten ez dirán gauza guztien eguillia. Sinistuten

dot bigarren personia dala Seme bacarra, Aitaganic sortua, ta ez egunaña, ta bera-gaz izate edo sustancia batecoa, cein, gugaitic, ta gu ceruratutea gaitic, jatsi zan Ceruetatic, ta eguin zan guizon Maria Doncelliaren erraietan Espiritu-Santuaren eguitez; izan zala necatua, curutzian illa, ta obitua Poncio Pilatosen aguinduaren beian: Irugarren egunian viztu zala illen artetic. Sinistuten bere dot, igon ebala Ceruetara, nun dagoan jarriric bere Aitaren alde escumatatic, andic etor-rico dala bigarrenean, itzal ta edertasunez inguraturie, vici ta illei betico erabagbia emotera, ta bere Erreiniuac ez dabela azquen ez amairic izango. Sinistuten dot irugarren personia dala Espiritu Santua, ta datorrela Aita ta Semeaganic, ta dau-cala euracaz izate bat. Sinistuten dot Eleissa bacar, santu, apostolicu, guztien-tzaeoan. Sinistuten dot ta autortu, dagoa-la bautismo bat pecatuuen paracacinoeraco. Icharoten dot illen viztuera barrian, ta beti iraungo daben vicitzan.

**Ofertorio edo ostliaren esquintsarian.**

**A**ita Ceruco, Jaungoico altsu ta beticoa.  
Artu eguizu Abade Jaunac ceure seme  
Jaztan Jesusen icenean esquintzen deutsun  
ostia garbia: eroan eguizu ontzat azartulea  
ni bere, beragaz batian, esquintzen neure  
pecatuen ordañean: baita bere esquintzen  
deutsut arima leial viciac ta illac gaiti.  
Guztioc zucenduço al gara betico zorion-  
tasunera.

**Caliciarenecan.**

**E**squintzen deutsugu, Jauna, caliza osa-  
suntsu au, escaturic zure guganaco erru-  
quitasuna; eguizu, bada, esquintzari onec  
igon daiala zure ceruco jarlecura guño,  
izan dedin gure, ta beste guztien zorion-  
tasuneraco.

**Ofertorio edo esquintsari osteo erreguae.**

**A**rtu eguiuz, Jauna, gure viotzac eguiten  
deutsuezan esquintsariac. Damuturic  
gagoz gueure pecatuacaz. Entzun egui-  
zuz erruquiz, gure arima gueissuen ciz-

puruac. Eta zú, Espiritu vicitza emollia, jatsi zaite gure doien gañera, ta dontsatu eguzuz, esquiniac izan ditian duntasunec Aita beticoaren anditasunen aurrean.

**Atzamarrae garbitutean.**

**G**arbitu eguzuz, Jauna, gure arimac, urreratu gaitean zure mai santura. Nai dituguz entzun zure anditasunac, ta adierazo zure mirariac. Ez eguzuz ichi gure arimac, galdu ez ditian gueistuen artean, ceintzuen escuac dagozan loituac. Nai deutsel jarraitu bide zucen ta garbiei, ta lagun zaquidaz arren. Alan maitetuco zaitut beti beti zorioneco guztien artean.

**Orate fratres.**

**E**rregutu daiogun guzlioc Jaungoicoari, ta alcarto daiguzan gueure gurariae, ontzat artu daian esquintzen deutsagun Sacrificio au.

**Erregu issillae.**

**L**urreco guda edo guerrac goituric, erbeste onetaco naibagueac igaroric, betico atseguiñetan atsereten zagozen arima zorionecoac, ta batez bere, gaur icentetan zaituguzanac, batu eguiuez ceuen erre-guac gueureac gana, ezagutu daiguzan laster ceuen bitartetasun andiaren sari ugariac. Baña, azquenic, Aita beticoa, iminten dogu icharopen tā poz guztia es-quintzen deutzugun ceure seme bacar ta laztanaren sacrificioan. Beguira gure Aitari, ta erruquitu gugaz bere semeacaz.

**Prefacioan.**

**J**aungoicoaren ontasunaren poz andi bat-tegaz, jaso daiguzan gueure victzac ceruraguño, emoteco esquerrac egun deusczan mesede andiac gaitic. Artu daigun bere anditasunaren itzal eguiazco bat, ta billatu daigun Jesu Cristo gueure Jauna ta bitartecoa, beragana urreratu, ta

ainquerubaz batera esateco: Dontsua, dontsua, dontsua. Exercitu edo taldaguztien Jaun eta Jaungoicoa! Ceruac ta lurrac adierazoten deuscue bere anditasuna.

**Canonetic aurrera.**

**Z**ure aurrean auzpazturie, oh erruquiz beterico Jauna! erregututen deutsugu ontzat artu daizuzala gure doe ta esquintsiac. Batez bere erregututen deutsugu ceure Eleissa Santua gaitic. Gorde ta zaindu eguizu aguinduric dancazun leguez. Egeneric egunera batuago eguiuz bere seme guztioen viotzac gozatu gaitian bague santu baten. Beguiratu eiezurruquiz Aita santu Erromacoari, cein dan Eleisa guztico burua, gure obispo Jaunari, Erregueri, ta arima leial guztiei. Gomuntau bere zaite erruquiz gueuc escatnten deutsugun arima guztiacaz, ta meza santu onetan aurquituten garianocaz. Ondo ta arguiro dazauzuz guztioen premiñac, ta

eguizu, icasia daignazala laster guengan  
zure ontasun ta erruquitasunaren ondasun-  
nac. Jauna, urreratu gara altara santura  
zure siniste ta ieharopen andi bategaz.  
Badazaugu gueure argaltasuna, ta deitu-  
ten deutsegu zugan ceruan gozaluten  
dagozan arima zorionecoei, bat eguin  
dañezan euren erreguac gueureacaz; bada  
alcarturic guztioe, ta Jesus zure seme  
bacar ta laztana buru dogula ;cer icharon  
ez daiquegu zuro ontasunetic? Oh, Aita  
beticoa! Zuc emon ceuscun ceure seme  
maite ori gure argaltasunen jasogarritzat,  
naibaguetaco atseguintzat.... ta erbeste  
onetaco negar mueta guztien pozgarritzat;  
emon ceuscua, bai, gure buru ta Aita-  
tzat, gura cenduala guztiocaz artalde-  
bat, Artzain bera zala, eguitea. Emon  
ceuscun, bai, gueugaz ta gueurelzat izate-  
co. ;Ta noc ezagulu eiquezan onetaraco  
artu cenduzan asmo santuac? Oh, Iurreco  
jaquituria argalac lotsatuteco jaquituria  
neurri bagueal!

**Consagracionan.**

**S**inistuten dot viotz osoagaz, Ješnsec ill aurreco egunean artu ebala ogua bere escuetan, ta bedeineatu edo dontsuturie, zatitu, ta emon cutesela bere escolariei, biurturie bère berben indarrez, bere gorputz eguiatzcoan. Bardin sinistzen dot, artu ebala apal ostean calicia ardaogaz, ta dontsuturie, ta biurturie bere odolean, emon cutzela edaten. Oh, mirari, guzti en miraria? Oh, Jesusen berben indarra! Orainche bere, Abadiaren aoz esanic, barriztan da jaozoeraric zorioneco en au. Ay, noz emon leiozan Jaunari duiñeco esquerrac,

**Canonaren bigarren zatian.**

**Z**uri, bai, anditasun guzti en anditasuna, Jaungoico altsua, esquintzen deutsugu ostia benetan garbi, benetan dontsu, ta orban bagne au, (cein dan eguiatzco ogui vici garria, ta eguiatzco caliza osasuneco a)

Jesusen neque, eriotza, viztuera barri, ta  
igoera ceruracoaren icenean. Eta Jauna,  
baldin Abel, Abrahan, ta Melquisederen  
esquintzariac ain ontzat artu bacenduzan;  
¡cer icharon ez daiquegu orain esquintzen  
deutsugan sacrificio onegaz, ceñen queriza  
ta irudi labur batzue baño ez cirán lena-  
goco guztia? Bai Jauna, bai: esquintzen  
deutsugu gure pecatuac garbitatia gaitic  
zatitua izan zan Jesusen gorputz ederra,  
ta gure arimac gorbituteco emon zan be-  
re odol erru baguea: esquintzen deutsugu  
bere viotz gure maitetasunez edeguia. Be-  
tor, bada, bera gaitic, gugana oraingui-  
ñoco gaistaquerien parcamena, betor aur-  
rerunzean ez eguiteco indar ta laguntasu-  
na; betor, bai, zuc berari deutsazun maite-  
tasunac guretzat escatuten deutsuzan doe-  
erruquitsu guztia. Erruquitu bere zaite  
Garvilecu edo Purgatorioco sutan dago-  
zan arimacaz, egiztu Jesusen odolagaz  
erosirico arima arec, icusi dailela laster  
zure arpegui ederra.

Oh, Jesus benetan maitegarria! Celan emon neizuz deuzlazun maitetasunaren esquerrac? Lagun zaquidaz arren, nic bere aleguiñez ta viotz osoagaz mailetu zaidazan. Ez ditiala izan nire berbac, ascorenac leguez, azaleco ta min utsecoac, ezpada ain eguiazcoac, ceinda lenago emongo dodan neure vicitza, ta galdu gauza guztiac, zure gegoco ez dan gauzaric eguin baño. Bai, neure Jesus lastana, bai.

### PATER NOSTERREAN.

Aita gueurea, ceruelan zagozana etc.

### Guero.

**A**tera gaizuz, Jauna, gueure gach ta argaltasun guztietaie, ta eguizu, againtau daiala gure arimetan baque eguiazcoac. Iminten deutsuguz bitartekoizat ceruetaco Erreguiña, S. Pedro la S. Paulo apostoluac, ta zorioneco guztiac.

Alan escatuco, ta icharcten dogu baque sendo ta galduco ez dana.

**Agnus Dei esatean ta guero.**

**J**aungoicoaren Bildots, munduoa pecatuac quenduten dituzuna, erruquitu zaite guzaz; Jaungoicoaren Bildots munduoa pecatuac quenduten dituzuna, erruquitu zaite guzaz; Jaungoicuaren Bildots, munduoa pecatuac quenduten dituzuna, emon eiguzu baquea.

Aspertu baga escatueo deutsugu, Jauna, zure baque zorionecoa, bada esan ceunten apostoluei, baquea emolen deutsuet, baquea isten deutsuet. Eguizu, bada, zure seme alaba guztioc alcaturic vici gaitela, ta baturic guztioc Jesus maiteagan: Ez deiela izan lecuric gure artean arerio gueistoaren asmo aserracorrac, ez pecatuac, ceñegaz ecin gordeco dan baque eguiazcoa, ezpada Jesusen maitetasun, ta arimaco garbitasuna, ceintzucc diran betlico baquearen bai ciurrac.

**Comunioe aurrean.**

**J**esus maite, ceure eriotzingaz mundua viztu cenduana, enre gorputz ta odola gaitic, atera naizu pecatu ta gach guztietatic, ta eguizu ez nadilla iñoz aldendu zuganic ezpada vici nadilla iratsiric zure aguinduetara.

Zure gorputz ta odol eguiazcoa, ceintzuac artu gura nituquean (ezagutzen badotbere neure duin bøguesasuna) ez ditiala izan nire errugueiagoraco ta caltean ezpada, zure erruquitasunez, izan daquidazala neurone oreraco, ta betico vicitza zorionecoaren jaube izateco.

**Comunioian.**

**O**h, Jesus Iaztan, gure janari ta edari eguiazco eguiñic Altaraco mai santu orretan zagozana! Eta nor urreratu leitequean orain, Abadiagaz batera, zu artutera! Eta noc euqui leizan ataraco ainguueruen gar-

bitasun ta maitetasun erreal! Ez eguizu, Jauna, ichi Judas laco viotz loiric zugana urreratnten. Zabaldu bedi munduko bazter guztietañ zure anditasunaren entzutea, ta ezagutu bedi, aldañ añañ, zugaz bat egui-  
teco escatuten dan prestaera arduratsua. Izan zaite guretzat betico vicitzea ta ez eguiugu ichi, gueure lotsabagaqueriaz, gaisqui prestauric iñor zugana eldutena ja-  
quinic ciur, jan ta edango dogula betico galdu mendiaren epai iceragarria.

**Azqueneko erreguetan.**

**C**eruco Erreguiña, Apostolu, ta zorioneco guztien icenean, ta batez bere gaur Eleissiac icentietan dituanenian, escatuten deutsugu, zabaldu daizuzala gugana Meza santu onetan escatu deutsuguzan mesedeac. Izan bedi beti gugaz zure erruquitasuna, gugaitic bere odola emon eban zure seme Jesus gaitie. Bai, arren, bai.

**Ite misa est esatean.**

**E**san da Mezia, ta emon daioguzan Jaungoicuari aleguinezco esquerrac bera entuteco eria emon deuzculaco.

**Azqueneeo bendecinoia.**

**A**itaren, Semcaren, ta Espiritu Santuaren dontutasuna jatsi dedilla gugana, ta egon dedilla beti gugaz. Bai, arren, bai.

**Azqueneeo Evangelioan.**

**J**aungoico erruquierrac aguindurie guizonei bere seme bacarra araguituta guizon eguitia urratuteco pecatuaren cateiac, ta deseguiteeo bere illuntasunac, icharoten zan poz andiagaz guizonen zoriontasun bacar au. Anehinatik adierazo eben Igarla santuac bere etorreria, nos, celan, ta cerceridade guztiaquin. Jaungoicoaren seme bacar au zan beti beti Jaungoicoa;

egoan Jaungoicoagan, ta bera zan Jaungoicoa; Berac egun cituan gauza guztiak, ta ez zan bera baga ecer egun. Elduric icentaurico egunak, egun zan guizon, ta zabaldu cituan pecatuco bidei aldendu ta cerucoari jarraituteco argitasunak. Orregaitic, mundutarrak ezeutsen ezagüera ta abegui onic egun. Baña, beste batzuc jarraitu eutsen, ta bete cituan onec bere doiacz, ta egun Jaungoicoaren sema. Jarraitu daiegun, bada, gue bere, bere eracutsiei, izan gaitian beti iraunean bere zoriontasunaren jaube.

**Meza ostean.**

**G**uizonac esan al baño erruquiorrago zarian Jesus laztanal Zurturic dago nire arimia; arrituric nire viotza! Ni bassen pecatari andi bat euqui dozu Aingueruac mirarituric beguiratzen deutsen Sacrificio Santuan! Gueiago diñol. Ni gaitic esquin ian zará altaraço May santu orretan!

¡cer izango ete da zuc aimbeste maite do-  
zun nire arimachu onegaz? Cer izango ete  
da, diñot zure odolagaz erosi ta garbitu  
ceunstan arima onegaz. Ecin aspertu nas  
esaten: ¿cer izango ete da beragaz beti-  
iraun edo eternidadean? ¿Galduco eto di-  
tut zure ontasun, mesede, ta erruquitasun  
ain ugariac, eta cratsi nire gañera beti  
betico aserre ta madaricacinoiae? ¿Alden-  
duco ete nas gueiago zure bide garbi ta  
zucenstatic; edeguico ete deutsadaz peca-  
tuari neure viotzeco ateac, ta alde era-  
guin zure maitetasunari? Ez, arren, Jesus  
ona. Edegui dedilla lurra, ta iruntsi na-  
guiala, edo ceruco suac quiscaldu alaçó  
esquer gabetasunic egun baño lénago. Sen-  
datu naguizu ceure odolagaz, emon daidan  
pocic, biar bada, neure viotzeco azque-  
nengo odol tantia pecaturie ez eguite  
arron. Bai, arren, bai.

## CURUTZETACOEN EGUN BIDEA.

**Sarrerea.**

Lelengo, belaunbicoticuric, ceñatuco zara,  
ta esan biotzetic *Neure Jesucristo Jauna*.

## ESQUINTZECO ERREGUA.

**M**enre Jesus laztana, aguertu nai neunque no-  
labait zuganaco leialtasuna, jarraiturie gaur  
zure Calvarioco Oñatz edo pausuai. Eguizun,  
bada, irabaci daidazala onetandagozan Indul-  
gencia edo Parcamen guztiac. Erregututene  
deutsut ataraco. Eleisseac erregututea gura  
daben premiña guztiac gaitic, ta niretzat zure  
bide zueenai beti jarraituteco ar guia.

Munduan gozatu ta

Jesusi jarraitu

Izango ecin dana

Daigun ezagutu.

Neque ta curutzeac

Burla ta barreae

Sarri izango dituz

Jesusen seineac.



## LELEENGÓ ESTACIONE EDO EGOTALDIA.

**Eriotzaco epai edo sentencia gogorra.**

Curutzean ilteco  
Jesus Maiteac  
¿Cer egnin eta dau  
Neure genteac?

Gomunta zaite orain, ez eucala Jesusec bes-te erruric gure pecatuac bere ganean artutea baño.

### EREGUA.

**O**h, neure Jesus! Beraz zu, entzunic Pilato-sec emon daben eriotzaco epai edo sentencia, jaquin arren nirea zala erru gastia, zagoz issil issiltic! ¿Cer egnit daiquet, bada, nic orain? Baña cer egungo dot su baga, izanic ni aiñ argala? Indazu, arren, zuganeko leialtasuna, ta neque ta curutze guztiac zure ice-nean igaroteco indarra.

Beti amaituko dà onelan

*Aita gurea &c. Ave Maria &c. Ia Gloria &c.*

*Guero. Jauna, erruquitu zaite pecatariacaz. Guztiac esango dabee, Jesuseu Curutze ta erio-tea, izan dedilla guretzat betico bicitzea.*



## BIGARREN ESTACINOE EDO EGOTALDIA.

**Jesusi Curutzea imini eutsena.**

Curutze astunagaz  
Jesus macurturie  
¿Cer diñozu, bazagoz  
Ceugan arroturic?

Gomuntau eguzu emen Jesusen umiltasuna,  
arturie zugaitic curutze astuna bere sorbal-  
daan.

## ERREGUA.

**C**eruco bildots otsan edo mansoa: ñuora zoaz  
Curutze astun ori lepoan dezuña? Cee zarabiltz  
ain azpiratua? ¿Eta zu olan icusiric, celan ez  
danque nire beguiac negarrie? Samurtu ta ez-  
cotu eguiza nire biotz liorra, ta indazu, neure  
arrotasunac quenduric, zuri jarraituteco in-  
darra. Aita gurea &c.



## IRUGADREX EGOTALDIA.

**Jesu-Cristo Curutze agaz lelengo Jausi  
zan leeuia.**

Oh, cein astuna dan  
Nire pecatua  
Beguirea celan dauean  
Jesus auspaztua.

Beguirea orain peccataria, cein jausia ta azpiratua dagoan zure ariméa. Icusi eguizu Jese segan pecatnaren astuntasuna.

## ERREGUA.

**G**erua ta lurra indartuten dituzun Jesus, zacuztaz argalduta lurrera ezarria. Curutze astuna gañean, ta ceu azpian: Ce ieusgarria! Eta au jaquinie, celan bici neinde pecatuaz damutu bagaric? Jauna eguizu arren, ezaguteric neure erru ta uis eguiteac, jagui dedilla laster nire arimea zure bide zucenai jarraitu-tera. Aita gurea &c.



## LAUGARREN EGOTALDIA,

**Jesusec bere ama aurquitu eban leeuia.**

Amaric bigunena  
Nor billatzen dozu?  
Ara zure semea  
Laztandu eguiyu.

Gogoratu eguiyu emen cer igaroco zan  
ama semeric laztaneen arlean; aurquitu ebe-  
nean aloar Calvarioco bidean.

## ERREGUA.

**O**h, amarie errucarriena! Celan aurquitu do-  
zu, zue negarrez billatzen cenduan seme laz-  
tana! Burua arantzaz josiric, arpegui ederra  
icerdi, odol, ta autsez ezainduric; gorputz  
guztia azotez erituric; nora beguiratu cinaio,  
ezpadanca zati osoric? Biurtu eguiuz niga-  
nuntz zure begui erruquitsuoc, ta eguizu,  
izan nadilla ni bere seme ordeco. Bai, arren,  
bai, Aita gurea &c.



## BOSTGARREN EGOTALDIA.

**Simon Cirinecoa Jesusi Curutzea eratceo  
laguntzat emon eusen lekuia.**

Curutzea eroaten  
Lagundu nai dozu?  
Bada, nun nai nequea,  
Aurquitu daiquezu.

Aztertu egiztu orain Judeguen amorrua  
Jesus Curutzean josteko, bada bidean ill ez  
equioen bildurrez, emon eutsen laguna.

## ERREGUA.

**O**h Jesus maiteal! Celaco gogortasuna aurqui-  
tu dozun guizonen artean! Erruquia cirudian  
laguna emotea; baña ara emen zinganeko  
amorraren asmorie oquerrena. Gnihi de-  
richoe orain artean egnin deutsueñari; gura  
zaitue josi eureen escuacaz curutze orrelan,  
ta edan eragin Caliza garratzaren azqunenen-  
go ondar saminac. Eguizu bada; ni oraingui-  
ñocoacaz ondo danuturie, izan nadilla be-  
netan Curutze orren seme eguiazea. Aita  
gurea &c.



## SEIGARREN EGOTALDIA.

**Veroniqueac Jesusi arpegula garbitu  
eutsan lecua.**

Iru itzulico  
Zapi zurian  
Jesusen irudia  
Guelditu izan zan.

Gomuntau eguizu emen Veroniquearen sendotasuna, Judegu gogorren ardurabaga, azartu zanean Jesusi arpeguia sicutzen.

## ERREGUA.

**N**osbait, Jesus ona, aurquitu cenduan erruquia, ta saritzat ichi deutsazu emacunie sendoari ceure ichurea iru itzulico zapian. Sendatu eguizu nire arimea, ta emon eguidazu indarra, munduko bildurrac osticopetu, ta zure aguinduai jarraituteco. Marcau eguizu nire viotzean zure ichurea, bere gomutea izan dedin niretzat gauza chaar guztiataraco gorrotoa ta gauza onetaraco aguintea. *Aita gurea &c.*



## ZAZPIGARREN EGOTALDIA.

**Bigarren aldiz Jesus jausi zan lecua.**

Bigarrenez Jesus  
Jausi dâ emer:  
Urten pecatutic  
Aim bat lasterren.

Beguirea orain, cembañ bidar jausi zarean  
pecatuau, ta egin curutze aztuna izan zarean  
Jesusentzat.

## ERREGUA.

**N**os ezagutuco eta dot nie ondo neure peca-  
tuuen errua? Ieusiric Jesus, bigarren aldiz ja-  
siric, ta curutzearen azpian, Ceren zain egon  
neindeque, ezagatu baga neure ichultasun?  
Oh pecatual! Celan izan cinai gueiago lecuric  
nire ariman? Ez, ez. Alperric jaguico dirâ in-  
fernuko talda guztiak; vicio naz, bere ontza-  
sunet, Jesusegan, ta illgo naz beragan. Aita  
gurea &c.



## ZORTZIGARBEN EGOTALDIA.

**Jerusalengo alabai Jesusee berba eguin  
eutsen leeuua.**

Ceri negar eguin  
Cengan daucazu,  
Bada pecatua  
Maitetu dozu.

Ascodaucazincer icasi emacume erruquior-  
rai Jesusec esan eutsezan berba onetan. *Jeru-  
salengo alabac, ez eguzue negarric eguin nire  
gañean, espada ceuben buruen gañean.*

## ERREGUA.

**B**ai Jesus maitea! Badaueat nic neuregan ceri negar eguin, bida nire pecatuac ecarri zaitue zu laru orretara. Eta zugan aguerdu badau Aita belikoac aimbeste aserre, nire pecatuac ceure gabeian arlu cenduzalaco, cer izango dâ nigaz bere aserreco egun icaragarrian? Eguztu arren benetako negarraez garbitu nadilla, ta bere bildur santua izan dedilla nire besico jaquituria. Aita gurea &c.



## BEDERATZIGARREN EGOTALDIA.

**Irugarrenez Jesus jansi zan lecua.**

Irugarren aldiz astun  
Jesus jausiric.  
¿Ez da orregaitic  
Emen negarric?

Beguirea emen Judeguen gogortasunari. Indargaturie, Jesus, jausi zan irugarren bidarrean, ta aurquitu eban erruquia izan zan ostiko puntaz jagui eraguitea.

## ERREGUA.

**N**os artean, Aita Cerucoa, ichico dozu ceure seme bacar ta laztana guizon gogorreen esuelan? Nos artean gogortu oso zara seme onenizat, nigaz erruquiorrago izate arren? Eguizu, bada, ezagutu daidala nire arimeari deutsazun maitetasuna, ta ez daidazala galdu Jesusee esquintzen devstazan bere irabaci edo merecimiento amai baga aac. Aita gurea &



## AMARGARREN EGOTALDIA.

### **Jesus billostu eben lecua.**

Jantzi apainduac  
Dozuz biltatzen?  
Jesus billostuaz  
Ez erruquitzen.

Beguirea emen celaco gogortasonagaz quen-  
du eutseen Jesusi, bere gorputz zaurituari  
ichatsita euean jantzia.

### **ERREGUA.**

**C**erua izarrez, ta celaiac loraz jantzi cendu-  
zan Jauna, zacnziaz billosturic! Baña, cer, bi-  
llostua? Guztiori zagoz eratzia, ta odolez  
estalduric. Eguizu, billostu nadilla ni neure  
pecatuetatic. ta jantziric zure doe edo gra-  
ciazco soñeco garbiacaz, vici nadilla iñoz  
ezaindu baga, ta alan aguertu, betico eztegu-  
etará deituten denstazun unean. *Aita gu-  
rea. &c.*



## AMAICAGARREN EGOTALDIA.

**Jesus Curutzean josi eben lecua.**

Ultze gogorracaz  
Jesus josiric  
Dago lauburuan  
Zuc eseguiric.

Beguirea Jesusi, Curutze edo lauburuan, es-  
cu ta oñac ultzez josiric dagoala, baña orain-  
dic viciric.

## ERREGUA.

**O**h, Jesus ontasun guztien gañeticoal! Ce ne-  
que samin ta astunac ez darruazuz, curutze  
orretan viciric josita zauquezala? Eguizun, ba-  
da, ez nadilla ni bere gozatu lurreco atseguin  
argaletan, ezpada, Curutzea izan dedilla nire-  
tzat poz ta atseguinic andiena, alan jarichi  
daidazan bere ondorecngo atseguin amaiba-  
gaac. *Aita gurea &c.*



## AMABIGARREN EGOTALDIA.

**Jesus curutzean ill zan leeuia.**

Ilda, bada, Jesus  
Gu viztuteco  
Ceruco ateac  
Edeguitteco.

Gomuntau egnizu emen, eé lotsagarrria izan  
zan, munduaren begiqtan. lapur biren er-  
dian Jesusi eimon eutsen eriotzea.

## ERREGUA.

**O**h, Aita Cerucoal! Ill dá zure seme bacarra  
ta ill dá guri betico vicitza emotearren. Iga-  
ro ditu aimbeste lotsari ta neque, guri onda-  
sun ugariagoac iste arren. Asco da gogortasun-  
ic. Eguízu, bada Jesusen odola izan dedilla  
niretzat zure csleiduen marquia, tá bere erio-  
tziagaz viztu dedilla nire arimia; ostera peca-  
tuaren eriotziagaz ez iltcco. *Aita gurea &c.*



## AMAIRUGARREX EGOTALDIA.

**Jesusen gorputz illa bere Amari altzora  
croan eutsen leeuia.**

Amaren altzoan: *lila*  
Jesus dago illie *nido zueot*  
Eztago icusteco *quind IA*  
Emen viotzie. *soq. una o!*

Emen daucazure viozac cec asco samurtu,  
icusiric Siongo Doncella ederra bere Seme  
laztan, baña zauriz illa, altzoan ta laztanduric  
daucala.

## ERREGUA.

**O**h, ama naibaguez betea! noc emon al leion  
atseguiun pusca bat zure viozar! Noc lagundi  
al leizun zure negarrezco bacartadean! Artu  
naizu, bada, zure scmetzat, to egiztu, vicitza  
garbi bategaz, izan nadiilla beti zure atsegui-  
ña, ta guero emon deizudazala beti ceruan  
ceure amatasunaren esquer gozoac. *Aita gu-  
rea. &c.*



## AMALAU GARREN EGOTALDIA.

**Jesus obi, edo sepultura barri baten sartu  
ebeen leeuia.**

Ahi, nic viotzean  
Jesus obitu;  
Al baneu betico  
ta Ama poztu.

Gomunta zaite, celan Ama maiteari quendu  
eutseen bere besoen artetic Jesus, obitu edo  
sepultetaco.

## ERREGUA.

**O**h, amaric errucarriena! Cein bacarra guelditu zarean! ¿Nun dozu ceure semea? ¿Nun dà zure maite bacarra? ¿Nun atserengo dau orain zure vietz samurrac? Orain artean, illie bada bere icusi dozu ceure semea, baña arlosa astun batec estaldu dau, ta ez dauque zure beguiac iñun atseguiñe. Eguin naguizu ni bere zure negarren lagun, izan nadin guero betico atseguiñeen jaube. *Aita gurea &c.*



## ANABOSTGARREN EGOTALDIA.

**Jesus viaturie Madalenari aguertu jacon  
leena.**

Nai dabenenac Jesus  
Zucen billatn,  
bere pecatueen  
damua artu

Orain ezagutu daiquezu, celan Jesusec mai-  
te dituzan pecatari ondo damutu, ta vicitza  
garbian dirauenac.

## ERREGUA.

**O**h, pecatarien Aita erruquierra! Oh, ardi galduen Artzain biguna! Celan poztunco ez dà nire violza, icusiric aguertu zachacozala Madalena pecatarriari ceure edertasun, ta atsegui, edo gloriaz jantziric. Oh, zorioneco Madalenaren negarrac! Zorioneco munduari ta bere arroqueriai egun eutseen betico agurra! Emon eguidazu indarra, nic beste aimbreste eguiteco, icusi zaidazan, egunen baten, zu, edertasun guztien edertasuna. Aita gurea &c.

## AZQUENA.

**E**z gaitean guelditu iracurte utsagaz Jesusen Calvarieco oñatzen gañcan. Atera daiguzan arimaraco biar ditugun onera ta mesedeac. Ezagutu daigun, aragniaren atseguin, ta mun- duaren arroqueria ta labanquerietan ez dala aurquituten cernraco bideric, ta oneec isten ez ditubanac, ecin jarraituko deutzala JESU- CRISTOI, ta izango ez dabela iñoz lecuric Ceruco atseguinetan.

**FIN.**

## EGUNOROCO LAN TA CEREGUIÑAC.

### GOSSECOAC.

*Gossean iratzartuten zareanean, jasoric violza Jaungoicoagana esango dozu: Jesus, Maria ta Jose, zuei emoten deutsuedaz neure gorputza ta arimea.*

*Jaguiric artuco dozu ur bedeincatua, ciñatuco zara ta esango dozu: Neure Jesus cristo Jauna.... Jantzirie jarrico zara belaunico Jesus curutzian josiaren irudi baten aurrean ta esango dozu: Neure Jauna ta Jaungoicoa: Esquer andiac emoten deutsudaz neure vicitza guztian egun deustazuzan mesedeac gaitic eta batez bere gorde nozulaco bartco gabian. Eguizu igaro daguidala egun au, neure vicitzaco azquenengoa balitz leguez, pectoric egun baga ta kristiñau on baten lan ta biarretan. Esquintzen deutsudaz gaurco nire gogo, gurari, esate, eguite, lan, biar, pausu ta círquin guztiac ceu-*

re ondra ta gloriaraco ta neure pecatuen zorra paguetaco. Oraindissec iminten dot gogoa irabazteco gaurco parcamen edo indulgencia guztiac purgatorioco arimac gaitic.

### AMA DONCELLA MARIARI.

Ó doncella garbi ta neure Ama mai-te Maria! Icharopen sendo bategaz zure mempijan jarten naz guzliau. Gaur artuten zaitut neure Ama ta bitartecotzat. Zure escuetan iminten ditut neure gorputza, ta arimea. Zaindu ta gorde naguiyu neure arerioetatic gaur ta beti, batezberere eriotzaco orduan. Amen.

*Errezau eguzkiz iru Ave Maria ta Salvia.*

### Ainguero jaollari.

Jaungoicoac berac ni zaindu ta gordetako icentauric zaucazan neure Ainguero jaola ederra. Esquer andiac emoten deutsudaz sortua izan nintzanetic ona eguin deustazuzan mesedeac gaitic. Erregutu-

ten deutsut arren gaur bere arguitu na-  
guizula, zucendu nāguizula ta gorde na-  
guizula neure arimaco arerioetatic: zu  
neure lagun zaitudazala eguinic vicitza  
garbi ta eriotza on bat, gozatu gaitian al-  
carregaz betico glorian. Amen.

*Berari Aita gurea ta Ave Maria bat.*

**Norberaren iceneco Santuari.**

Ó San (edo Santa) N. neure iceneco  
Santu andia! Zure icen ederra imiñi eus-  
ten batcoan, euquiric beti zure vicitza  
miragarria neure beguien aurrean, jar-  
raitu neguion gogotic. Izan zaite gaur ta  
beti nire bitarteko Jaungoikoaren aur-  
rean, zure laguntasunagaz zurearen an-  
tzeco vicitza bat eguinic lurrean, izan gai-  
tean alcarregaz ceruan. Amen.

*Aita gurea ta Ave Maria.*

Aitearen ta Semearen ta Espiritu San-  
tuaren icenean, Amen.

*Orain eguzu oraciño mentala ordi  
erdi baten.*

*Guero entzun mezia.*

## EGUNECOAC.

*Gossean albacoan, egüerdian amabietan ta illuntzian Ave Marietacoetan errezauko dituzu iru Ave Maria.*

*Arimenetan Aita gurea ta Ave Maria bat Purgatorioco arima guztiac gaitic. Beste bat ceure guraso, ta senideac gaitic.*

*Erlojuac joten dabenean esango dozu: Agur Maria guztiz garbia, pecatu bagaric sortua. Guero Ave Maria bat. Azquenic: Bedeincatua izan dedilla neure Jesus mai-tea sortu, jaio, ill ta viztu zan ordua ta cerura igoen ebana. Neure Jesus ona: zaindu naguizu ordu onetan ta beti.*

*Bazcal aurrean ta apal aurrean maia bedeincatuteco.*

*Aitearen eguinic esango dozu: Gueure Jaun ta Jaungoicoa: erdu ta bedeincatu eguiuzu orain artutera goazan janaria: izan dedilla zure gloriaraco ta gueure arimen*

ta gorputzen oneraco. *Aita gurea la Ave Maria.*

*Bazcal ostean la apal ostean esquer-rac emoteco.*

*Equinic Aitearen esango dozu: Esquer-rac ta alabantzac emoten deutsuguz, Jauna, zucendu deuscuzulaco orain artu dogun janaria ta beti egnin deuscuzuzan mesedeac gaitic. Eguizu beragaz sendatu ditecela gure gorputzac zure gloriaraco biar eguiteco. Aita gurea, Ave Maria ta gloria. Guero: Emen lurreco maian batu gaituan Jaunac berac, batu gaizala ceru-coan. Amen.*

**Ur bedeineatua artutean.**

Orain artuten dodan, ur bedeincatuac,  
Parcatu daidazala, neure pecatuac. Amén,

**Elessan sarreran.**

Banoa, Jauna, sartutera zurc eche san-tuan: iearagarria da lecu au. Ez da au

besteric ezpada Jaungoicoaren echea ta ceruco atea. Eguizu egon naitela lotsaric ta itzalic andienagaz. Entzun eguzizcenre jarlecu goratutic eguitera noatsun erregnac. Amen.

**Lanen bat asi baño lenago.**

Esquintzen deutsut, Jauna, orain eguitera noian biarra ceure gloriariic andieraco la neure pecatuen zorra paguelaco. Gura dot asi ta amaitu zure bendecino santuagaz. Amen.

**JESUS CURUTZEAN**

**josiaren irudiren bat leustean.**

Adoretan zaitut, neure Jesus maitea, curutze orretan nigaitic josia ta illa. Viztu eguzu nire violzean zure amodioa. Amen.

**Mariaren irudiren bat leustean.**

Agur, Aita Jaungoicoaren alabia,

Agur, Seme Jaungoicoaren ama.

Agur, Espiritu santo Jaungoicoaren laguna.

Agur, Irubatasun santuaren Elessa ta égolecua,  
Agur, Maria pecatu bagaric sortua. Amen.

*Mezan hostria ta calicia gora jasotean  
bularra joaz esango dozu.*

**Hostria jasotean.**

Adoretan zaitut eta esquerrac emoten deutsudaz neure Jesus maitearen gorputza, izan ciñana nigaitic curutzian josia, illa, ta nire pecatuac gaitic Aita cerucoari esquinia.

**Calizia jasotean.**

Adoretan zaitut ta esquerrac emoten deutsudaz neure Jesus maitearen odola, nigaitic curutzean isuriric, garbitu cenduzana nire pecatuac.

**Mezan Domine non sum dignus esatean.**

Jauna, ez naz ni, zu neure echean sartuteco duin: baña berba bat esan eguizu eta osatuco da nire arimea.

## GABECOAC.

*Jarriric belaunico icusi ta aztertu  
egiztu dempora labur baten, celan igaro  
dozun eguna. Beguiratu pecaturen baten  
jausi bazara: ceure lanac celan eguin  
dituzun.... Ta guero egun atan eguiñico  
pecatuen damu viciagaz ta ez gueiago  
eguiteco asmo sendoagaz esan egiztu:  
Neure Jesucristo Jauna.*

### **Guero esango dozu.**

Neure Jaun ta Jaungoicoa: esquer an-  
diac emoten deutsudaz neure vicitza guz-  
tian eguin deustazuzan mesedeac gaitic ta  
batez bere gorde nozulaco gaurco egui-  
nean. Damuturic nago viotzetic eguin  
ditudazan pecatnacaz: emoten deutsul  
berbia ez gueiago eguiteco. Zaindu nagui-  
zu gau onetan neure arimaco arerioetatic  
ta ames charretatic. Eguizu ni lotan na-  
goan artean egon dedilla iratzarriric nire

violetza. Aingneruac gorde naguiela gach guztietatic zuc aguinduric deutsezun leguez. ¡Ay nec igaro al leiquean gau au oso osoric zu alabetan zure servitzari ascoc leguez! Edolabere esquintzen deutsudaz euren errezu ta eguite on guztiac, baita bere ceruco zorionecoen alabantzac.

*Errezau eguiozuz Mariari iru Ave Maria ta Salvea, San Joseri, ceure Aingueru jaoleari ta ceure iceneco sanluari Aita gurea ta Ave Maria batna.*

*Guero artuco dozu ur bedeincatua, ciñatuco zara, bolaco dozu oe ta guelan ta etzungo zara.*

*Loac artuten zaituzan arlean erabillico dozu ceure gogoan pensamentu au. Gembat illgo diran gau onetan! Nec daqui neu bere illgo banaz? Alan jazoco bañitz noraco ete nintzateque?...*

### AZQUENA.

dove niente da fare, e neanche a calci  
se poteva fare affatto niente, ma soltanto  
un po' di spazio. E come non aveva  
potuto fare altro che lottare, ma non ave-  
va neanche le forze per farlo, tutto quello  
che poteva fare era di correre, e correre  
per non essere afferrato, e correre per non  
essere afferrato, e correre per non essere  
afferrato, e correre per non essere afferrato.

Perché non era affatto un  
corridore, era solo un uomo  
che sapeva correre, e non sapeva  
correre, e non sapeva correre,

ma sapeva correre, e non sapeva correre,  
ma sapeva correre, e non sapeva correre,  
ma sapeva correre, e non sapeva correre,

Saipeva correre, e non sapeva correre,  
e non sapeva correre, e non sapeva correre,

e non sapeva correre, e non sapeva correre,

# BILLABIDIA.

Berba aurrecoa,	<i>pag.</i>	7.
Asieran egunoro esateco erregua,		10.
Illaren lelengo eguneraeo,		13.
Comuniño gurarizco arimaco edo espiritu-		
laren ganean eracutsi ta arguitasunac,		17.
Egun guztietaraco Ama Doncelleari erregua		22.
Bigarren eguneraeo,		24.
Irugarren eguneraeo,		28.
Laugarren eguneraeo,		33.
Bostgarren eguneraeo,		36.
Seigarren eguneraeo,		40.
Zazpigarren eguneraeo,		45.
Zortzigarren eguneraeo.		50.
Bederatzigarren egunerace,		54.
Amargarren eguneraeo,		59.
Amaicagarren eguneraeo,		64.
Awabigarren eguneraeo,		68.
Amairugarren eguneraeo.		72.
Amalaugarren eguneraeo.		77.
Amabostgarren eguneraeo,		82.
Amaseigarren eguneraeo,		86.
Amazazpigarren eguneraeo,		89.
Amazortzigarren eguneraeo,		94.
Emeretzigarren eguneraeo,		98.

Ogueigarren eguneraco,	103.
Oguetabatgarren eguneraco,	108.
Oguetabigarren eguneraco,	115.
Oguetairugarren eguneraco,	117.
Oguetalaugarren eguneraco,	122.
Oguetabostgarren eguneraco,	126.
Oguetascigarren eguneraco,	131.
Oguetazazpigarren eguneraco,	135.
Oguetazortzigarren eguneraco,	140.
Oguetabederatzigarren eguneraco,	145.
Oguetaamargarren eguneraco,	149.
Oguetaamaicagarren eguneraco,	154.
Bateoan eguindaco esquintzariac barrizte-taco era edo modua.	160.
Jesus Sacramentaduari bederatzi urruna,	162.
Confesiñoco ta Comuniñoco Sacramentu Santua ondoprestauric artnteco erreguac,	187.
Mezia,	210.
Curutzetacoen eguin bidea,	232.
Egunoro lan ta cereguinac,	249.



